eus
Jakin 255
herria kultura hizkuntza martxoa-apirila 2023

Hizkuntza politika
Auzitik jauzira

MALEN DOMINGUEZ ZABALA
AIZE OTAÑO LIZARRALDE
IÑIGO URRUTIA LIBARONA
IKER SALABERRIA URKIZU
DABID ANAUT PEÑA
IONE JOSIE DANJOU

EGUNEN GURPILEAN

MAIALEN AKIZU BIDEGAIN
JOANES IGEREGI SANTAMARIA
CIRA CRESPO

Jakin.eus 255
herria kultura hizkuntza martxoa-apirila 2023

© Jakin.eus
hemia, kultura, hizkuntza
JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria

Jakin.eus
hemia, kultura, hizkuntza
aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

LEHENDAKARIA
Joanmari Larrarte

OHOREZKO KIDEAK
Paulo Agirrebaltzategi • Joxe Azurmendi • Joseba Intxausti

ZUZENDARIA
Lorea Agirre

ERREDAKZIO BURUA
Xabier Eizagirre

ERREDAKZIOA
Haritz Azurmendi • Oihana Iguaran

KONTSEILU EDITORIALA
Lorea Agirre • Xabier Eizagirre • Idurre Eskisabel
Patxi Juaristi • Joanmari Larrarte • Imanol Murua
Andoni Olariaga • Olatz Osa • Gexan Sors

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA
Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 Andoain
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Jabegoa: Jakin Fundazioa. Andoain. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: O211/495X
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

SUMMARY
5

ZUZENDARIAREN HITZAK
7

GAI NAGUSIA Hizkuntza politika: auzitik jauzira

11 XXI. menderako hizkuntza politika baten beharraz
Malen Dominguez Zabala • Aize Otaño Lizarralde
Euskararen normalizazioa xede, XXI. mendeko erronken aurrean zer hizkuntza politika behar dugun birpentsatzeko garaia da, euskararen auzia politikoa baita osoki. Horretan ekarpena egitea du helburu Txillardegi Gogoeta Guneak.

19 Hausnarketa juridikoak hizkuntza politikaren egungo bidegurutzeaz
Iñigo Urrutia Libarona
Hizkuntza politikaren egungo bidegurutzea aztertzen da, faktore legal eta juridikoei erreparatuz. Hizkuntza politika sostengatzen duen marko legala birpentsatu eta urrats kualitatiboak ematea ez da aukera soil bat, premia bati erantzuten baitio, jurisprudentzia bidezko mehastuetatik babesteko eta egungo gizarte premiei erantzuteko.

47 EAEko hizkuntza politika: egoera, korapiloak eta erronkak
Iker Salaberria Urkizu
EAEko hizkuntza politikaren oinarrizko azterketa eta balorazioa egiten da. Hortik abiatuta, eta egungo testuinguruak ezartzen dizkigun erronkak eta beharrak aintzat hartuta, aurrera begirako zenbait gako eta erronka mahaigaineratzen dira.

79 Zaila bada, ez da ezinezkoa
Nafarroako hizkuntza politikaz
Dabid Anaut Peña
Nafarroan egiten den hizkuntza politika aztertzen da, arreta bereziki Nafarroako Gobernuaren jardunean jarrita. Horretaz gain, hizkuntza politikaren inguruko bestelako gogoeta batzuk ere jasotzen dira.

95 Zenbaterainoko aukera dute tokiko erakundeek hizkuntza politika garatzeko?
Ione Josie Danjou
Frantziako Konstituzioak frantsesa errepublikaren hizkuntza ofizial bakar gisa aitortzen du, baina, derrigortasunik ez ezartzeak ez du debekurik ezartzen, eta egun indarrean den lege koadroak hainbat neurri hartzeko aukera uzten du. Koadro horren baitan definitzen eta obratzen dira Euskararen Erakunde Publikoak, Euskal Hirigune Elkargoak eta herriko etxeek indarrean jartzen dituzten lege babesik gabeko hizkuntza politikak.

EGUNEN GURPILEAN

113 Kultura
Maialen Akizu Bidegain

120 Glokalia
Joanes Igeregi Santamaria

127 Historia
Cira Crespo

KONTRAZALA Dom Campistron

LANGUAGE POLICY: A LEAP FORWARD

A language policy for the 21st century

Malen Dominguez Zabala and Aize Otaño Lizarralde, members of Txillardegi Gogoeta Gunea, highlight the fact that the time has come to rethink the language policy we need in view of 21st century challenges, always with the aim of normalizing the Basque language and taking into consideration the fact that the language issue is genuinely one that is political in nature. Malen Dominguez Zabala • Aize Otaño Lizarralde

Juridical reflections regarding the current crossroads at which language policy finds itself

Iñigo Urrutia Libarona, a Law lecturer, analyses the current crossroads at which language policy finds itself, paying special attention to legal and juridical factors. Rethinking the legal framework that sustains language policy and taking qualitative steps is not simply another option, but rather, a response to the need for it to defend itself from attacks against jurisprudence and adapt to current social circumstances. Iñigo Urrutia Libarona

Language policy of the Basque Autonomous Community: situation, problems and challenges

Iker Salaberria Urkizu, a member of Txillardegi Gogoeta Gunea, analyses and assesses the language policy of the Basque Autonomous Community. Based on this premise and taking the challenges and needs set out by the current context into consideration, he provides a range of keys to the future. Iker Salaberria Urkizu

Difficult but not impossible. About the language policy of Navarre

Dabid Anaut Peña, a graduate in Basque Philology and activist in favour of the Basque language, analyses the language policy being pursued in Navarre, paying special attention to the actions being taken by the Regional Government of Navarre. The author also adds a further series of reflections about language policy. Dabid Anaut Peña

Language policy of local institutions

Ione Josie Danjou, the person in charge of the Basque language in Urruña, reminds us that the French Constitution recognises French as the sole official language, although the definition of the current legal framework offers a loophole for the application of a range of measures. It is within this scenario in which the language policies of Euskararen Erakunde Publikoa (State Office of the Basque Language), Euskal Hirigune Elkargoa (Agglomeration Community of the Basque Country) and town halls are defined and acted upon without any legal protection. Ione Josie Danjou

News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, globalization and history matters. This section draws on various specialists: Maialen Akizu Bidegain, Joanes Igeregi Santamaria and Cira Crespo. Various authors

Azken hamarkadetan Euskal Herrian egin diren hizkuntza politiken azterketa dakar esku artean duzun zenbaki honek, eta 2022ko urrian UEUk, Telesforo Monzon Laborategiko Txillardegi Gogoeta Guneak eta Jakinek elkarrekin antolatutako *XXI. menderako hizkuntza politikaz* jardunaldiaren ondorio da (jardunaldi osoa ikusteko: www.jakin.eus). Bertan hizlari jardun zuten hainbat lagunen artikuluak bildu ditugu, Malen Dominguez eta Aize Otañorena, Iñigo Urrutiarena, Iker Salaberriarena, Dabid Anautena eta Ione Josierena.

Hizkuntza politika bere definizio hertsian aztertzen da; izan ere, berez, gizarteko egitura eta eragile guztiek –enpresario bat eta norbera barne, demagun– hizkuntzen erabilerarekin egiten dutena da hizkuntza politika. Zentzu estuan, berriz, erakunde eta agintari publikoek egiten duten hizkuntzen kudeaketa da. Zenbaki honetan, halere, hizkuntzaren normalizazio prozesuan halako protagonismoa izatea espero –edo desio– ez genuen erakunde publiko bat sartu da ezinbestean, hizkuntza politikan sartu den legez: epaitegiak. Justizia ari zaigu esaten orain zeinen bidegabeki ari garen euskararen biziberritzea 'inposatzen'. Eta, horrekin, ideologia supremazista oso baten birformulazio etengabea, euskararen lurralde osoan zabalduz doana. Mamu zahar-berri bat.

Fenomeno zahar-berri hori EAEko administrazioan 1982tik indarrean dagoen hizkuntza politikaren mugen eta agortzearen sintoma dela dio Iñigo Urrutiak, hizkuntza politika definitzeko dagoen eremua gero eta estuagoa dela. Hizkuntza politikak goia jo duela dio Iker Salaberriak. Azken berrogei urteotan gizarte aldaketa ikaragarriek, erronka berriek –bizi eredu, ekonomiko, ekologiko, digital, global...– eta diglosia egoera indartuz joateak hizkuntzen politikak birpentsatzea eta berritzea, irmotzea, zabaltzea eskatzen duela esan daiteke.

Bidegurutzearena euskararen biziberritzean azkenaldian erabiltzen den metafora bat da. Bidegurutzean gaude. Errotondan bueltaka, orain arte egindakoak irekitako bideak ixten ari direla. Jauziaren beharra ere ahoz aho dabil. Adostasun sozial eta politiko berri baten beharra. Ausardiaz jauzi egin edo atzera egin, bi au-

kera baino ez direla geratzen esan genezake, sinple esanda. Hori dena arrazoitzeko, orain arteko hizkuntza politikak –hizkuntza baten edo bestearen alde arauz eta esplizituki egiten direnak, baina baita *de facto* inplizituki ere egiten direnak– baloratu behar dira, orain arte egindakoak zer emaitza eman dituen ikusi, botere publikoek hartzen dituzten eta hartzen ez dituzten erabakien inpaktu eta emaitza hizkuntzen eta hiztunon gainean aztertu. Hizkuntzena diogu, gazteleraren aldeko –zer esanik ez frantsesaren aldeko– hizkuntza politika egunero egiten baita, diglosia indartuz. Genero berdintasunaren gaietan nekezago onartuko genukeena errazago irensten dugu hizkuntza berdintasunaren aferan. Aipatu beharrekoa da generoarena, besteak beste, apenas kontuan hartzen den aldagaia, euskararen hautuan eta erabileran ezinbestekoa delako eta hizkuntza politiken diseinu zabalean ere zer ikasia geneukakeelako genero berdintasunetik eta are feminismotik; are gehiago, euskararen feminizazioa azken hamarkadetako joera argia denean –bere on eta bere kalte–, eta hizkuntza politikak ere genero politikatik asko duelako.

Egunen gurpilean atalean artikulugile berri bati ongietorria eman behar diogu: Cira Crespo historialariari. Historian aztarrika, gaur egunerako urre bila ariko da. Maialen Akizurekin eta Joanes Igeregirekin, lehena kulturaz eta bigarrena glokaliaz, hiru gelatako etxea osatuko du. Dom Campistronek, Iparraldeko leihoan, Bañolet herria bistaratu digu, Paxkal Irigoienek eta Maia Iribarnek sortu duten Frantziatik askatutako fikziozko paisaia.

HIZKUNTZA POLITIKA: AUZITIK JAUZIRA

11 XXI. menderako hizkuntza politika baten beharraz
Malen Dominguez Zabala
Aize Otaño Lizarralde

19 Hausnarketa juridikoak hizkuntza politikaren egungo bidegurutzeaz
Iñigo Urrutia Libarona

47 EAEko hizkuntza politika: egoera, korapiloak eta erronkak
Iker Salaberria Urkizu

79 Zaila bada, ez da ezinezkoa
Nafarroako hizkuntza politikaz
Dabid Anaut Peña

95 Zenbaterainoko aukera dute tokiko erakundeek hizkuntza politika garatzeko?
Ione Josie Danjou

XXI. menderako hizkuntza politika baten beharraz

Malen Dominguez Zabala
Aize Otaño Lizarralde
Txillardegi Gogoeta Guneko kideak

Itsusi da zapalbidearen jokoa agertzea! Askoz abillago da politikaren izena ez daraman 'nazio-ekintza', zabala: 'politika', horrela, hizkuntzarekiko 'temak', 'hizkuntzakeria' hitz batez, ez du erresumak behin ere egiten; ez du gobernuak sekulan izaten mintzairari buruzko 'setarik'. Setak, temak, politikeriak, 'euskeromania', eta abar, geuk dugu, erromantiku porrokatuok, pikuan bizi geranok, zozook beraz. Gobernuak, noski, ez dira gure txikikeriez arduratzen... 'Haundiak haundiro'...

Hizkuntzen etorkizuna, ordea, gobernuek erabakitzen dute. Gaur batez ere ez dago gobernurik hizkuntza-politika deliberaturik ez duenik.

Txillardegi: *Hizkuntza eta pentsakera*, 1979, 260. or.

Jose Luis Alvarez Enparantza, *Txillardegi*, ezohiko intelektuala izan zen. Gutxik bezala, garaiko pentsalari nagusien iturrietatik edan eta ezagutza hura Euskal Herriko errealitatera ekartzen jakin izan zuen intelektual konprometitua, hain zuzen ere.

Telesforo Monzon eta Txillardegi lotzen zituen hari nagusietakoa bien ala bien euskaltzaletasuna zen. Eta biek ala biek uste zuten, bere buruaren jabe izango zen Euskal Herri

bateratua osatuko bazen, horretarako oinarri nagusia euskara izango zela.

Hizkuntzaren auziari dagokionez, berriz, Txillardegik argi zuen aterabidea, etortzekotan, nondik etorriko zen. Berak esanak dira:

> Hizkuntzak ez dira ahultzen edo gotortzen beren moldea edo barne-egiturarengatik, politikazko askatasun ala menpetasunarengatik baizik. Askatasunik ez duten herriak beren hizkuntza galtzen dute, eta politikaz menperatu dituzten erresumen hizkuntza hartzen. (Alfontso Irigoien Euskaltzaindiko idazkariari Angelutik 1963ko abuztuan igorritako izkribua)

> Euskararen arazoa ez da borondatekeriaren bitartez konponduko. Ba dakigu. Euskararen arazoa [...] *politikoa da* osoki. (*Euskal Herritik erdal herrietara*, 1977, 377. or.)

Horrek eraman zuen, hain zuzen, glotopolitikaren edo hizkuntza politiken esparruko ezagutzetan sakontzera eta horren gaineko dibulgazio lanak egitera.

Monzonek ere argi zuen hizkuntza borroka:

> Herri gisa euskerak daramaki kolkoan gure geroaren giltza. Ulertzen bagaitue ez baikaute sekulan ulertuko. Ulertuko ez gaituenean ulertuko gaitue. Ulertu behar bagaitue, beraz, gauden ezin ulertuak. Horrela beharbada, ezin ulertuz, azkenean ulertuko baikatue.

Monzonek zein Txillardegik ez zuten zalantzarik honi buruz: euskarak duela zentralitatea gure nazioaren berreskurapen prozesuan.

Horiek horrela, azalpen askorik eman behar izan gabe, uste dugu Txillardegiren izenak eta izanak islatzen dituela beste ezerk baino argiago eratzera goazen Telesforo Monzon Euskal Herrigintza Laborategiaren baitako gogoeta gune horren nondik norakoak.

Gogoeta gune hori, gogoetaren esparrutik Euskal Herri euskalduna osatze bidean, bere hondar alea ekartzera dator; besteak beste, hizkuntza gatazka eta, zehatzago esanda, glotopolitika edota hizkuntza politika erdigunean jarrita, garaiko

pentsalarietatik eta leku desberdinetako esperientzietatik edanda, eta ezagutza bertako errealitatera egokituta. Bistan denez, ez gara hutsetik abiatzen, Monzonek, Txillardegik eta beste hainbat pentsalarik urte luzez pilatu eta eskainitako ezagutza dugu bizkar gainean; baina argi utzi nahi dugu ikuspegi desberdin horien guztien artean ere geure lekua eta ikuspegia zein diren. Gure ezagutza kokatua baita, eta Txillardegi Gogoeta Gunea jarraian aurkezten dugun kokalekutik abiatuko da.

Testuinguruari dagokionez

XXI. mendearen lehen laurdenean murgildurik gaudela, mundu mailan sekula ezagutu ez den abiadan gertatzen ari dira aldaketak: robotizazioa, adimen artifiziala, gauzen Internet, teknologia aurrerapenak, informazio joan-etorriak... Horren guztiaren ondorioz, gizarte eraldaketa sakona gauzatzen ari da. Horrekin batera, migrazio mugimenduek, mugikortasunak eta jendartearen zahartzeak eraginda, biziki ari da aldatzen ingurunea urte gutxitan, Europan batik bat.

Uste dugu Txillardegiren izenak eta izanak islatzen dituela beste ezerk baino argiago eratzera goazen Telesforo Monzon Euskal Herrigintza Laborategiaren baitako gogoeta gune horren nondik norakoak

Horrekin lotuta eta horretaz gain, ziurgabetasuna eta ezegonkortasuna nagusi dira gaur egun. Agortu da belaunaldi berriei iraganekoei baino bizi baldintza hobeak ekarriko zizkien promesa neoliberala. Inoiz baino gordinagoak dira zalantzez eta galderez betetako etorkizuna, eta agertoki berrien gaineko ziurgabetasuna. Horrek zaildu egiten du etorkizun desiragarri (eta sinesgarri) bat, utopia edo proiektu politiko bat partekatzea. Horrela, gizartea zatikatzea eta indibidualizatzea bultzatu da.

Testuinguru horretan, ordea, inoiz baino biziago nabari da gizakion taldetasun beharra. Heldulekua eta babesa eskaintzeaz bat, nor izaten lagunduko digun komunitatearen beharra. Horrek guztiak sekulako eragina izango du, beraz, identitatearen erreprodukzio sistemetan, oro har, eta, zer esanik ez, gurea bezalako komunitate/nazio gutxituetan.

Hizkuntzen eta identitateen erresilientzia mailak determinatuko du eraldaketa horretatik guztitik nola aterako diren hizkuntzak eta herriak. Hizkuntzaren auziari lotuta, neoliberalismoaren gailentzeak liberalismo linguistikoaren diskurtsoa eta praktika indartu ditu azken hamarkadetan. Ideologia horrek kultura aniztasuna merkatu parametroetan ulertzen du, bai kulturak, bai hizkuntzak. Hizkuntzari lotutako aferak herritarren borondatezko kontsumo gai bilakatzen dira. Eskubide indibidualen mesedetan, «borondate librearen bidez ebazten dira» ideia faltsua indartzen ari da, baita eskubide kolektiboen baztertzea ere. Horrek guztiak, noski, hizkuntzaren normalizazio prozesua bultzatzeko politika publikoen esku hartzea gaitzestea dakar; edo, onenean, esku hartze horren eraginkortasuna gutxiestea.

Euskal Herrira etorrita, euskararen egungo normalizazio ereduak goia jo duen zantzuak nabariak dira; besteak beste, hezkuntza arloan, helduen euskalduntzean edo erakunde publikoen normalizazio prozesuetan, kultur transmisioan edota esparru komunikatiboan. Horrek guztiak ondorioak utzi ditu euskararen transmisioan eta biziraupenean, kale erabilera datuek adierazten duten bezala.

Horren atzean, Txillardegik argi erakutsi zigun bezala, ez dago hizkuntzaren molde edo barne egitura arrazoirik, ezta hiztun herriaren utzikeriarik ere. Hizkuntza ordezkapen horren atzean dauden botere harremanei begiratu behar zaie fenomeno hori ulertzeko.

Estatuen aldetik bultzatzen den joera kolonialak sortzen duen euskal hiztun herriaren mendeko egoerari, hain zuzen.

Hori guztia aski ez, eta COVID-19ak eta berorrekin etorritako krisialdiak joera horiek azkartu eta areagotu egin ditu.

Aipatu eraldaketa horiek guztiak kontuan izanik, euskararen normalizazioa helburu duen euskaltzaletasunak/abertzaletasunak ezinbestekoa du gogoeta sakona egitea.

Paradigma aldaketen garaian bizi gara, eta egoera berri horietara egokitzeko gaitasuna izateak berebiziko garrantzia izango du.

Zertarako gogoeta

Esan bezala, XX. mende amaierako egoerari begira garatutako eta bere jatorria hor du(t)en hizkuntza politikak/ek ez dute errealitate berri horri erantzuteko ahalmenik.

Gelditu eta inguruetara begiratzeko garaia dugu euskararen normalizazio prozesuan; sistemikoak eta egiturazkoak diren eraldaketez ohartu, eta prospektiboki sakondu behar dugu errealitate horren aurrean euskal botere politikoek (euskal erakundeek) nola eragin behar duten XXI. mendeko eta menderako euskararen normalizazioan. Aztertu beharra dago botere politikoa nola eta zertarako baliatu euskararen normalizazio osoa erdiesteko; izan ere, eztabaida ez da asko/gutxi aurreratu dugun, botila erdi betea edo erdi hutsa dagoen, baizik eta XXI. mendeko erronken aurrean zer hizkuntza politika behar dugun aurrera egiteko.

Horretarako, halere, ezinbestekoa izango da datozen hamarkadetan zer gizarte eraldaketa izango diren ongi ulertzea, zein diren joera orokorrak, zein izan daitezkeen ezustekoak... Eta horren guztiaren baitan, euskara eta euskal identitate erresilientea lortzeko behar dugun hizkuntza politika birpentsatu behar dugu.

Txillardegik berak jarri zuen horretarako oinarria: hizkuntza eta herria, biak batera pentsatu behar dira. Hizkuntza politika, azken finean, herrigintzaren zehar-alderdia da: 'nolako herria eratu nahi eta ahal dugun' galderari erantzutetik hasi behar baita hizkuntza politikaren nondik norakoak zehazten.

Horrenbestez, euskal herritar eleaniztunez osaturiko Euskal Herri euskalduna, Euskal Estatua, sortzea badugu

helburutzat, Euskal Herri euskaldunera eramango gaituen trantsizio linguistikorako hizkuntza politika garatzea izan beharko dugu jomugan. Norabide horretan, hortaz, XXI. menderako hizkuntza politika eztabaidatzeko eta ahal bada ondorio nagusi batzuk ateratzeko gogoeta behar da. Hizkuntza politiketan jarri behar da arreta, gainera, Txillardegik azaldu bezala, euskararen arazoa politikoa delako osoki, eta, bere ordezkapen prozesua hizkuntza politika batzuen ondorio izan den moduan, hizkuntza politiken esku hartzea ezinbestekoa izango delako euskararen normalizazio prozesurako. Izan ere, azken boladan, hizkuntza politikei buruz eztabaida lausotu edo desagertu egin da. Aurrez aipatu bezala, hizkuntzaren afera norbanakoen hautura mugatu nahiak, kritika saihestu nahiak, hizkuntzaren berreskurapen prozesua hizkuntza gatazkatik bereizi nahiak edo dena delakoak eraginda, hizkuntza politiken gaineko eztabaidek ez dute izan plaza publikoan behar zuten lekua.

Gogoeta gune honen bultzadaren bidez, hizkuntza politikaren gainean Euskal Herrian hainbat ikerketa lerro zabaltzen joatea espero dugu, aditu sare sendo bat egituratzen joatea eta gaiak plaza publikoan behar duen lekua eskuratzea

Argi dago Euskal Herri luze-zabalean egoera desberdinak bizi ditugula, eta hizkuntza politikaren inguruko eztabaidaren auzi hori ez dela berdin gertatzen ari lurralde guztietan. Halere, badago ezaugarri komun bat: ez da egiten ari hizkuntza politikaren inguruko nahikoa azterketa, gogoeta eta eztabaida sakon, sosegatu, serio eta zorrotzik. Gaiak lekuan leku presentzia edo ausentzia handiagoa edo txikiagoa izan arren, ez dago arnasa luzeko eta ikuspegi zabaleko behar besteko gogoeta egituraturik.

Hutsune horiei erantzun eta herri eztabaida sakon eta zabal bati ekarpena egitera dator, bada, Txillardegi Gogoeta Gunea.

Asmoak eta langaiak

Esan dugun bezala, Txillardegi Gogoeta Gunea abiapuntua jartzera dator, baina gure ikusmira ez dugu epe motzera mugatzen. Urruneko ortzi mugek amets egiten laguntzen digute, posible diren aukerak zabaltzen dizkigute. Horrela, gogoeta gune honen bultzadaren bidez, hizkuntza politikaren gainean Euskal Herrian hainbat ikerketa lerro zabaltzen joatea espero dugu, aditu sare sendo bat egituratzen joatea eta gaiak plaza publikoan behar duen lekua eskuratzea.

Horretarako, ikuspegi sistemiko eta egiturazko batetik abiatutako gizarte prospekzio orohartzaileak edo integralak egin beharko ditugu, prospekzio horietatik eratorritako agertoki posibleek hizkuntza normalizazioari begira ekar ditzaketen ondorioak eta erronkak identifikatuz eta horien arabera aurrera begirako hizkuntza politikaren ikuspegiak landuz.

Horrekin batera, hizkuntza politika konparatua garatzea, nazioarteko hizkuntza politiken inguruko teorien eta praktiken berri izatea dagokigu, baita horiek gure errealitatera ekartzeko, egokitzeko edota moldatzeko ahalegina egitea ere. Bide berean, euskararen normalizazioan hizkuntzaren arloko corpus legalaren eta euskal erakundeen papera sakonki aztertu behar da. Hizkuntza politika globalak ezartzeari begira, instituzioen eta herri ekimenaren arteko lan koordinatuari begira, kolaborazioan oinarritutako gobernantza eredu berriak landu behar dira. Hain zuzen ere, bi alde horiek elkarrekin erabaki dezaten garatu beharreko politika eta bakoitzak bete beharrekoa funtzioa.

Azkenik, horrekin guztiarekin batera, gaiak behar duen garrantzia eta zentralitatea eskuratuko badu, beharrezkoa izango da hizkuntza politiken inguruan eraikita dauden diskurtsoak aztertzea eta hizkuntza politikaren auzia agenda politikoan jarri beharra aldarrikatzeko eraiki beharreko diskurtso berrien nondik norakoak lantzea eta horiek hedatzea.

Proposatzen diren lanketa horiek guztiak Euskal Herri osoko ikuspegiarekin egitekoak lirateke. Funtsean, euskararen

normalizazio prozesuaren ikuspegi propioa lantzea eta euskarak Euskal Herriaren eraikuntza prozesuan izan beharreko lekua zehaztea, Euskal Herri osoan, modu berean, eraiki beharreko 'paradigma' bailitzateke. Horrek ez luke esan nahiko, noski, ikuspegi horretatik erator litezkeen proposamenak, praktikak edo diskurtsoak mimetikoki aplikagarriak izango direnik.

Bide hori urratzeko, beraz, Txillardegi Gogoeta Gunearen jarduna hiru ardatz nagusitan egituratuko da: hizkuntza politiken gaineko gogoeten eta eztabaiden bidez ezagutza sortzea; dibulgazio ekintzen eta argitalpenen bidez ezagutza hori zabaltzea; eta, azkenik, hizkuntza politikaren inguruko aditu sarea sortzen eta zabaltzen joateko formazioa sustatzea.

Hausnarketa juridikoak hizkuntza politikaren egungo bidegurutzeaz

Iñigo Urrutia Libarona
UPV/EHUko Administrazio Zuzenbidea, Konstituzio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofia Saileko irakaslea

Hizkuntza araubide juridikoaren aplikazioari argazki bat ateratzerik izango bagenio, eraldatzen eta estutzen ari den panorama erakutsiko liguke. Espainian 1978ko konstituziotik eratortzen den hizkuntza ereduaren definizio teorikoa bi zutabetan oinarritu zen: batetik, hizkuntza propioei[1] estatus juridikoa aitortu zitzaien (lurraldeka zedarritutako ofizialtasun partekatua, gaztelaniarekin batera), eta, bestetik, gaztelaniari, estatu hizkuntza gisa, nagusitasunezko posizioa bermatu zitzaion. Jatorrian eredu ireki samar gisa konfiguratu zen, lurralde hizkuntzen erabilera normalizatzeari marjina zabala eskainiz.

Halere, azken urteotako hizkuntza eredu konstituzionalaren bilakaerak erakusten digu eredua bera itxiz joan dela, lurralde hizkuntza politikaren helmena mugatuz eta aukerak estutuz. Badirudi gailentzen ari direla izaera politikoko planteamendu berriak, hizkuntza propioen normalizazioarekin urrunegi joan dela baieztatuko luketenak; ondorioz, gaztelania defendatzeko jarrera politiko eta juridikoa justifikatuko litzateke. Alderantzizko perspektibatik, euskal hiztunen

ikuspegitik egungo egoera aztertzean, ezegonkortasun sentsazioa edo hizkuntza eskubideetan atzera goazelako sentsazioa da nagusi. Estatu frantsesean ere, berriki izan den deszentralizazio prozesuari ez zaio lotu «eskualdeetako hizkuntza» deiturikoen estatus egokirik (Zabaleta 2015).

Hegoaldean, laurogeiko hamarkadaren hasieran lortutako adostasun politikoen ondorioz, euskal hizkuntza-eredua aurrera egiten hasi zen, hizkuntza banaketaren printzipioa ardatz hartuz. Horren ondorioz, ikasleak (unibertsitatekoak barne) ikasgela ezberdinetan banatuak izango ziren, telebista eta irrati publikoko kanalak hizkuntza ofizial batean eta bestean ezarriko ziren... Ez dago zalantzan jartzerik ereduak aurrerapen garrantzitsuak ekarri dituela, duela berrogei urte pentsaezina izan zitekeen bidea eginez; halere, haren aplikazioak gogoeta egiteko moduko alderdiak ere iradokitzen ditu.

Euskal hizkuntza-sistemaren oinarri diren funtsezko arau zutabeak ez dira aldatu azken berrogei urteotan, berriki Euskararen Legearen zurruntasuna sektore jakinetan malgutu bada ere (toki administrazioaren arloan eta laster hezkuntzan ere). EAEn laurogeiko hamarkadan onartutako Euskararen Legeak (azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, Euskararen Erabilera Normalizatzekoa) berean dirau, eta ez da sekula aldatu.[2] Nafarroan, aldiz, Euskararen Legea aldatu izan da, baina soilik zonalde ez-euskaldunean hezkuntza eskubideak zabaltze aldera eta udalerriak hizkuntza eremu batetik bestera banaka mugitzeko. Halere, hori ere arau zurruna dela esan daiteke, oraindik zonifikazioari heltzen diona, hizkuntza eskubideak mailakatuz eta hizkuntza gutxituaren aurrerapausoak mugatuz, euskararen legearen ondorioz edo haren eraginez.

Hizkuntza politika bidegurutze berri baten aurrean dago. Laurogeiko hamarkadan diseinatutako tresnak zaharkituak geratu dira, eta jurisprudentzia berrienak agerian utzi du bere hauskortasuna. Bien bitartean, berrogei urteren buruan aldaketa sozial eta politiko ugari gertatu dira Euskal Herrian. Egungo gizartea ez da laurogeiko hamarkadako

bera, askoz ere anitzagoa baizik. Aniztasunari balioa ematea erabat bateragarria da hizkuntza aldetik kohesio handiagoa bilatzearekin. Hizkuntza politikan urrats kualitatiboak ematea ez da aukera soil bat, premia bati erantzuten baitio, jurisprudentzia bidezko mehastuetatik babesteko eta egungo gizarte premiei erantzuteko. Bide horretan tresna juridikoak gaurkotzea da proposa daitekeena, eta horretan sakonduko dugu lan honetan.

Kokapena: marko juridiko konstituzionala eta bere eragina

Euskararen historia juridikoa debeku eta jazarpen politikoz betetako historia bat da (Torrealdai 1998). Euskarari eragin dioten arauen azterketa historikoak agerian uzten du hizkuntzaren eta boterearen arteko lotura estua (Irujo eta Urrutia 2022). Jakina da estatuaren bateratze-prozesu motela hizkuntza uniformizazioaren eta asimilazio kulturalaren bidez gauzatu dela, XIX. mendearen hasieratik behinik behin. Hizkuntza gatazka ez da gaurkoa, mendetan zehar iraun duen errealitatea baizik.

Euskal Herrian hizkuntza gatazkaren profilak aldagarriak izan dira garai historiko bakoitzean. Hizkuntza-gatazka akzio eta erreakzio dinamiketan oinarritu da, konfigurazio ezberdinak agertuz historikoki; baina, konfiguratze horretan, berebiziko garrantzia izan du bertako (euskal) botereen ahalmen politikoak. Euskal lurraldeen ahalmen politikoak dimentsioa eman dio hizkuntza gatazkari, etengabekoa izan den hizkuntza homogeneizazioari erantzuteko edo aurre egiteko garaian.[3]

> Hizkuntza politika bidegurutze berri baten aurrean aurkitzen da. Laurogeiko hamarkadan diseinatutako tresnak zaharkituak geratu dira, eta jurisprudentzia berrienak agerian utzi du bere hauskortasuna

Hegoaldean euskarak gaur egun duen estatus juridikoak 1978ko konstituzioan xedatutakoa du abiapuntu eta muga. Aurreko garai historikoan, diktaduran (1936-1975), hizkuntza bakar bat baino ez zen aitortzen, gaztelania, ofizialki 'hizkuntza espainola' deitua. Hizkuntza politika faxista hizkuntza ofizial bakarra inposatzera bideratu zen, gainerako hizkuntzak desagerrarazteko intentzioz, tartean euskal hizkuntza eta euskal nazio kontzientzia. Ezagunak dira euskararen aurka emandako milaka arau, dekretu, isun, zigor eta agindu (Torrealdai 1998). Giza eskubideak eta era guztietako askatasunak, linguistikoak barne, ukatzeaz gain, euskararen erabilera errotik debekatu zen eremu publikoan, eta baita pribatuan ere. Garai beltz horietan, garrantzi berezia izan zuen euskal kultur erresistentziak euskarazko irakaskuntzaren esparruan.

Testuinguru horretan gauzatu zen konstituzioaren onarpena, aurreko erregimen faxistaren itzalpean, oinarri politiko eta juridiko berriei bide emanez. Parametro politiko konstituzional berrietan lekua egin nahi izan zitzaien estatu espainiarraren hizkuntza eta kultur aniztasunari edo, nahi bada, nazio ezaugarriak dituzten lurraldeei. Hizkuntzaren ikuspegitik, eta zehazkiago euskararen ikuspegitik, 1978ko konstituzioak bi eragin nagusi sortu zituen:

- Lehena lurraldeari buruzko eragina da. Hots, konstituzioak estatu espainiarra osatzen duten autonomia erkidegoak zehatz aipatzen ez baditu ere, parametro politiko hutsetan oinarrituz, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Autonomia Erkidegoa bereizi ziren, euskararen lurraldean muga politiko eta administratiboa ezarriz. Euskararen lurraldearen zatiketa horren ondorioz, euskararen berreskurapen politikaren gaineko eskumen eta ardurak modu banatuan gauzatuko ziren EAEn eta Nafarroako Foru Komunitatean. Hizkuntza komunitatea politikoki zatitua geratu zen Hegoaldean.
- Bigarren eragina substantiboa edo mamizkoa da, euskararen estatusaren funtsezko oinarriak konstituzioan bertan finkatzen baitira. Konstituzioak ofizialtasuna aitortu zion

> euskarari, gazteleraren lehentasunezko edo pribilegiozko estatus juridikoari kalterik egin gabe. Gazteleraren estatus pribilegiatuak konstituzioan oinarri hartzen badu ere, bereziki nabarmendu da 2010az geroztik, eskumen higadura argi baten ondorioz.[4]

Hizkuntzen arauketa konstituzionala ez zen modu hertsian diseinatu. Eredu irekia zela uler daiteke, autonomia estatutuei eta normalizazio legeei bide zabal samarra utziz erkidegoetako hizkuntza erregimena osa eta zehatz zezaten (Pons 2019). Halere, denboraren poderioz, eta bereziki Auzitegi Konstituzionaleko jurisprudentziaren bitartez, eredua itxiz joan da. Hizkuntza eredu konstituzionalaren ixte prozesuak 31/2010 Epaian (Kataluniako Autonomia Estatutuari buruzkoa) du bere abiapuntua.

Jurisprudentzia aldaketa horren oinarrian pentsamendu ildo berri bat dago, zeinaren arabera normalizazio prozesuekin urrutiegi heldu garela ulertzen baita; beraz, abian jarri da gaztelera defendatzeko ildo estrategikoa. Oinarri politikoa duen pentsamendu hori auzitegietako epaietan islatu da, eta hizkuntza normalizazioak bere itzalean dakarren bultzada estrategikoaren helmena mugatzeari ekin zaio.

Ildo berri horren elementu adierazgarriena «hizkuntza ofizialen arteko ezinbesteko orekaren» printzipioa da, Auzitegi Konstituzionaleko 31/2010 Epaian ezarri zena. Irizpide berri horren arabera, bi hizkuntza ofizialen arteko berdintasun formala ez da normalizazio prozesuaren helmuga bezala planteatzen, abiapuntu gisa baizik, hizkuntza propioaren aldeko neurri positiboak blokeatuz. Hona hemen Auzitegi Konstituzionalak dioena:

> el concepto de 'preferencia', por su propio tenor, [...] implica la primacía de una lengua sobre otra en el territorio de la Comunidad Autónoma, imponiendo, en definitiva, la prescripción de un uso prioritario de una de ellas, en este caso, del catalán sobre el castellano, en perjuicio del *equilibrio inexcusable* entre dos lenguas igualmente oficiales y que en ningún caso pueden tener un trato privilegiado. (AKE 31/2010, ekainaren 28koa, 14. ZO –zuzenbideko oinarria–)

Eredu konstituzionala gero eta estuago bihurtzen ari da, hizkuntza propioen aldeko neurri positiboei muga erantsiak ezarriz.

Gatozen, bada, konstituzio ereduan sakontzera. Ezaguna denez, konstituzioaren 3. artikuluak, lehen paragrafoan, gaztelera estatuko hizkuntza ofiziala dela ezarri du, espainiar guztiek berori ezagutzeko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea dutela gaineratuz. Bigarren paragrafoak gainerako hizkuntzez dihardu, autonomia erkidegoetako lurraldearen barnean ofizialak izango direla ezarriz, autonomia estatutu bakoitzak arau dezakeenaren arabera.[5] Konstituzioaren 3.2 eta Gernikako Estatutuaren 6.1 artikuluetan ezarritakoaren itzalez, EAEn euskara, berezko hizkuntza (hizkuntza propioa) izateaz gain, hizkuntza ofiziala ere bada, gaztelerarekin batera (Cobreros 1989). Nafarroako Foru Hobekuntzaren 9.2 artikuluak euskararen ofizialtasuna Nafarroako eremu euskaldunetara hedatzen du, Nafarroako Legebiltzarraren esku utziz eremu horiek zein diren zehazteko ardura. Nafarroako Legebiltzarrari ahalmen zabala eskaintzen zaio euskararen ofizialtasunaren lurralde hedapena ezartzeko, eragotzi gabe lege aldaketa bidez lurralde osora hedatzeko aukera juridikoa.

Konstituzio araubidearen indarrez ez dago berezko hizkuntzei lurraldetasun printzipioa aplikatzerik; hots, ezin ezar daiteke euskara hizkuntza ofizial bakarra izango den lurralderik (ezta eremurik ere)

Konstituzioaren 3. artikuluaren eraginez esan daiteke gazteleraren nagusitasuna ezarri dela orokorrean edo termino estrukturaletan. Gailentasun juridiko horrek lau isla nagusi ditu:

a) Gaztelera hizkuntza bakarra duten estatuko eremu geografikoetan lurraldetasun printzipioa hertsiki aplikatzen da.[6]

b) Aldiz, hizkuntza propio edo berezko hizkuntzadun eremuetan, pertsonaltasun printzipioa dugu indarrean. Eremu

horietan bi hizkuntza ofizial bizi dira elkarrekin, eta, ofizialtasun bikoitzaren ondorioz, hizkuntza ofizialetatik bat aukeratzeko eskubide publiko subjektiboa sortzen da.[7]

Konstituzio araubidearen indarrez ez dago berezko hizkuntzei lurraldetasun printzipioa aplikatzerik; hots, ezin ezar daiteke euskara hizkuntza ofizial bakarra izango den lurralderik (ezta eremurik ere). Euskara hizkuntza ofizial den eremu guztietan, gaztelera ere hizkuntza ofizial izango da, euskararekin batera. Beraz, lurralde horietan gaztelera zein euskara erabili nahi duten pertsonen hizkuntza eskubideak bermatu beharko dira.

c) Konstituzioak gaztelera jakiteko betebeharra ezarri du, eta horren itzalez espainiar guztiek gaztelera ezagutzen dutelako presuntzioa (AKE 82/1986, ekainaren 26koa, 3. ZO). Presuntzio horretan oinarrituz, administrazioek gazteleraz jardun ahal izango dute. Aldiz, autonomia erkidegoetako berezko hizkuntzak jakiteko betebeharrik ezin ezar daiteke, konstituzioa muga baita horretarako. 2006ko Kataluniako Estatutu berriak, katalanaren eta gazteleraren arteko desoreka hori orekatze aldera, katalana ere jakiteko betebeharra ezarri zuen. Hona hemen katalana jakiteko obligazio juridiko berriaz Auzitegi Konstituzionalak esandakoa:

> El deber constitucional de conocimiento del castellano, antes que un deber «individualizado y exigible» (STC 82/1986, FJ 2) de conocimiento de esa lengua, es en realidad el contrapunto de la facultad del poder público de utilizarla como medio de comunicación normal con los ciudadanos sin que éstos puedan exigirle la utilización de otra [...] para que los actos de 'imperium' que son objeto de comunicación desplieguen de manera regular sus efectos jurídicos. En el caso de las lenguas cooficiales distintas del castellano no existe para los poderes públicos una facultad equivalente [...] El art. 6.2 EAC [Kataluniako Estatutua] sería inconstitucional y nulo en su pretensión de imponer un deber de conocimiento del catalán equivalente en su sentido al que se desprende del deber constitucional de conocimiento del castellano.[8]

Adierazpen horretan, Auzitegi Konstituzionalak gazteleraren aldeko desoreka baieztatu zuen. Auzitegi Konstituzionalak

gaztelera jakiteko betebehar konstituzionala ofizialtasunaren ohiko eragin batekin lotu zuen (bere hitzetan: «la facultad del poder público de utilizarla como medio de comunicación normal con los ciudadanos sin que éstos puedan exigirle la utilización de otra»). Auzitegi Konstituzionalaren interpretazioaren arabera, eragin hori gaztelerarentzat soilik gorde da, «gaztelera jakiteko betebeharrarekin» lotuz.

d) Estatuko egitura politiko eta administratiboetan elebakartasuna aplikatzen da. Erakunde zentraletan hizkuntza propioak erabat gutxietsiak daude, erabilera ofizial gutxi batzuk aitortuak izan badira ere.[9] Europako Batasuneko erakundeetan antzeko erregimena aplikatzen da: hots, euskara ez da Batasuneko hizkuntza ofiziala, eta, salbuespen zehatz batzuk kenduta, euskara erabiltzerik ez dago Batasuneko erakundeetan.[10]

Lau ezaugarri horiekin batera, azpimarra dezagun Espainiako Konstituzioaren 3. artikuluaren 3. paragrafoak betebehar orokor bat ezarri duela, hots, hizkuntzak eta hizkuntza aldaerak begirunez hartu eta babestu behar direla aginduz.[11]

Laburbilduz, konstituzioak hizkuntza aniztasunari eskaini dion tratamendua bi baliabideren bitartez gauzatu da: batetik, ofizialtasuna aitortuz; bestetik, hizkuntza propioei dagokienez, geografikoki zein konpetentzialki horiek zedarrituz. Hots, alde batetik, berezko hizkuntzen ofizialtasuna autonomia erkidegoen lurraldeetara hedatzen da, bertan kokatuta dauden erakunde guztietan eraginak sortuz; bestaldetik, konstituzioak jaso duen zedarritze konpetentzialaren arabera, euskararen ofizialtasuna autonomia estatutuak ezartzen duenaren araberakoa izango da. Erkidegoko botere publikoen esku izango da, beraz, euskararen normalizazio prozesua arautzeko eskumena, betiere konstituzioak ezarritako markoaren barnean eta gazteleraren ofizialtasun pribilegiatuari kalterik egin gabe.

Halere, argi izan behar da hizkuntza aniztasuna sustatzeko betebehar orokorra konstituzio betebeharra ere badela (botere publiko guztiei dagokiena, erkidegoko zein estatuko erakundeak izan), hizkuntza aniztasuna begirunez har eta babes dezaten.

Oinarri juridikoa duen hizkuntzen arteko trataera desorekatu horrek badu isla soziolinguistikorik ere. Hona hemen tratamendu juridikoak sorrarazten dituen bi eragin soziolinguistiko nagusiak:

- Batetik, estatuko botere publiko zentralekin zein Europako Batasuneko erakundeekin harremanak izateko, euskara jakitea *ez da erabilgarria*.
- Bestetik, erkidegoan dauden botereekin harremanak izateko, euskara jakitea *ez da ezinbestekoa*; gaztelera jakitea bai, ordea.

Hori horrela izanik, euskara bezalako hizkuntza gutxituen normalizazio prozesuei erronka handiak planteatzen zaizkie, berezko hizkuntza esparru administratibo eta sozial guztietako hizkuntza normal bihurtzeko bidean, gazteleraren ofizialtasuna mugatu gabe eta gazteleraren egoera juridiko pribilegiatuari oztoporik eragin gabe.

Konstituzio ereduak koofizialtasuna ezarri arren, berezko hizkuntza duten lurraldeetan ezarritako egitura dual hori (estatu elebakarra eta lurralde elebidunak) ez da izan gaztelaniaren hegemoniari aurre egiteko neurri egokiegia. Eredu horren aldeko apustuak, testuinguru diglosiko batean, ez dio aukera handirik ematen kultur eta botere hegemoniaren rola hausteari; izan ere, erakundeek eta merkatuak bultzatzen eta bideratzen dute gaztelania. Jardun dezagun, bada, EAEko hizkuntza politikaren norabidearen hautuaz eta etorkizunean izan litezkeen aukera juridikoez.

Euskararen Legearen hautua: hizkuntza politikaren helburua

Autonomia estatutuak euskararen ofizialtasuna aitortu ondoren, Eusko Legebiltzarrak, 1982ko azaroaren 24an, 10/1982 Legea onartu zuen, euskararen normalizazioa gidatzeko helburuarekin. Katalanaren edo galegoaren normalizazio legeak garai bertsukoak dira, baina Euskararen Legeak beste norabide bat hartu zuen.

Kataluniako hizkuntza politika, errealitate soziolinguistiko desberdin batean oinarrituta, *hizkuntza konjuntzio edo uztarketaren* printzipiotik abiatu zen. Printzipio horren adierazgarri litzateke ikasleak hizkuntza aukerarengatik bereizten ez dituen irakaskuntza eredu bakarra, edo hizkuntza eskakizunak funtzio publikoan orokortzea.

Aitzitik, laurogeiko hamarkadaren hasieran EAEn lortutako adostasun politikoaren ondorioz, euskal ereduak *hizkuntza bereizketaren (edo banaketaren)* printzipioa ezartzen du. Berorren arabera, ikasleei irakaskuntzan komunikazio hizkuntza aukeratzeko eskubidea bermatuko litzaieke, baita unibertsitatekoa ere (ikasgela ezberdinetan bereiziz edo hizkuntzagatik segregatuz); funtzio publikoan, hizkuntza eskakizunak aldez aurretik 'elebidun' gisa zehaztutako lanpostuei bakarrik aplikatuko litzaizkieke, baina ez lanpostu guztiei, bi hizkuntza talde eratuz funtzio publikoaren barnean; jakinarazpenak, adierazpen zehatzik ezean, dokumentu bakarrean egingo lirateke bi zutabetan idatzita, bakoitza hizkuntza ofizial batean; eta telebista eta irratiko bina kate sortuko lirateke, bata euskara hutsean eta bestea gaztelania hutsean. Finean, EAEkoa, oinarrian hizkuntza eta gizarte partiketa bat duen eredua dela esan daiteke.

Euskararen Legeko ereduak hizkuntza eskubideak aitortzen dizkio euskara erabili nahi duenari zein gaztelera erabili nahi duenari, bi hizkuntza taldeak indartuz. EAEn (eta partzialki Nafarroan ere) aplikatzen den sistema ezaguna da Europako testuinguruan, gutxiengoak babesteko sistema baita, hain zuzen ere.[12]

Euskal hizkuntza-eredua arauen bidez eratuz joan da. Gutxiengoen zuzenbideak egiten duen bezala, euskal ereduaren ezaugarri nagusia hizkuntza askatasuna gauzatzeko guneak bermatzea da, hizkuntza bat edo bestea erabiltzeko eskubidea bermatuz. Helburu nagusia pertsonen eta hizkuntza taldeen eskubidea asebetetzea da. Finean, hizkuntza normalizaziorako euskal ereduaren helburua hizkuntza talde euskaldunari garatzeko espazioak eskaintzea da (euskaraz heztea, bere

hizkuntzan komunikatzeko bideak ematea, administrazio publikoetako zirkuitu euskaldunak sortzea...), baina oso era apalean planteatzen da hizkuntza aldaketa integrala. Egindako bide luzearen ondorioz, aurrerabide nabarmenak gertatu dira, baina bada zer hausnartzerik gizartearen hizkuntza kohesioaren ikuspegitik. Hizkuntza normalizazioa era integratuago eta kohesionatuago batez planteatzerik ba ote dago? Zein da araubideak aitortzen digun marjina?

Egungo bidegurutzeak galdera bati erantzutea eskatzen du: zein behar du izan euskararen normalizazioaren ardatz eta eredua XXI. mendean?

Galdera horren erantzuna, sarritan, 'elebitasuna' izaten da. Modu orokorrean elebitasunaz hitz egiten denean, bi hizkuntzak ezagutzeko eta baliatzeko gaitasunari egin nahi zaio erreferentzia. Helburu hori, adibidez, administrazio mundura ekarriz gero, udalek bi hizkuntzatan jarduteko gaitasuna ekarriko luke. Bide bertsutik, norbanako edo administratuen ikuspegitik, hizkuntza ofizial bietan jarduteko gaitasuna lekarke.

> Hizkuntza normalizaziorako euskal ereduaren helburua hizkuntza talde euskaldunari garatzeko espazioak eskaintzea da, baina oso era apalean planteatzen da hizkuntza aldaketa integrala

Elebitasunaren helburuak nolabaiteko inflexio puntura eraman gaitzake, baina bai administratuok bai administrazioak bi hizkuntzetan jarduteko gaitasunik badute, zergatik aukeratuko dute euskara erabiltzea? Ezaguna denez, euskararen eta gazteleraren bizitasun etnolinguistikoak zeharo desberdinak dira. Hizkuntza batean eta bestean dagoen hizkuntza eskaintza oso desberdina da (gizarte komunikazioaren esparruan, aisian, komunikazio teknika berrietan, mundu juridiko zein ekonomikoan...). Hizkuntzek betetzen dituzten gizarte funtzioak ez daude orekatuta. Gaztelerak estatu hizkuntzek izan ohi dituzten onurak baliatzen ditu; euskarak, aldiz, oraindik

ere, hizkuntza gutxitu eta ez-normalizatua izaten jarraitzen du. Pertsonak elebidun bihurtzea baldintza da hizkuntza eraldaketarako, baina hori nahikoa al da hizkuntza desorekak orekatzeko eta euskararen erabilpena orokortzeko?

Hizkuntza politikaren helburutzat 'hizkuntza liberalismoa' hartzeak, hots, hizkuntza askatasun hutsa hartzeak, zalantzak sortzen ditu bi hizkuntzen arteko aldeak horren nabarmenak diren kasuetan: bata, funtzionalki ez-normalizatua; bestea, funtzionalki osoa eta indartsua.

Gaiari heltzeko abiapuntu desberdin bat proposa daiteke, honakoan oinarri hartuz: «hizkuntza elkarteek ematen diote bizitasuna hizkuntzari». Abiapuntu horretatik, hizkuntza politikak osagai berriak barneratu beharko lituzke, hizkuntza aukeraketaz gain. Hots, hizkuntza politikak bi perspektibak hartu ahalko lituzke kontuan: perspektiba indibiduala, batetik, hizkuntza eskubideak aitortuz eta bermatuz; bestetik, perspektiba kolektiboa, hizkuntzaren dimentsio sozialean oinarri hartuko lukeena, eta euskal edo euskarazko gizarte elkartea indartzea helburutzat izango lukeena. Orain arte, lehen perspektiba izan da gure hizkuntza politikaren parametro nagusia.

Perspektiba indibiduala eta kolektiboa, biak, juridikoki osagarriak izan daitezke. Osagarritasuna bilatze aldera, egungo lege paradigmei osagai berri bat gehitu beharko litzaieke, hizkuntza askatasun hutsetik berezko hizkuntzadun eremu funtzionalak indartzera jauzi eginez. Alegia, euskararen garapen osoa hizkuntza funtzio eta eremuak bermatuz eta eremu horiei babes juridikoa eskainiz soilik etor daiteke, ingurumen zuzenbideak naturguneak babesten dituen antzera. Hots, *norbanakoak euskalduntzetik eremuak euskalduntzera jauzi* egin behar dela proposa daiteke. Beste modu batera adieraziz, euskaraz jardungo duten eremuak juridikoki bultzatu eta bermatzea proposa daiteke (udalerri euskaldunak, eskola, gazteen aisia...). Lege estaldurarik eman dakioke planteamendu horri? Egungo marko juridikoak hizkuntza politikaren 'lurralderatzeari' mugak ezartzen badizkio ere, segidan saiatuko gara azaltzen errotik ez duela baztertzen.

Hizkuntza politikaren 'lurralderatzearen' aldeko norabidea eta aktore berri bat: auzitegien jurisprudentzia

EAEn, Euskararen Legeak indarrean jarraitzen duen arren, hizkuntza politikaren norabide aldaketa bat antzeman daiteke. Horren adierazle izan da 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, tokiko erakundeei buruzkoa (Udal Legea). Hizkuntza politikaren norabidetze berri bati ekin diola esan daiteke, euskarazko funtzionamendu normala ardatz hartuz. Hori da, hain zuzen ere, Euskararen Legearekiko ezberdintasun nagusia. Euskararen Legeak elebitasun simetrikoaren printzipioa hartu zuen irizpidetzat, defektuz (edo besterik ezean) bi hizkuntzetan jarduteko irizpidea.

Udal Legeak, aldiz, elebitasun formalaren irizpidea malgutu eta euskarazko erabilpen normalari bide eman dio. Udal Legearen 6.1 artikuluan, euskara zerbitzu hizkuntzatzat eta orobat lan hizkuntzatzat hartzen da, erabilera normal eta orokorrekoa, hain zuzen ere. Paragrafoak, jarraian, norbanakoei bermatzen die hizkuntza ofizialetatik bat hautatzeko eskubidea administraziora zuzentzerakoan (aurpegi aktiboa), eta neurri berean toki administrazioei betebeharra ezartzen zaie hiritarrak aukeratzen duen hizkuntzan harrera hartzekoa (aurpegi pasiboa), horretarako neurriak hartu behar dituztela aginduz.

Udal Legeak, beraz, hizkuntza sistema berri bat diseinatu du udalerriei hizkuntza ofizial bakarra erabiltzeko aukera emanez, betiere komunikazio egintzetan herritarrek hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea bermatuz. Euskarazko funtzionamendua zilegi bihurtu da.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea garatzeko 179/2019 Dekretua onartu zen, EAEko toki erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzional eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa. Dekretuaren hirugarren kapituluak toki erakundeen hizkuntza ofizialen erabilera instituzional eta administratiboa arautzen du, eta, aldi berean, auzotarrek hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea

errespetatzen du, inolako diskriminaziorik gabe. 13. artikuluak xedatzen duenez:

> Euskadiko toki-entitateek eta Euskadiko tokiko sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateek, beren egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta, tokiko jardueretan euskara zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza gisa orokorrean eta normaltasunez erabiltzeko modua antolatu eta arautuko dute.

Berritasun gisa, nabarmentzekoa da hizkuntza eskakizunak egiaztatzearen eta lanpostuen berezko jardueretan erabiltzeko irizpideen arteko lotura. Horrela, 20.2 artikuluak xedatzen duenez, beren lanpostuari esleitutako hizkuntza eskakizuna egiaztatu duten toki erakundeetako langileei nahikoa gaitasun aitortzen zaie beren lanpostuari dagozkion eginkizunak bi hizkuntza ofizialetan betetzeko. Zehazkiago, 3. atalak honako hau ezartzen du: toki erakundeen eta horien erakunde autonomoen zerbitzura dauden langileek, beren plazari esleitutako hirugarren edo laugarren hizkuntza eskakizuna egiaztatu badute, euskaraz lan egingo dute, ahoz zein idatziz, erakunde bakoitzak onartutako erabilera planak horri buruz ezartzen duenaren arabera.

Auzitegi Konstituzionaleko eta jusitizia administrazioko gainerako epaitegi eta auzitegietako azken urteotako epaiek argi uzten dute epaitegiak hizkuntza politikaren eragile bihurtu direla

Auzitegiak hizkuntza eragile

Euskarazko erabilera normalaren aldeko lege norabidetze berri horrekin bat eginez, aktore edo eragile berri bat sortu da, hizkuntza planifikazioa eta araubidearen garapena baldintzatzera etorri dena. Auzitegi Konstituzionalean eta justizia administrazioko gainerako epaitegi eta auzitegietan azken urteotan modu sistematikoan ezagutarazten ari diren

epaiek argi uzten dute epaitegiak hizkuntza politikaren eragile bihurtu direla, joera murriztaile eta mugatzailea ezarriz. Erabakiek hizkuntza normalizazioan egindako aurrerapenak susmopean daudela sentitzera garamatzate. Hizkuntza oinarriak ez dira sendoak. Zorua erabat labainkor bihurtu da.

Konstituzio jurisprudentzia aztertzean, honako lau etapa hauek bereiz daitezke:

1) Hasieran, laurogeiko hamarkadan, Auzitegi Konstituzionalak 82/1986, 83/1986, 84/1986 eta 123/1988 epaietan autonomia erkidegoetako hizkuntza legeei buruz emandako erabakiek ofizialtasun bikoitzeko hizkuntza ereduaren ezaugarri orokorrak finkatu zituzten (ofizialtasunaren definizioa eta abar).

2) Laurogeiko hamarkadaren amaieran eta laurogeita hamarreko hamarkadan, jurisprudentzia arorik aurrerakoiena edo hizkuntza propioen normalizazioaren aldekoena gertatu zen (Auzitegi Konstituzionalaren 69/1988, 74/1989, 46/1991 eta 337/1994, 56/1990, 50/1999 epaiak, besteak beste). Epai horiek autonomia erkidegoei tarte esanguratsua aitortu zieten beren berezko hizkuntza ofiziala babesteko eta sustatzeko politikak egiteko.

3) Auzitegi Konstituzionalaren 31/2010 Epaiak aldaketa murriztaile bat ekarri zuen Kataluniako 2006ko estatutu berriaren aurkaratzearen ondorioz. Interpretazio adierazpen ugari erabiliz –askotan, prebentziozkoak–, Auzitegi Konstituzionalak muga berriak ezarri dizkie autonomia erkidegoen hizkuntza politikei (egokitasun eta proportzionaltasun azterketaren bidetik). Gazteleraren egoera pribilegiatua bermatze aldera, bi bide erabili dira: batetik, konstituzioaren 3.1 artikuluaren pareko ezagutza betebeharra errefusatu da; bestetik, hizkuntza propioen aldeko neurri positiboak mugatu dira, gaztelaniaren kaltetan izan litezkeen desorekak debekatuz (31/2010 AKE, 14. ZO).

4) Gaur-gaurkoz, doktrina konstituzional murriztaile horren proiekzioa sektore material askotara hedatzen ari da, lege autonomikoen aurkaratze orokorraren ondorioz

(Auzitegi Konstituzionalaren 78/2017, 86/2017, 87/2017, 88/2017, 89/2017, 7/2018, 11/2018, 51/2019 epaiak), baita autonomia erkidego batzuetako erakundeek onartutako lege atzerakoiena ere (165/2013 AKE eta 56/2016 AKE). Epai horien ondorioz, pixkanaka mugatuz joan da autonomia erkidegoetako botere publikoek beren hizkuntzak babesteari dagokionez jarduteko duten tartea. Horrenbestez, nahiz eta Auzitegi Konstituzionalak, kasu askotan, aurkaratutako lege autonomikoen konstituzionaltasuna konfirmatu, argi eta garbi murrizten du horien ahalmen normalizatzailea, interpretazio epaiak erabiliz.

Justizia administrazioak oso antzeko panorama agertzen digu. Une honetan esan daiteke epaitegi eta auzitegiak, hizkuntza normalizazioari dagokionez, lehen mailako eragile bihurtu zaizkigula. Modu sistematikoan normalizazioaren aurka agertzen ari dira, neurrion inkonstituzionaltasuna deklaratuz. Justizia administrazioa hizkuntza politika errotik baldintzatzen ari da, hizkuntza araubidearen zaurgarritasuna agerian utziz. Botere judiziala hizkuntza arloko inboluzioa eragiten ari da, egungo lege oinarriak kolokan jarriz eta euskararen lege markoa sendotzeko premia agerian utziz. Hainbat adibide aipa genitzake, baina gutxi batzuetara mugatuko gara.

Udal Legea Auzitegi Konstituzionalaren epaiaren zain dago, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak ofizioz aurkeztutako inkonstituzionaltasun galdera baten ondorioz. Auzitegi Nagusiak, 2021eko irailaren 7ko Autoaren bitartez, Udal Legearen 6.1 artikulua konstituzioarekin bateragarria ote den zalantzak agertu dizkio Auzitegi Konstituzionalari, honakoa azalduz:

> la igualdad de ambas lenguas quiebra por completo porque la libertad de opción habría desaparecido ante la falta de control de la voluntad administrativa que confirme la utilización del euskera y deniegue la del castellano.

Auzitegi Nagusiak, funtsean, zalantzan jartzen du udalek euskaraz jardun ahal izatea, honakoa gaineratuz:

> La redacción del artículo que hemos analizado sitúa al euskera en una posición de primacía que impide la libertad de opción de los hablantes por una u otra lengua ya que la somete a unos condicionamientos que, reduciéndola a un único supuesto –el desconocimiento del euskera–, la imposibilitan. La libertad de opción y el equilibrio entre ambas lenguas se ven coartadas por el precepto analizado en el desenvolvimiento de estas en la actividad de representación política de los ciudadanos y en el desempeño de sus puestos por los empleados públicos locales lo que implica, respecto a los primeros, la afectación no solo de sus derechos como ciudadanos y la lesión de los arts. 3 y 14 de la Constitución sino, de modo especial, la lesión de los arts. 1 y 23 en la medida en que la actividad representativa y el pluralismo político se ven seriamente afectados al ser la lengua el instrumento esencial de su ejercicio.

Erreparo juridikoak ager dakizkioke auzitegiaren baieztapenari. Udal Legearen 6.2 artikuluaren idazketak ez du hizkuntza askatasunik eragozten. Artikuluak agertzen duena da udalak euskaraz funtziona dezakeela muga jakin batekin: alegia, zinegotzi guztiek euskara ulertu behar dute. Ez da zuzena esatea artikuluak hiztunek hizkuntza bat edo bestea aukeratzeko duten askatasuna eragozten duela. Administratuek hizkuntzak erabiltzeko duten askatasuna ez da manu horretan arautzen, ezta zinegotzien hizkuntza aukeraketa ere. Korporazioko kideek hizkuntza ofizialak erabiltzeko duten askatasuna ez da ukatzen; areago, berariaz aitortzen da.

Inkonstituzionaltasun auziaren planteamenduari objekzioak planteatu ahal zaizkio, formari zein funtsari begira. Gai formalei dagokienez, lehenik eta behin, harrigarria da Vox alderdi politikoak auzi errekurtsoa jartzeko legitimazio aktiboa onartzeko eragozpenik ez izatea, alderdi politiko horrek ez baitu zinegotzi bakar bat ere EAEko udalerrietan. Eta hori garrantzitsua da, aztertzen ari garen xedapenak udal funtzionamenduaren *ad intra* ondorio esklusiboak dituelako. Bigarrenik, harrigarria da, halaber, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 6.2 artikulua garatzen duen 179/2019 Dekretuaren xedapena errekurtso nagusian aurkaratu ez denez, EAEn zalantza juridiko hori Auzitegi Konstituzionalari aurkeztu izana.

Hain zuzen ere, Auzitegi Konstituzionalari luzatu zaion galdera beste auzi errekurtso baten ondorioz planteatu da, 179/2019 Dekretuaren aurka Vox alderdi politikoak jarritakoa (zehazki, 179/2019 Dekretuaren 1.2.b), 5.1, 7.3, 9, 11, 12, 13, 17, 24, 27, 33.2, 35, 36 eta 38. artikuluen aurka). Auzitegi Konstituzionalak Udal Legearen 6.2 artikulua konstituzioaren araberakoa ote den edo ez argitu ondoren ebatziko du errekurtso hori Auzitegi Nagusiak.

Auzitegi Nagusiak hainbat epai eman izan ditu hizkuntza eskakizunei buruzko sistemaren aurka. Esate baterako, 2021eko maiatzaren 4ko Auzitegi Nagusiaren Epaia norabide bertsutik abiatzen da. Epai horrek Irungo Udaleko udaltzaingoaren hamabi plaza betetzeko funtzio publikoan sartzeko hautaketa prozedura baliogabetu zuen, plaza horietan guztietan, baldintza gisa, euskararen ezagutza egiaztatzea eskatzen baitzen. Hori ere epai atzerakoia da, inbolutiboa, indarrean dagoen araubidea saihestu eta indarrik gabe uzten duena. Epaian honako baieztapena jasotzen da:

> la legislación reguladora de esta materia trata de encontrar un equilibrio entre el derecho de los ciudadanos a relacionarse con la administración en euskera y el derecho de los castellanoparlantes a acceder a los cargos públicos. (4. ZO)

Auzitegia aurreiritzi batean oinarritzen da: erdaldunak kargu publikoak eskuratzeko eskubidearen jabe dira (*sic*). Baina halako eskubiderik ez da legerian aitortzen; areago, ideia hori ez dator bat indarrean dagoen hizkuntza planifikazioarekin. Legeriak ez du funtzio publikoan sartzeko eskubiderik aitortzen hizkuntza ofizialetako bat jakin gabe. Legeriak diseinatutako sistemaren arabera, lanpostuetatik batzuk eskuratzeko euskara jakitea nahitaezkoa da.

Euskal Autonomia Erkidegoan, hizkuntza eskakizunen sistema deritzona aplikatzen da. Sistema hori Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean arautu da, eta EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak

garatu du. Bi arau horiek ez dira aipatu ere egiten Auzitegi Nagusiaren epai horretan.

Sistema, jakina denez, funtzio publikoko lanpostu bakoitzari hizkuntza eskakizun jakin bat ezartzean oinarritzen da. Lanpostua betetzeko behar den euskarazko gaitasun mailak zehazten du hizkuntza eskakizuna. Lanpostu bakoitzaren hizkuntza eskakizuna lanpostuen zerrenden bidez finkatzen da: lau daude, euskara maila txikienetik handienera ordenatuta (1. HE, 2. HE, 3. HE eta 4. HE), eta hizkuntza erabileren arabera esleitzen zaizkie plazei. Plaza guztiek dute beren hizkuntza eskakizuna.

Auzitegi Nagusia aurreiritzi batean oinarritzen da: erdaldunak kargu publikoak eskuratzeko eskubidearen jabe dira (*sic*). Baina halako eskubiderik ez da legerian aitortzen

Kontuan hartu beharreko bigarren elementua derrigortasun data da. Derrigortasun datak ezartzen du noiztik aurrera izango den nahitaezkoa hizkuntza eskakizuna akreditatzea lanpostua hornitzeko. Hala, derrigorrezko hizkuntza eskakizunez (izangaiak dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharko du) eta derrigorrezkoak ez direnez (sartzeko eta lanpostua betetzeko ez da hizkuntza eskakizuna egiaztatu behar, merezimendu gisa baloratzen baita) hitz egiten da. Derrigorrezko hizkuntza eskakizuna izan behar duten lanpostuen kopurua zehazteko, indize bat aplikatzen da, administrazioaren lurralde eremuan bizi diren biztanleen euskararen ezagutzari buruzko datuetan oinarrituta kalkulatzen dena. Formula hau erabiltzen da:

Derrigor bete beharreko indizea =
euskaldunen % + (ia euskaldunen %/2)

Horrela, adibidez, Irungo biztanleen %40 elebiduna balitz eta %20 ia euskalduna edo elebidun pasiboa (euskara ondo hitz egin ez arren, ulertu egiten duten pertsonak), indizea

honako hau izango litzateke: 40 + 20/2 = 50. Ondorioz, Irungo Udaleko lanpostuen %50ek derrigorrezko hizkuntza eskakizuna izan beharko lukete. Hala, 50 langileko plantilla hipotetiko batetik, 25ek derrigorrezko eskakizuna izan behar lukete.

Irungo udaltzainen kasuan, deialdira atera ziren plaza guztiek derrigorrezko hizkuntza eskakizuna zuten. Horren arrazoia araudiaren aplikazioa besterik ez zen, indizearen ondorioa, hain zuzen ere.

Baina, horrez gain, epaiak okerreko ikuspegia darabil bere argumentazioan. Zera dio:

> hemos de plantearnos si, para garantizar ese derecho de los ciudadanos es estrictamente necesario que todos los policías municipales conozcan el euskera. Y es que, tal y como ha declarado el Tribunal Constitucional, la obligación de conocer esa lengua no afecta a todos y cada uno de los empleados públicos al servicio de la administración, sino a ésta en su conjunto. Por consiguiente, la exigencia de conocimiento del idioma a los aspirantes a cargo público tiene sentido en cuanto es necesaria para garantizar ese derecho. Más allá de ello, podemos considerar que constituye un requisito discriminatorio. (5. ZO)

Epaiak ez du kontuan hartu arauz ezarritako plangintza sistema. Hizkuntza plangintza egitea ez dagokio auzitegiari, udal administrazioari baizik, legearen arabera. Horregatik, harrigarria da EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak Laudioko udaltzainen epaian honako iritzi hau jaso izana:

> Hemos de tener en cuenta que no es necesario que todos los agentes de la policía municipal conozcan el euskera para garantizar a los ciudadanos su derecho a relacionarse con la administración utilizando esa lengua. Sería suficiente con que uno de los integrantes de cada pareja y alguno de los agentes que atiende al público conozcan el idioma. Sin embargo, la administración ha optado aquí por exigir, como requisito ineludible para poder aspirar a ser policía municipal, acreditar un determinado nivel de euskera. Requisito que, como hemos explicado, no está justificado para garantizar los derechos de los ciudadanos y que, de ese modo, se ha convertido en un elemento de discriminación hacia una parte importante de la población. (4. ZO)

Baieztapen hori juridikoki ulergaitza da. Botere judizialak ezin du ezarri administrazioaren zerbitzuen antolakuntza. Epaileek udal arauen zuzentasunaz jardutera mugatu behar dute, ez hizkuntza eredu baten edo bestearen alde egin, administrazioa ordezkatuz eta bere hizkuntza eskumenak mugatuz. Epaileei ez dagokie araututako hizkuntza sistema ordezkatzerik, ezta aldatzerik ere.

Alabaina, horiek ez dira kasu isolatuak. Udaltzaingoko lan poltsetan izena emateko euskara ezagutzea legez kontrakotzat jo da, honako argumentazioarekin:

> exigir un nivel B2 de euskera contradice frontalmente los principios básicos de acceso a la función pública al dejar fuera de la bolsa de trabajo a todo aquel que no pudiera acreditar dicho nivel. (EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2512/2022 Epaia, 2022ko uztailaren 5ekoa, 4. ZO)

Edo Laudioko Udalean lanpostu bat hornitzeari dagokionez, epaileak euskara munduko hizkuntza zailenen artean omen dagoela ere argudiatu zuen hizkuntza eskakizuna baztertzeko.[13] Luze jarrai genezake antzeko kasuak aipatuz.

Azken aldian izan diren epaiei begira jarrita, ondorio bat azpimarra daiteke: auzitegiak erabat baztertzen ari dira hizkuntza normalkuntzako prozesua arautzen duen araudia; araudia aplikatu ordez, beste irizpide subjektibo batzuk erabiltzen ari dira, ordenamendu juridikoa berrituz. Baina hori ez dagokie epaileei, legebiltzarrei baizik. Epaileei dagokiena da araubidea aplikatzea, gehiago edo gutxiago gustatu arren.

Tamalgarria da epai horietan erabiltzen den argumentazioa. Juridikoki ez da onargarria, adibidez, euskara munduko hizkuntzarik zailenetako bat dela adieraztea, justifikatzeko sei urtez euskara eskolak hartu ondoren ez dela lortu lanpostuak finkatuta duen euskara maila; edo, udaltzainak bikoteka patruilatzen duten heinean, nahikoa dela bietako batek euskaraz jakitea, justifikatzeko ez dela beharrezkoa oposizioan ateratzen diren plazek derrigorrezko hizkuntza eskakizuna izatea. Epai horiek hauxe ahazten dute: Euskararen Legeak 14.2 artikuluan ezartzen duela botere publikoek

zehaztu behar dutela zein lanpostutarako den nahitaezkoa bi hizkuntzak jakitea. Epaiek hizkuntza araudiari bizkarra ematen diote, ez dagokien legegile rola hartuz.

Azken hausnarketa

Egin dugun azterketak agerian uzten du euskal hizkuntza--ereduaren oinarri juridikoen interpretazioa aldatuz joan dela denborarekin. Hizkuntza arloko adostasunak eta hizkuntza araubide juridikoa ahulduz joan dira.

Hizkuntza politika definitzeko dagoen eremua gero eta estuagoa da. Aurreko urteetan, disponibilitate marjinak muga argia zuen, hizkuntza aukeratzeko eskubidearen bermearekin. Hots, eskubide hori bermatuz gero, hizkuntza politikak norabide bat edo beste har zezakeen. Gaur egun, ordea, hizkuntza ofizialen arteko oreka ari da inposatzen hizkuntza politika definitzeko orduan.

Oreka saihetsezinaren irizpideak ondorio juridiko sakonak ditu hizkuntza politikaren motor gisa. Hizkuntza propioaren erabilerari tratamendu espezifikoa ematetik beste marko batera egin dugu jauzi: hizkuntza ofizialen arteko berdintasun eraginkorra bilatze aldera soilik da onargarri hizkuntzen arteko tratamendu desberdina.

Euskararen normalizazio prozesuaren bilakaeran, agerikoa da fase berri bat irekitzeko beharra. Hizkuntza politika ainguratzeko oinarri juridiko sendoagoak lituzkeen sistema berri baterantz jotzea dugu erronka

Hizkuntza ofizialen arteko oreka irizpidearen neutraltasun falta da sakonagoa den beste gogoeta bat. Kontuan izan behar da hizkuntza ofizialen abiapuntua ez dela berdina. Hizkuntza propioen eta gaztelaniaren bizitasun etnolinguistikoak oso desberdinak dira. Beraz, berdintasunezko helburua lortzeko orduan, ez da egokia biak berdintasun

osoz tratatzea. Hizkuntzen arteko oreka helmuga izan liteke, baina ez abiapuntua. Hala ere, Auzitegi Konstituzionalak oreka egoera normal gisa barneratu du bere jurisprudentzian, eta desoreka normalizatzailea salbuespen egoera bezala.

Ikuspegi hori hertsagarriegia da. Hizkuntza normalizazioa, gure ustez, ezinbesteko oreka printzipioaren salbuespen gisa hartu beharko litzateke. Hizkuntzaren arlo honetan, bi plano bereizi behar dira: lehena, hizkuntzen estatus juridiko formalari buruzkoa, pertsonek erabiltzeko dituzten hizkuntza eskubideetan eragiten duena. Plano horretan, botere publikoarekiko harremanetan pertsonek bi hizkuntza ofizialekiko dituzten posizio juridikoak berdinak izan beharko lukete. Aukeratutako hizkuntza ofizialak eraginak sortu behar ditu harreman horietan.

Bigarren planoa hizkuntza politikaren eremuan kokatuko litzateke. Eta, hizkuntza politikaren arloan, autonomia erkidegoari dagokio hizkuntzen tratamendua zehaztea, hizkuntza propioaren aldeko neurriak zilegi bihurtuz, betiere lehen planoa bermaturik. Hizkuntza aukeratzeko eskubidea bermatu behar da, baina horrek ez du esan nahi hizkuntza tratamendua ezinbesteko orekan oinarritu behar denik. Hizkuntza propioa pribilegiatu daiteke, erabilera normaleko hizkuntza bihurtuz, norbanakoen hizkuntza aukeraketarekin bateragarri bihurtuz.

Hizkuntza politika berriak oinarri juridiko sendoagoak behar lituzke. Hori nahitaezkoa bihurtu da auzitegien jurisprudentzia atzerakorrari aurre egiteko.

Euskararen normalizazio prozesuaren bilakaeran, agerikoa da fase berri bat irekitzeko beharra, oinarri juridiko berri sendoagoetan oinarritua. Orain arte indarrean izan ditugunak higatuz joan dira estatuaren birzentralizazio ekimen legegileen eta auzitegien ekintza erregresiboaren ondorioz. Helburua oinarri sendoagoak ezartzea eta aurrerapenak blindatzea izango litzateke. Hizkuntza politika ainguratzeko oinarri sendoagoak lituzkeen sistema berri baterantz jotzea dugu erronka.

Bidegurutze batean gaude. Hizkuntza araubidearen zaurgarritasuna argiro agertu zaigu. Oinarri juridiko irmoagoen alde egin ezean, zaila izango da posiziorik ez galtzea eta normalizazio prozesuan atzera ez egitea. Horrek hausnarketa lasaia eskatzen du, baina ez dago denbora galtzerik.

Hasteko, egungo sistema blindatzeko beharrezkoak diren lege erreformak sartu beharko lirateke, lege bidez nagusiki. Hots, hizkuntza eskakizunen sistema blokea ez dadin, beharrezkoa dirudi urgentziazko lege estaldurak, Funtzio Publikoari buruzko Legean nahitaezko aldaketak eginez.

Nolanahi ere, etorkizunari perspektiba handiagoarekin begiratu behar zaio, gizarte eremu guztietan euskararen erabilera ardatz hartuta. Administrazio arloan, egungo hizkuntza eskakizunen sistema birpentsatu beharko litzateke, euskara erabilera normaleko hizkuntza bihurtzeko tresna egokia ote den aztertuz. Hots, helburua baldin bada euskara ohiko funtzionamendu hizkuntza bihurtzea, galdera da hizkuntza eskakizunen sistema tresna baliagarria ote den horretarako. Heldu zaigu, agian, hizkuntza ezagutza orokortzen duen sistemarantz iragateari buruz hausnartzeko unea. Hori itsasargi bezala hartuta, beharrezko diren lege erreformetan pentsatzen hasteko unea heldu zaigulakoan nago.

Bukatzeko, labur bada ere, etorkizuneko hizkuntza politikak barnera ditzakeen ardatz jakin batzuk aipatu besterik ez nuke nahi:

1. Gazteen esparruan, eskolaz kanpoko jardueren hizkuntza erabilpena arautzea.
2. Eremu sozioekonomikoan eragitea, bai kontratazio publikoko hizkuntza klausulak orokortuz, bai lan hitzarmenen bidez.
3. Unibertsitate hezkuntzan eta profesionalak formatzeko ikastegietan euskararen erabilpena orokortze aldera urratsak ematea.
4. Hiriguneentzat hizkuntza politika berezitua diseinatzea.
5. Administrazioaren zerbitzuan aritzeko hizkuntza eskakizunak orokortzea.

6. Arnasguneak babesteko neurri juridiko eraginkorragoak.
7. Komunikazio sisteman hizkuntza eredua aldatzea, hizkuntza kuotak orokortuz.
8. Nafarroako hizkuntza zonifikazioa gainditzea.
9. Iparraldean euskararen ezagutza eskola bidez orokortzearen alde egitea, Korsikarentzat ezarritako eskema gurera ekarriz.

Oharrak

1. Hizkuntza ofizialaren eta 'berezko hizkuntzaren' kontzeptuei buruz, ikus Milian (1988), Vernet (1992, 2003) eta Pons (2015).
2. Horrek erakusten du urte haietan lortutako adostasun politikoa oso irmoa izan zela, agian irmoegia. Kontuan hartu behar da hizkuntza araudia etengabe egokitu behar dela hizkuntzaren erabileraren normalizazioaren aurrerapenetara.

   Badirudi duela berrogei urteko hizkuntza sistemari buruzko itun politiko hura ukiezina dela. Euskararen estatus juridikoa eta normalizazioaren helburuak autogobernu sistemaren oinarrizko zutabetzat har daitezke. Halere, plangintza sistema (edo elebitasunaren eredua) ez litzateke zurruntasun berarekin planteatu behar. Izan ere, Euskararen Legearen ukiezintasunaren ideiak mugak ekar diezazkioke normalizazio bidean aurrerapausoak emateari, hizkuntza integrazioren alde urrats positiboak emateko orduan.
3. XIX. mendean izan diren trantsizio politikoetan euskarari eman zaion garrantziaz jabetzeko, ikus Urrutia eta Irujo (2014).
4. Euskararen gaineko jurisprudentziazko higaduraz aurrerago jardungo dugun arren, komeni da aurreratzea autogobernuak maila orokorrean jasan duen higaduraren testuinguruan kokatzen dela (ikus Askoren artean 2022).
5. Hizkuntza erregimen juridikoa osatzeko eskumena autonomia estatutuei dagokienez, esan ohi da konstituzioak hizkuntza eredu malgua eta zabala ezarri duela. Izatez, konstituzioak ez du adierazten zein hizkuntzek osatzen duten 3.2 artikuluan aipatzen dituen «gazteleraz besteko gainerako hizkuntza» horien multzoa, ezta ofizialtasunak zein eskubide edo ahalmen dakartzan ere (ikus Vernet 2003: 91).
6. Ikuspegi soziolinguistikotik abiatuta, lurraldetasun eta pertsonaltasun printzipioaren arteko bikoizketa Heinz Klossek formulatu zuen

xx. mendeko hirurogeiko hamarkadan. Bere formulazioaren arabera, lurraldetasun printzipioak ez du ezinbestean elebakartasuna ekarri behar. Klossen lurraldetasun printzipioari buruz zera adierazi zuen Kenneth D. McRaek (1975: 34): «hizkuntza erregimenak hizkuntza bakar bati esklusiboki eman diezazkioke eskubideak, edo eman diezazkioke eskubide mugatuak (edo are osoak ere) hizkuntza gutxitu bati, beste hizkuntza batekin edo batzuekin batera». Gaiaz sakontzeko, ikus Solé (2009: 145hh).

7. Ofizialtasunaren eragin hori doktrinalki erabateko adostasunez onartzen da. Ikus, besteak beste, Milian (1984: 130-132 eta 142-143), Cobreros (1989: 36), Agirreazkuenaga (1991) eta Vernet (2003: 91-92).
8. AKE 31/2010, ekainaren 28koa, 14. ZO. Halere, Auzitegi Konstituzionalak ez zuen Kataluniako Estatutuaren 6.2 artikulua inkonstituzionaltzat deklaratu. Hori egin gabe, artikuluaren hedapena zedarritu zuen, adieraziz hezkuntzaren eta funtzionarioen arloetan katalana ezagutzeko betebeharra izan daitekeela, baina inola ere ez katalana ezagutzeko betebehar orokorrik.
9. Ikus Eskaera Eskubidea arautzen duen 4/2001 Lege Organikoaren 5. artikulua, hizkuntza koofizialen erabilera aintzatetsiz; Herritarrek Zerbitzu Publikoetara Sarbide Elektronikoa izateari buruzko 11/2007 Legearen 6. xedapen gehigarria, administrazio elektronikoa baliatuz hizkuntza (ko)ofizialak erabiltzeko ahalmena aurreikusiz; Senatuko Erregelamenduaren 56 bis artikulua eta 4. xedapen gehigarria, Senatuko zenbait agerralditan hizkuntza koofizialen erabilera aurreikusiz.
10. 2005eko ekainaren 13ko Ministro Kontseiluak Europako Batasuneko hizkuntza erregimenaren aldaketa onartu zuen, irlanderari hizkuntza ofizialaren eta lan hizkuntzaren estatusa emateko. Aldaketa hori gauzatzeaz gain, estatus berri bat aitortu zitzaien estatu kideetako konstituzioetan aitortza duten hizkuntzei. Hain zuzen ere, Europar Kontseiluak eta estatu kideek sinatutako administrazio akordio batean finkatutako baldintzetan, erakundeekiko harremanak hizkuntza horietan gauzatzeari bide eman zitzaien, modu mugatuan eta zeharka bada ere.
11. Hizkuntza aniztasuna babestu eta sustatzeko eginkizuna autonomia estatutuaren ezaugarritzat jo zuen Auzitegi Konstituzionalaren 205/1990 Epaiak. Konstituzioaren 3. artikuluaren hedapen juridikoaz, ikus Arzoz (2009: 61) eta Pérez Fernández (2006: 59).
12. Ikus gutxiengo nazionalak babesteko esparru hitzarmena (Europako Kontseiluaren 157. zenbakiduna), Estrasburgon egina 1995eko otsailaren 1ean (*Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 1998-01-23).
13. Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 3. zenbakiko Epaitegiaren Epaia, 2021eko abenduaren 30ekoa, 3. ZO.

Bibliografia

Agirreazkuenaga, Iñaki (1991): 'Reflexiones jurídicas sobre la oficialidad y el deber de conocimiento de las lenguas', in Sebastián Martín-Retortillo (koord.): *Estudios sobre la Constitución Española. Homenaje al profesor Eduardo García de Enterría*, II. liburukia, Madril, Civitas, 678-696.

Arzoz Santisteban, Xabier (2009): 'Lenguas y modalidades lingüísticas en la Constitución Española: ¿Dos regímenes jurídicos diferenciados?', in Antoni Milian i Massana (koord.): *El plurilingüisme a la Constitució Española*, Bartzelona, Institut d'Estudis Autonòmics, 61-122.

Askoren artean (2022): *Higadura isila*, Oñati, HAEE.

Cobreros Mendazona, Edorta (1989): *El régimen jurídico de la oficialidad del euskara*, Oñati, HAEE.

Irujo, Xabier; Urrutia, Iñigo (2022): *Historia jurídica de la lengua vasca*, 2. arg., Oñati, HAEE.

McRae, Kenneth D. (1975): 'The principle of territoriality and the principle of personality in multilingual states', *International Journal of the Sociology of Language* 4, 33-54.

Milian i Massana, Antoni (1984): 'La regulación constitucional del multilingüismo', *Revista Española de Derecho Constitucional* 10, 123-156.

— (1988): 'Ordenament lingüístic', in Askoren artean: *Comentaris sobre l'Estatut d'autonomia de Catalunya*, 1. liburukia, Bartzelona, Institut d'Estudis Autonòmics, 169-190.

Pérez Fernández, José Manuel (koord.) (2006): *Estudios sobre el estatuto jurídico de las lenguas en España*, Bartzelona, Atelier.

Pons i Parera, Eva (2015): *L'oficialitat lingüística. Declaracions constitucionals i implicacions jurídiques i pràctiques*, Bartzelona, Departament de Cultura de la Generalitat de Catalunya.

— (2019): 'Balanç de la jurisprudència del Tribunal Constitucional 1979-2019', *Revista de Llengua i Dret - Journal of Language and Law* 72, 292-303.

Solé i Durany, Joan Ramon (2009): 'L'aplicació de la Constitució i de l'Estatut d'autonomia de Catalunya. Model lingüístic territorial o model personal en els diferents sectors?', in Antoni Milian i Massana (koord.): *El plurilingüisme a la Constitució Española*, Bartzelona, Institut d'Estudis Autonòmics, 145-208.

Torrealdai, Joan Mari (1998): *El Libro Negro del euskera*, Donostia, Ttarttalo.

Urrutia, Iñigo; Irujo, Xabier (2014): 'El estatus jurídico del euskera en las transiciones políticas a lo largo de los siglos XIX y XX', in Juan Madariaga Orbea eta Álvaro Adot (koordk.): *El euskera en las altas instituciones de gobierno a través de la historia*, Arre, Pamiela, 203-256.

Vernet i Llobet, Jaume (1992): *Normalització lingüistica i accés a la funció pública*, Bartzelona, Fundació Jaume Callís.
— (koord.) (2003): *Dret lingüístic*, Valls, Cossetània.
Zabaleta Apaolaza, Eneritz (2015): 'Principios constitucionales sobre las lenguas en Francia', *Revista de Llengua i Dret - Journal of Language and Law* 63, 92-112.

EAEko hizkuntza politika: egoera, korapiloak eta erronkak

Iker Salaberria Urkizu
Txillardegi Gogoeta Guneko kidea

Nekez egin liteke hizkuntza politikari buruzko azterketa egokia, politika hori bere testuinguruan egoki kokatu ezean. Egungo testuinguruan, gainera, ezinbestekoa zaigu begirada glokala. Alegia, mundu mailan gertatzen denari so egitea, horrek guregan duen eraginaz jabetzea, eta guretik, gauden lekutik, aldaketak egitea eta eragitea. Aitzitik, horretarako tarterik ez dugunez hemen, irakurlea Jakineko zenbaki honetan datorren Txillardegi Gogoeta Gunearen eraketa dokumentuan jasotzen diren, bizi dugun eta bizi gaituen garaiaren inguruko argibideak irakurtzera gonbidatuko genuke.

EAEko normalizazio prozesuaren diagnostikoa

Ez da artikulu honen helburua azterketa xeherik egitea. Horretarako, beste gonbidapen bat luzatuko dizuegu, kasu honetan hitzaldi batera: Asier Etxenikek *XXI. menderako hizkuntza politikaz* jardunaldian eskainitakoa, hain zuzen.[1]

Gure aldetik, ordea, diagnostiko horren baitan askotan mahaigaineratzen diren eta auzitan jarri nahi diren bi ideia marko aztertu nahiko genituzke. Izan ere, ideia marko horiek mundua ikusteko gure modua osatzen duten egitura mentalak dira (Lakoff 2007): kasu honetan, euskararen normalizazio prozesua begiratzeko betaurreko desegokiak

eskaintzen dizkiguten egitura mentalak, normalizazio prozesuaren irakurketa eta ikuspegia desbideratzen dizkiguten betaurrekoak.

Kontseiluak 2016ko Inkesta Soziolinguistikoen azterketan (Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua 2017) adierazi zuen inkestak berak elikatzen zituela ideia horiek, errealitatearen gaineko nolabaiteko ilusio optikoak sortuz. Izan ere, Maria Braun soziologo argentinarraren eskutik jaso genuen bezala: «Inkestek 'izaera performatiboa' dute: ez dute soilik ikertzen den objektua deskribatzen, berori sortzen eta eraldatzen ere eragiten dute» (Braun 2011: 19).

Atal honetan lehen bi ideia markoak azalduko diren arren, ondorengo ataletan, gaindituko beharreko beste bi azalduko dira.

1. ideia markoa: belaunaldi berriek euskaldunduko dute gizartea

Bistan da euskaltzaleek eta euskalgintzako erakundeek urtetan izandako esperantza izan dela belaunaldi berrien euskalduntzeak gizartea bera euskaldunduko zuela. Horri atxiki dakioke hezkuntzaren bidez belaunaldi berriak euskalduntzeko eginiko ahalegina. Ideia hori inkestek ere elikatu izan dute, besteak beste ondorengoen moduko grafikoak erakutsiz.

Euskaldunen bilakaera adinaren arabera (%) (EAE, 1991-2016)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa (2016).

Grafiko horretan argi irudikatzen da gizartea euskalduntzeko gai izan daitekeen belaunaldi berrien 'olatua'. Hori ikusita, bidearen parte handi bat egina dugula pentsa lezake baten batek. Aldiz, datu horiek ehunekotan emanak ditugula ohartuz gero, eta inkesta horretan ageri ez diren datu absolutuak agerian jarriz gero, ondorengoa da emaitza:

Euskaldunen bilakaera adinaren arabera (kopuru absolutuak)
(EAE, 2016)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa (2016) eta Eustat. Guk landua.

Bistan denez, 2.100.000ko unibertso batean 16-24 adin taldekoak 161.000 besterik ez zirela jakiteak ikuspegia dezente osatzeko eta aldatzeko aukera eman zigun. Are gehiago zera jakinda: adin horretatik beherako guztiak aintzat hartuta ere ez zirela 467.000ra iristen (biztanleria osoaren %22). Euskararen gaitasuna belaunaldi berrietan gorantz doan arren, nabarmena da, jaiotza tasaren murrizketak eraginda, belaunaldi berriek gizarte osoko kopuru absolutuetan eragin mugatua dutela. Gainera, Arrue ikerketako emaitzek nabarmendu duten bezala, ikasleek, adinean gora egin ahala, gizarteko hizkuntza erabileraren arau nagusiekiko konbergentziarako joera erakusten dute, euren sozializazioan aurrera egin ahala, gizartearen eraginak indar handiagoa baitu, baita hizkuntzak erabiltzeko gizarte arau inplizituek ere (Martinez de Luna eta Suberbiola 2020). Hortaz, aipatutako ideia markoak, funts edo

oinarri soziolinguistiko gutxi izateaz gain, euskararen normalizazioaren ardura belaunaldi berriengan gehiegi zamatzea suposatzen du. 'Helduon munduan' gauzak bere horretan, sakoneko aldaketarik egin gabe, mantentzen ditugun bitartean.

2. ideia markoa: ezagutza sendo, erabilera ahul

Ideia marko honi lekua egiteko, Iñaki Iurrebasoren eskutik jasotako argibide zorrotzak baliatuko ditugu. Berak aipatzen duen bidetik, gurea bezalako egoera soziolinguistikoetan, hizkuntza gaitasunari buruz hitz egiteko garaian, ezinbestekoa da hizkuntza gaitasun erlatiboaren (edo konparatuaren) datua baliatzea, hauxe ulertuta: hizkuntza gaitasuna erdaldun elebakar kategoriatik euskaldun elebakar kategoriara doan *continuum* bat da (Iurrebaso 2021). Hori aintzat hartuta, Iurrebasok azkeneko inkestan erabili ziren kategoriak auzitan jartzen ditu eta, *continuum* hori osatuko lukeen bestelako sailkapena osatuz, ondorengo grafikoak erakusten dizkigu:

Ahozko hizkuntza gaitasuna, hiztunak multzokatzeko bi moduren alderaketa (%) (16 urtetik gorako hiztunak, Euskal Herria, 2016)



Iturria: Iurrebaso (2021: 31).

Bistan denez, Iurrebasoren azterketak agerian jartzen du euskaldun multzoaren baitan erdal elebidunak jasotzeak (multzoko talde handiena izanik, gainera) –alegia, erdaraz errazago edo erosoago moldatzen direnak euskaraz baino– dezente desbidera ditzakeela ezagutzaren eta erabileraren inguruko irakurketak. Modu bertsuan, *erdaldun hartzaileak* ere *euskaldun hartzailetzat* hartzen baditugu. Azterlana, gainera, ez da horretara mugatzen: hizkuntza gaitasun erlatiboaren araberako kategoriak abiapuntutzat hartuta, kategoria bakoitzean ematen diren erabilera datuak ere aztertzen ditu. Bereziki argigarriak dira emaitzok:

Euskararen erabilera hiztunen hizkuntza gaitasunaren arabera. Euskara erabiltzeko aukerak dauden egoerak soilik aintzat hartuta, hots, mintzakideak ere euskaldunak direnean (erabilera orokorraren adierazle sintetikoa, erabilera tasak) (%) (Euskal Herria, 2016)



Iturria: Iurrebaso (2021: 35).

Ikusten denez, euskaraz erdaraz bezain ongi moldatzen diren hiztunek euskaraz hitz egiteko joera nabarmen garbia dute. Bietan berdin moldatzen direnek ere euskarazko joera garbia dute. Eta, erdaraz hobeto moldatu arren euskarazko gaitasuna dutenen artean ere, erabilera datuak adierazgarriak dira.

Txillardegik jada aipatzen zuen, berak garatutako eredu matematikoa oinarri hartuta, egungo euskararen ezagutza datuen arabera, euskararen erabilera estatistikoki espero zitekeenaren gainetik kokatzen zela. Bada, ordutik, ezagutza datuetan sendo eta erabilera datuetan ahul gabiltzala diotenei aurre eginez, Iurrebasok ere, beste behin, errealitatearen

irakurketa zorrotza hortik aldentzen dela erakusten digu, egun ditugun ezagutza mailekin, hizkuntza gaitasun erlatiboekin, jasotzen ditugun erabilera datuak baikortzat jo beharko genituzkeela mahaigaineratuz. Eta, beraz, ezagutza edo gaitasun datuak hobetu ezean, ezin espero dezakegu erabilera datuak askorik hobetzea.

Hizkuntza politikaren azterketarako markoa

Hizkuntza politiken azterketa egiteko, garrantzitsua da horretarako marko teorikoa finkatzea. Alegia, azterketaren objektu zehatza eta horren inguruko balorazioa egiteko modua argi izatea. Kasu honetan, Euskalgintzaren Kontseiluak normalizazio prozesua irudikatzeko erabili ohi duen markotik abiatuko gara. Hona:

Euskararen normalizaziorako zutabeak



Ikusten denez, euskararen normalizaziorako lau zutabe nagusi definitzen dira. Horietan azkena, herri gogo indartsua, kenduz gero, gainerako hirurak hizkuntza politikaren esparruari lotutako zutabeak lirateke. Beraz, hiru zutabe horien (araudia, plangintza eta baliabideak) nondik norakoak markatuko ditu hizkuntza politikaren egokitasunak edo gabeziak. Horrekin lotuta, beharrezkoa da bi premisa edo oinarri aintzat hartzea hizkuntza politikei buruz jarduteko garaian.

Batetik, hizkuntza politika, hizkuntza normalizazioaren aldetik neurriak hartzen direnean ez ezik, neurririk hartzen ez denean ere egin egiten dela. Izan ere, hizkuntza gutxitua ez sustatzea egungo *statu quo*-a mantentzearen alde egitea da, eta, beraz, hizkuntza politikako hautu zehatz bat. Horregatik, esan daiteke hizkuntza politika beti egiten dela, neurriak hartzen direnean, baita hartzen ez direnean ere.

Bestalde, hizkuntza presente dagoenez giza jarduera ia guztietan, politika publiko guztietan zehar-lerro gisa presente dagoen aldagaia da. Beste era batera esanda, politika publiko guztietan egiten da hizkuntza politika. Eta aurrez aipatutako premisari segituz, industria plan bat edo lurralde garapenerako proposamenak edo etxebizitza politikak hizkuntza aintzat hartu gabe egiten direnean, egungo hizkuntza joerak eta inertziak mantentzearen aldeko hizkuntza politikak ariko lirateke egiten.

Hizkuntza presente dagoenez giza jarduera ia guztietan, politika publiko guztietan zehar-lerro gisa presente dagoen aldagaia da. Beste era batera esanda, politika publiko guztietan egiten da hizkuntza politika

Eta gobernantza

Esan behar dugu beharrezkotzat jo dugula Kontseiluaren eskema hori osatzea eta oinarrian aldagai berri bat kokatzea: gobernantza. Azken boladan asko xamar entzuten den kontzeptua dugu gobernantza, eta horren inguruko definizio uniboko eta bateraturik nekez topatuko dugun arren, guk Joan Subiratsen eskutik jasotakoa baliatuko dugu:

> Gobernantza merkatuko eta gizarte zibileko aktoreak gobernatzeko ekintzara ekartzean oinarritzen den erregulazio, koordinazio eta kontrolerako modu espezifikoa da. (Subirats 2019: 519)

Definizioak berak argi uzten duen moduan, hizkuntza politika garatzeko garaian esku hartzen duen aktore (alderdi, politikari, teknikari, sindikatu, mugimendu sozial...) bakoitzaren (indar) posizioak definituko du, hein handi batean, gobernantzaren nondik norakoa. Baina, kontrara ere, gobernantza horren baitan aktore desberdinei ematen zaien lekuak, eragiteko gaitasunak eta zilegitasunak ere definituko du horien (indar) posizioa. Beraz, gobernantza bera ere, bistan denez, aktore batzuk indartzeko eta beste batzuk ahultzeko erabil litekeen politika publikoetako bitartekoa dugu.

Egungo testuinguruan, politika publikoetan geroz eta nabarmenagoa da merkatuko aktoreen eragina eta indarra (J. Goikoetxea 2017). Gainera, ziurgabetasun eta ezegonkortasun geroz eta handiagoko gizarte baterantz goaz.

Beraz, ezinbestekoa deritzogu instituzio publikoen eta gizarte eragileen, kasu honetan, euskalgintzaren, indarrak batzeari eta osagarritasunez jardutea ahalbidetuko duen gobernantza eredu berri bat garatzeari. Modu bertsuan, bi aktore horien eta adituen jakituria artikulatzeko moduak bilatu beharko lirateke, merkatuko indar homogeneizatzaileei, datozkigun erronka berriei eta etorkizun konplexu horri erantzun eraginkorrak eman ahal izateko.

EAEko hizkuntza politikaren bilakaera

Hizkuntza politikaren bilakaeraren azterketa xehea egiteko asmorik gabe, aurrez aipatutako azterketa markotik abiatuta, EAEko euskararen normalizazioaren aldeko politikaren mugarritzat jo genezakeen Euskararen Legea onartu zenetik gaur egunera arte EAEko administrazio nagusiak diren Eusko Jaurlaritzan eta Eusko Legebiltzarrean hartu diren neurri nagusien bilduma egiten ahalegindu gara (guztiak ezin izan direla jaso jakinda, azterketa partziala izan arren). Beraz, oro har, ez dira aztergai izan foru aldundietatik edota udaletatik hartu izan diren neurriak.

Ondotik, bilduma horren arabera, politika horien joera edota ezaugarri nagusiak ikusita, epealdi desberdinak identifikatzen saiatu gara, horrela, epealdi horietako bakoitza zerk eta nola ezaugarritu duen definituz. Beraz, sintesi lan guztien modura, halako ariketa batek zehaztasunak eta ñabardurak galtzeko arriskua dakarren arren, ikuspegi orokor bat eskuratzeko baliagarria delakoan, hona emaitza:

EAEko hizkuntza politikako epealdiak (1980-2015)

1980-1990: eraketa urteak

Hizkuntza politikarako oinarrizko marko juridikoa eta tresneria (euskarazko irakaskuntza, ETB...) eratzeko urteak izan ziren. Euskalgintzarekiko harremanari dagokionez, harreman urriak eta gatazkatsuak zirela esan liteke.

Neurri nagusiak

- *Corpus juridikorako oinarriak*: 10/1982 Euskararen Legea.
- *Administrazioa*: Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legea.
- *Hezkuntza*: 138/1983 Dekretua (ereduen sistema), Euskal Herriko irakaskuntza ez-unibertsitarioan hizkuntza ofizialen erabilera arautuz.
- HABEren sorrera (1983).
- *Hedabideak*: ETBren sorrerarako 5/1982 Legea, 240/1986 Dekretuak irrati lizentzien irizpideak.
- *Gobernantza*: euskalgintzarekin harreman urria eta gatazkatsua (AEK).

1990-2000: barrura begira, administrazioa euskalduntzeko oinarriak

Batez ere administrazioaren euskalduntzeari begirako oinarriak jartzeko urteak izan ziren. Administrazioak euskalgintzarekin gatazka gordinenak gainditzeko urratsak eman zituen (AEK, *Egunkaria*); eta, euskalgintzaren aldetik, berriz, Topagunearen eta Kontseiluaren sorreraren bidetik, administrazio publikoarekin garai gatazkatsuak atzean utzi eta lankidetzan jarduteko bokazioa ikusten da.

Neurri nagusiak

- *Administrazioa*: Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko 86/1997 Dekretua. Euskal Antolamendu Sanitarioaren 8/1997 Legea eta Osakidetzan euskararen erabilera normali-

zatzeko 67/2003 Dekretua. Euskal Herriko Poliziari buruzko 4/1992 Legea eta Ertzaintzan euskararen normalkuntza prozesua arautzen duen 30/1998 Dekretua.

- *Hezkuntza*: 1/1993 Euskal Eskola Publikoari buruzko Legea. AEKrekin hitzarmena (1995).
- *Sozioekonomia*: Elhuyarrek euskara planak (1991). Pilotuak.
- *Hedabideak*: *Egunkaria*-ren sorrera (1990), lehen diru laguntza (1994).
- *Gobernantza*: Topagunea (1996) eta Kontseilua (1997). Gatazkatik lankidetza bila.

2000-2015: eremu berrietara zabaltzen... bikoizketekin

Administrazioaren aldetik eremu berrietara (EBPN, LanHitz...) zabaltzeko joera ikusten da, baina eremu horietan aurrez euskalgintzak egindako bidearen lorratzak jarraituz, bikoizketen bidez lantzen ditu. Beraz, euskalgintzarekiko harremanean ere hori nabarmentzen da, baita euskalgintzari hizkuntza politikako kontuetan jarduteko zilegitasuna ukatzea ere.

Neurri nagusiak

- Kontseiluaren Bai Euskarari plan estrategikoen ondotik, EBPN (1999).
- Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren ondotik, Elebide (2008).
- *Sozioekonomia*: Bai Euskarari ziurtagiriaren ondotik, Bikain ziurtagiria (2009). LanHitz deialdiak (2005). 6/2003 Legea, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua eta Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko 123/2008 Dekretua.
- *Hedabideak*: *Egunkaria*-ren itxiera eta *Berria*-ren sorrera (2003). Lurreko uhinen bidezko telebista zerbitzua arautzen duen 190/2006 Dekretua.
- *Gobernantza*: bikoizketak eta hizkuntza politikarako euskalgintzaren zilegitasuna ukatzea (parte hartze terapeutikoa).

Iturria: *Soziolinguistika eskuliburua* (Askoren artean 2010). Guk landua.

Azkenik, 2015etik gaur egunera bitarteko epealdia xeheago aztertzeko, aurrez aurkeztutako hizkuntza politikak aztertzeko hiru zutabeak eta sektore edo arlo desberdinak gurutzatu ditugu, azken urteotan bakoitzean hartutako neurri zehatzak argiago ikusteko:

EAEko hizkuntza politikako neurriak arloka (2015-2020)

	Plangintza	*Baliabideak*	*Arauak*
Hezkuntza		2020(-2021): Helduen euskalduntzean dabiltzan ikasleen gastuak estaltzeko aurrekontu igoera	
Administrazioa	2021: EAEko *Administrazio Orokorraren eta hari atxikitako Sektore Publikoaren Hizkuntza Irizpideak* dokumentua onartu		2/2016 Legea, *Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa*, eta 179/2019 Dekretua, *Euskadiko toki erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa*
Sozioekonomia	2019: *Euskara Eremu Sozio-ekonomikoan Sustatzeko Plana 2020-2023*		
Hedabideak		2019: Hekimenen eta instituzioen arteko lankidetza hitzarmena	
Ingurune digitala		2021: *Euskararen Ingurune Digitala: gomendioak 2021-2024*	
Aisialdia	2021: *Kirolean Euskara Sustatzeko 2021-2024 Plana*		
Kultura			

Besterik	2017: *Euskararen Agenda Estrategikoa*	2017: Eusko Jaurlaritzak eta Topaguneak *Euskaraldia* egitasmoa abiatzea	2019: *Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG)*
Gobernantza			
2017: Hizkuntza politiken inguruko lankidetza hitzarmena: Hiruko Ituna (EJ, NG, EEP) UEMA HAKOBAko (2013) eta EABko kide (2014) Kontseiluko ordezkaria EABko kide (2017)			

2015-2025: euskalgintzaren aintzatespenerantz edota xurgatze instituzionalerantz?

Epealdi honetan, aldaketaren bat nabarmendu beharko bagenu, hain zuzen ere, gobernantzari lotutako aldaketa nabarmenduko genuke. Bistan denez, Eusko Jaurlaritzaren eta euskalgintzaren harremanak aldatu dira. Harreman bide berriak zabaldu dira eta lehendik zeudenak aldatu, hein handi batean. Besteak beste, horrek bultzatuta hartu dira taulan ikus daitezkeen hainbat neurri (Euskara Eremu Sozioekonomikoan Sustatzeko Plana, Hekimenekin hitzarmena, Euskaraldia...). Bide hori hasi besterik ez denez egin, ikusteko dago lehen aipatutako parte-hartze eskaileran noraino igotzeko intentzioa dagoen edota horrek berak euskalgintzaren xurgatze instituzionala ekar dezakeen.

Horrekin batera, epealdi horretan, aipatzekoa litzateke hizkuntza politikaren zeharkakotasuna aintzat hartu eta neurri zehatzetara eramateko lehen urratsak egin direla (Udal Legea garatzeko dekretuan eta Lurralde Antolamendurako Gidalerroetan, batez ere).

Azkenik, EAEko hizkuntza politiken bilakaeraren azken adierazle gisa, erakunde publikoetatik euskararen sustapenera bideratutako aurrekontuaren ehunekoak biltzen dituen grafikoa duzue jarraian. Ikus daitekeen bezala, euskalgintzak urtetan aldarrikatu izan duen aurrekontuen %2tik urruti xamar daude instituzio guztiak, udal handi batzuk salbu.

Bilakaera gehienak, aldiz, nahiko egonkorrak dira, bi instituzio hauetan izan ezik: bilakaera gorakorra duen Gasteizko Udala, eta bilakaera beherakorra duen Eusko Jaurlaritza.

Euskara sustatzeko aurrekontu publikoak,
erakunde motaren arabera (EAE, 2002-2020)



Iturria: Eustat.

Estatu egituren eraso politiko/judizialak

Hizkuntza politiken bilakaeraren errepasoa amaitu eta ondorioetan sartu aurretik, ezin dugu begiz galdu estatu egiturek hizkuntza politiketan izan duten esku hartzea. Azken epealdi horri soilik begiratuta, ondorengo neurriak topa ditzakegu:

- 2017: estatuko ordezkariaren ekimenez *EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako euskara planaren gainean* emandako epaia, toki euskaldunetan komunikazioak euskaraz bakarrik egitea, kontratazio administratiboetan hizkuntza irizpideak ezartzea eta diru laguntzetan hizkuntza irizpideak ezartzea eragozten duena.
- 2020: estatuko ordezkariaren ekimenez *Auzitegi Gorenak argitaratutako epaia, 2017an Lasarte-Oriako Udalak onartu zuen ordenantzaren kontra*, zeinaren arabera euskara diru laguntzetarako irizpide izatea ezetsi zuen.
- 2021: *EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak Irungo Udaltzaingo zerbitzurako* hamabi lanposturi ezarritako hizkuntza eskakizunak bertan behera uzteko argitaratutako epaia.
- 2021: *EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak 2016an Eusko Legebiltzarrean onartu zen Euskadiko Toki Erakundeei Buruzko Legearen 6.2 artikulua auzitan jarri zuen*, zinegotzi bakar bat ere ez duen Vox alderdiak jarritako helegite baten ondorioz.
- 2022: UGTk Araba, Bizkai eta Gipuzkoan udaltzain izateko lan poltsari jarri zion helegitea. *Gasteizko Administrazio Auzitegiak ebatzi zuen ez dela beharrezkoa euskarazko B2 maila egiaztatzea lan poltsa horretarako sarbidea izateko*.
- 2023: CCOO sindikatuak Barakaldoko Udalaren kultur zerbitzuez arduratzeko lehiaketaren aurka helegitea aurkeztu zuen. *EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak azpikontratatutako zerbitzuetan gutxieneko euskara maila eskatzearen aurka ebatzi zuen*.
- 2023: *EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak ebatzi du legez kanpokoa dela euskararen ezagutza aintzat hartzea* Gipuzkoako Foru Aldundiaren menpeko Uliazpi fundazioan 34 lanpostu betetzeko oposizioan. Epaiak, gainera, *kolokan jarri ditu administrazio publikoetako hizkuntza planifikazioaren oinarri juridikoak*.
- 2023: *EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak ebatzi du* Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eskola garraioarekin

> lotutako kontratazio baterako jarritako hizkuntza klausulak «inposizioa» direla, eta esan du arlo publikoan ari diren *enpresetako langileei ezin zaiela euskara eskatu administrazioarekin erlazionatzeko*. Epaiak *lehen aldiz esku hartu du administrazioaren eta enpresen harreman hizkuntza arautzeko* administrazioak ezarritako *kontratazio baldintzetan*.

Bistan da estatu egiturek euskararen normalizazioa noraino hel daitekeen eta noraino ez modurik gordinenean gogorarazteko joera dutela. Ez hori bakarrik, hizkuntza politikari buruzko azken hitza ere eurena dela mahaigaineratu nahi izan dute behin eta berriro. Azken urteotan, gainera, estatuko berezko hizkuntza gutxituen aurkako posizioak gogortzen eta gotortzen ikusi ditugu. Joera horrek etorkizunean ere EAEko hizkuntza politikan eragingo duela aurreikus liteke. Beraz, horien aurrean nola jokatu ere gakoa izango da hizkuntza politikaren nondik norakoa ebazteko garaian.

EAEko hizkuntza politikaz: zenbait ondorio orokor

Atal honen goiburuan aipatu bezala, orain arte esandako guztia oinarri hartuta, EAEko hizkuntza politikaren inguruko ondorio orokor batzuk jaso nahi izan ditugu. Hizkuntza politika horrek alderdi baikorrik izan duen arren (batez ere euskararen ofizialtasunetik eratorriak eta hezkuntza sistemari lotutakoak azpimarratuko genituzke), hizkuntza politikaren gabeziatan edo hobetu beharrekoetan jarri dugu arreta, etorkizuneko bidea errazago irudikatzen lagundu dezaketelakoan.

Ondorio hauek ateratzeko bidea ez dugu bakarrik egin. Alegia, han eta hemen beste zenbaitek esandako ideiak baliatu ditugu ondorioei izenburua jartzeko. Eurei hartutako ideien garapenari, ordea, gure ikuspegia erantsi diogu.

Razionaltasun neoliberala (Apodaka eta Morales 2021)

Razionaltasun neoliberalak zentzuzkoa, arrazoizkoa eta bidezkoa denaren araua zehazten du. Dispositiboetan eta

diskurtsoetan horien bidez jarduten du, errealitatearen, arazoen definizioaren eta konponbideen arrazoi (arrazoizkoa) eta zentzu (legitimoa) gisa.

Horren baitan, gure aldetik, razionaltasun horrek eragiten dituen bi gabezia edo ondorio azpimarratuko genituzke. Batetik, hizkuntza politikaren despolitizazioa eta teknokratizazioa bultzatzen du. Alegia, hizkuntza politikari izaera politikoa erauzi eta politika horien nondik norakoak adituen esku uzteko joera ikus daiteke. Zientziaren, adituen eta ikerlarien balizko ekarpena gutxietsi gabe, halako bide baten mugak mahaigaineratu nahiko genituzke. Zientzia bera baita, zientzia politikoa, hain zuzen, aspaldian bide horren mugak agerian jarri dituena. Ikuspegi hori kamutsa da guztiz, giza zientziek akatsak izateko aukerengatik, agerikoagoak diren muga prediktibo eta preskriptiboengatik, aktoreen arteko interes gatazkarengatik, horrek izan dezakeen kostuarengatik... (Lindblom 1991) eta funtsean arazoaren eta aterabide posibleen formulazioa bera 'joko politikoa' delako bete-betean.

Horrekin batera, ikuspegi horri atxikiko genioke, bizi gaituen garaiaren azterketan aipatutakoaren bidetik, herritarron 'hautu askearen' ideia. Azken finean, herritarrok libreki eta gure kasa (kanpo baldintzapenik gabe) erabili nahi dugun hizkuntza hautatzeko aukera dugulako ikuspegia elikatzen da. Eta hari horri segika, nola ez, norbanakoongan jartzen da hizkuntza normalizazioaren nondik norakoaren zama eta ardura nagusia.

Beligerantzia burokratizatu (Jessop 2017)

Hizkuntza politikaren bilakaera aztertu dugunean aipatu den bezala, administrazioaren aldetik euskalgintzarekiko harremanak aldatzeko hautua egin da azken urteotan. Azaldu dugun bezala, ikusteko dago euskalgintzaren aintzatespenean sakontzeko eta gobernantza eredua aldatzeko bidea egingo den edo euskalgintzaren xurgatze instituzionalerantz joko den.

Edozein kasutan, gaur-gaurkoz egindako aldaketekin, euskalgintzaren aldetik egon izan den beligerantzia burokratizatzeko

hautua egin dela esango genuke. Hau da, euskalgintzarekiko harremanak hurbilduz, adostasun bideak zabalduz, lankidetza zehatzak garatuz, euskalgintzari zenbait forotan parte hartzeko aukera emanez..., euskalgintzak izan duen ikuspegi kritikoa eta sortu izan dituen gatazkak arintzea, apaltzea eta kasu batzuetan gainditzea bilatu dela baiezta genezake.

Horrenbestez, ikuspegi kritikoa izan zezaketen eragileen energia eta ezagutza jardun instituzionaletara bideratzea eta, hartutako ardura eta erantzukizunen ondorioz, erresistentzia foku potentzialak izan zitezkeenak administrazioaren mendeko agente automugatuak bihurtzeko bultzada egon daiteke mugimendu horien atzean.

Razionaltasun neoliberalak hizkuntza politikaren despolitizazioa eta teknokratizazioa bultzatzen du. Hizkuntza politikari izaera politikoa erauzi eta politika horien nondik norakoak adituen esku uzteko joera ikus daiteke

Iraupen faseko hizkuntza politika

Euskara irabazteko bidean liburuan, Joxerra Gartziak aipatzen zuen gurean iraupen fasea egon zela. Aldiz, irauteko baldintzak hobetu diren honetan, estrategiak ezin zuela irautea izan, eta hortik gorako zerbait izan behar zuela (G. Goikoetxea 2016: 175-176).

Bada, gure aldetik ere argi ikusten dugu belaunaldi berrien euskalduntzean ardaztutako eta hezkuntzan oinarritutako hizkuntza politika garatzen dela.

Hezkuntzaren bidez belaunaldi berriak euskaldunduta gizarte osoa euskaldunduko genuelako garai bateko ametsak kale egin du. Esperientzia gordin horrek eta soziolinguistikaren ezagutzak uste horren gabeziak agerian utzi ditu. Baina, gaur da eguna, oraindik orain eta berriro ere, belaunaldi berrien bizkar esperantza eta zama hori guztia jartzen duguna.

Bada, gainditu beharreko lehenengo ideia markoan adierazi dugun bezala, ezin eska dakioke demografikoki hain pisu gutxi duen eta gizarte ohituretan eragiteko hain ahalmen mugatua duen belaunaldiari euskararen normalizazioak suposatzen duen gizarte eraldaketaren pisua eta erantzukizuna ezartzea. Justua ez izateaz gain, ezinezkoa baita. Modu horretan, helduen munduak ezartzen dizkieten muga, joera eta gizarte arauak eraldatzeko hizkuntza politikak garatu gabe, iraupen faseko politikekin jarraitzen dugu gaur-gaurkoz.

ETB1/ETB2 politika edo euskara bai, baina...

Azkeneko Udaltop jardunaldietan (Lasarte-Oria, 2022), hiztun hobeak sortzeko eskolaz kanpo egin beharrekoen inguruan, Pablo Suberbiolak zioen gazteak ohartzen direla eta oso kontziente direla gurea euskararekiko 'bai, baina ez' gizartea dela. Edo, beste modu batera esanda, ETB1/ETB2 gizarte bat. Alegia, euskararen aldekoa den gizarte bat, baina neurri batera arte. Edo, Euskal Telebistaren gisan, euskara sustatzeko sortutako baliabidea izanik, erdarazko kateari lehentasuna eman eta baliabide gehiago bideratzen dizkion gizartea.

Bada, hizkuntza politikei dagokienez ere, hori berori esan genezake. Esan dugun bezala, hizkuntza politika, zeharkakoa izanik, beti egiten baita. Eta euskararen normalizazioaren alde bideratzen diren laguntzen aldean, dezente handiagoak baitira egungo errealitatea eraldatzeko inolako irizpiderik ezarri gabe bideratzen diren laguntza eta kontratu publikoak, besteak beste.

Politika horiek guztiek, egungo joera hegemonikoak bultzatu eta babesteaz gain, euskararen lehentasun mailaren eta garrantziaren gizarte pertzepzio ezkorra elikatzen dute.

Boluntarismoan oinarritutakoa (inposizioaren markoak janda)

Hizkuntza politiken bilakaeran argi ikus daitekeen bezala, aurrez aipatutako hizkuntza politikako zutabeen artean

(baliabideak, plangintza, arauak) bada zutabe bat nabarmen hankamotz, garapen oso apala izan duena: *corpus juridikoa* edo araugintza, hain zuzen ere. Eta hori gainditu beharreko hirugarren ideia markoaren ondorio zuzena dela esango genuke: inposizioaren ideia markoa.

Urteak daramatzagu diskurtso erdaltzaleak janda, euskaldunon hizkuntza eskubideen arau bidezko babes neurri eraginkorrik eraiki gabe. Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren urteko txostenek urtero-urtero milaka urraketen berri ematen jarraitzen dute (Hizkuntza Eskubideen Behatokia 2021). Arlo edo eremu guztietan gertatzen dira urraketok: finantza entitateetan, interes orokorreko zerbitzuetan, merkataritzan, eta maila guztietako sektore publikoko erakundeetan (osasun zerbitzuan, Eusko Jaurlaritzan, aldundietan, udaletan...).

Bitartean, lege urraketek inolako zehapen edo kalterik ekartzen ez duten arau bakanak euskararen eremuan garatzen dira, Kontsumitzaile Dekretua, kasu.[2]

Politika publikoetan, beste edozein arlorekin alderatuta, araudiaren tresneria baliatzeko konplexu gehien dituen arloa da euskararena. Bistan denez, hemen gaztelera ez eta euskara inposatzen den diskurtsoak ederki janda dago bertako hizkuntza politika. Euskararen alde egin nahian, baina, badaezpada, erdaltzaleak gehiegi molestatu gabe, eta araugintza baztertuta. Euskararen alde egiteko prest dagoenari esku bat botatzeko prest (laguntzen bidez), baina urratsik egiteko inolako intentziorik ez dutenei betekizunak jartzeko uzkur.

Horrek guztiak, besteak beste, egunerokoan ikusten ditugun eta oso presente ditugun bi hiztun tipo edo hiztun portaera ohiko sortu ditu. Herrialde katalanetan izendatutako hiztun tipoak izan arren, gurean ere erreproduzitzen dira. Eta norbanako guztiak talde horietan bete-betean eta maila berean sartzen ez diren arren, gure inguruan oso ohikoak diren azturak erreproduzitzen dituzte. Hona:

- *Ikasitako omnipotentzia* (Joan 1998): Bernat Joan soziolinguistikariak ikasitako omnipotentzia deitzen dio edozein egoeratan bere hizkuntzan (menderatzailean)

adieraz daitezkeela kontsideratzeari. Are gehiago, edozein solaskide (gutxienez, moralki) behartuta dagoela haren aurrean bere hizkuntzan hitz egitera. Jarrera horrek bide ematen du onartzeko: batetik, hiztun omnipotente bat sartzen den edozein taldek haren hizkuntzan hitz egin beharko lukeela; bestetik, ez dagoela hizkuntza gutxitua ikasteko edo ulertzeko inolako beharrik. Kasu batzuetan, jarrera supremazista hori mendeko hizkuntzarekiko edozein esposizio (hizkuntza paisaia, dokumentuak edo elkarreragin pertsonalak) haiekiko errespetu falta edo iraina dela uste izateraino hedatzen da.

Euskalgintzaren Kontseilutik Eusko Jaurlaritzarekin harremanak sendotzeko aukera ikusi zenean, gobernantza eredua aldatzeko proposamena aurkeztu zitzaien

Bistan denez, ikasitako omnipotentziaren baitan gradazio desberdinak egon litezke, eta hizkuntza hegemonikoko hiztun guztiek ez dute muturreko jarrera hartzen. Jarrera erabat supremazistak dituztenen beste aldean kokatuko lirateke elebitasun formal itxuraz berdinzalearen alde egiten dutenak; baina euskararen berezko hizkuntzaren izaera eta gutxitze prozesua aintzat hartu gabe, *de facto,* gutxitutako egoera hori mantentzea bultzatzen dutenak, gaztelera hizkuntza komun eta unibertsal gisa eta euskara tokiko hizkuntza partikular gisa kontsideratuz.

- *Ikasitako babesgabetasuna* (Suay eta Sanginés 2005): Ferran Suay eta Gemma Sanginés psikologo eta TELP tailerren sortzaileek diotenez, hizkuntza gutxituetako hiztunok gure praktika linguistikoengatik errefortzuak edota zigorrak jasotzen ditugu. Horien emaitza gisa, sozializazio prozesuan zehar, ikasitako babesgabetasuna barneratzen dugu. Euskaraz hitz egiteagatik ez ulertzeak, deserosotasunak edota gatazkak sor daitezkeela ikasten dugu. Aitzitik, errazago onartzeko eta ulertzeko zein

azkarrago komunikatzeko errefortzu positiboak jasotzen dira gazteleraz hitz eginez gero.

Horrela, egoera horiek saihesteko, erdarara jotzeko joera elikatzen da. Eta, hala egitean, hiztunak eurak deseroso senti daitezke, hain zuzen ere, beren kontzientzia mailak agerian uzten dielako beren hizkuntzaren kontra egiten ari direla, eta horrek mendeko egoeran jartzen dituela, norberaren duintasuna urratuz. Barne orekari eusteko, hiztunak mekanismo kognitibo batzuk erabili ohi ditu bere jokabidea justifikatzeko. Horrela, gehienek beren mendekotasuna ideologikoki finkatzen amaituko dute lehenago edo geroago. Hala ikusten da, besteak beste, euskaldunon artean hain zabaldua dagoen hezkuntza onaren inguruko ohiko argudioan, erdaldun bat tartean dagoenean euskaraz hitz egitea edukazio txarraren seinale gisa hartuz.

Horiek guztiak aintzat hartuta, beraz, EAEko instituzio nagusien egungo hizkuntza politika bi hitzetan definitu beharko bagenu, goia jo duen hizkuntza politika dela esango genuke, datozkigun erronka kolosalei aurre egiteko gai ez dena eta birpentsatzea eskatzen duena.

EAEko hizkuntza politika birpentsatzen: 6+1 erronka proposamen

Atal honetan, ondorio orokorretan aipatutako hizkuntza politikak birpentsatzeko ariketari lotutako proposamenak jasoko dira. Hizkuntza politikari lotutako sei erronka proposamen eta azkeneko proposamen gehigarri orokorrago bat.

1. erronka: gobernantza komunitarioa

Euskalgintzaren Kontseilutik Eusko Jaurlaritzarekin harremanak sendotzeko aukera ikusi zenean, gobernantza eredua aldatzeko proposamena aurkeztu zitzaien. Ondorengo irudian laburbiltzen da Kontseiluak eginiko proposamena, hein handi batean:

Gobernantza komunitariorako proposamena
(Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua 2019)



Proposamenaren xehetasunetan sartu gabe (ez dugu nahikoa tarte horretarako), funtsean, aurrez azaldu den bidetik, administrazioaren eta euskalgintzaren lankidetzan oinarritutako gobernantza komunitario baterantz joatea proposatzen zen,[3] bakoitza bere funtzio eta jardun esparrutik, baina hizkuntza politikak hobetzeko ezagutzak partekatuz, arazoak elkarrekin diagnostikatuz, etorkizuneko jomugak landuz, aterabideak eztabaidatuz, politiken inplementazioan bakoitzak beretik bultzatuz... Adostasunak bilatuz, baina desadostasunak kudeatzeko norbere moduak ere errespetatuz. Izan ere, gobernantza eredu horretan arrisku nagusietakoa lehendik aipatu dugun euskalgintzaren xurgatze instituzionala izan daiteke. Eta eredu horretan, beraz, euskalgintzak jakin beharko luke hanka bat instituzioetan eta bestea kalean izanda jarduten.

2. erronka: zeharkako hizkuntza politika

Bigarren erronka honek ere gobernantza ereduarekin lotura zuzena du.

Lehendik ere aipatu dugu hizkuntzaren zeharkako izaera eta politika publiko guztietan presente dagoela. Horrenbestez, zeharkakotasun horren araberako lekua izan beharko luke hizkuntza politikaz arduratzen den organo instituzionalak.

Euskalgintzaren urtetako aldarrikapen historikoa izan da (eta etorkizunean hizkuntza politika eraginkorrak izango baditugu, eutsi beharko zaio) hizkuntza politika Lehendakaritzaren baitan kokatu beharko litzatekeela, horrela, gainerako sail guztien politika publikoetan hizkuntzaren aldagaia egoki koka dadin eta irizpide egokiak izan ditzaten.

Zeharkakotasun hori ez litzateke soilik administrazio bereko sailen arteko berrantolaketan geratu behar, gainera. Goitik behera ere, alegia, administrazio orokorretatik udal administrazioetara doan hizkuntza politikak bi norabideetan ongi adostua, koordinatua eta olioztatua egon beharko luke.

3. erronka. Fokua (markoa) birkokatu. Erabileratik erabilerarako baldintzetara

Hemen doa gainditu beharreko laugarren eta azken ideia markoa, erabilerarena, hain zuzen. Alegia, etengabe erabileran jarrita dugun fokua edo arreta birkokatu beharko litzatekeela proposatzen dugu.

Partez ulertzekoa da erabilerari begiratzea, hizkuntzen bizitasun mailaren adierazle behinena baita. Baina, ulertu beharko litzateke hizkuntzaren erabilera faktore edo aldagai kate luze baten azken katebegia edo emaitza dela. Alegia, faktore horietan guztietan dugula benetan arreta edo fokua jarri beharra, erabileran sakoneko aldaketarik lortuko badugu.

Askotan bai baitirudi sukarrari aurre egin nahi diogula sukarra jaisteko pilulekin. Baina ohartu gabe, infekzioa sendatzeko ezer egin ezean, epe motzeko emaitzak lortuko ditugula gehienera, baina sendabidean ez dugula gehiegi aurreratuko.

Edo beste modu batean esanda: hainbeste begiratu diogu zuhaitzari, bere inguruko basoari edota ekosistema osoari begiratzea ahaztu izan zaigula.

Beraz, ulertu beharko genuke euskararen erabilera egungo gizarte baldintzen (sozial, kultural, politiko, ekonomiko eta teknologikoak) emaitza dela. Eta, beraz, gizarte baldintza horietan egiturazko aldaketarik egin gabe, ezin espero liteke euskararen erabileran ere aldaketa nabarmenik. Bide horretan, azken urteotan ikusten ari garen norbanakoon ahalduntzera bideratutako ekimenek beren mugak dituzte eta izango dituzte, horiekin batera eta horietaz gain egungo gizarte baldintzak auzitan jarri, problematizatu eta eraldatzera bideratutako ekimenik abiatu eta neurri politikorik hartu ezean.

Horiek horrela, fokua erabileran jarri beharrean erabilerarako edo erabilera erosorako baldintzetan jartzea proposatzen dugu. Alegia, euskararen erabilera erosoa izan dadin behar ditugun baldintzei buruz jardun beharko genuke; horrekin tematu beharko ginateke, nagusiki. Ulertzen baitugu, gainera, fokua erabileran jarrita azken buruan erabiltzaileengan jartzen ari garela eta, ondorioz, euskal hiztunak arduraz eta erantzukizunez zamatzen ari garela. Aldiz, fokua erabilerarako baldintzetan jarrita, gizarte baldintzetara mugituko genuke eta, modu horretan, ardura eta erantzukizuna eremu politikora bideratuko genituzke.

4. erronka: erabilera erosorako zorua. Ezagutzaren unibertsalizazioa

Bada, erabilerarako baldintzei gagozkielarik, erabilera hori hiztunentzat ahalik eta erosoena izan dadin baldintzak lantzeari buruz hitz egin beharko genuke. Izan ere, hiztunentzat erosoagoa, errazagoa edota gozagarriagoa baldin bada erdaraz aritzea, nekez egingo du gora euskararen erabilerak.

Hori horrela, lehen baldintza, erabilera erosorako zorua ezartzeko, euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa litzakete. Alegia, edonork, edonon, edonorekin euskaraz eroso

egiteko moduko ezagutzaren zabalpenaz ariko ginateke. Eta horrekin zera esan beharra dago, berebiziko garrantzia duena hiztunen gaitasun erlatiboa dela. Alegia, hiztunek euskara eroso erabiliko badute, gutxienez, erdara bezain ongi menderatu beharko dute, hala izan ezean, erosoa erdaraz jardutea suertatuko baitzaie.

Horretarako guztirako, noski, beharrezkoak lirateke hizkuntza transmisiorako hiru esparru nagusiei begirako politikak garatzea: hezkuntzari, helduen euskalduntzeari eta familia transmisioari buruz ari gara, noski. Lehenengoaren kasuan, gainera, Hezkuntza Legearen eztabaida betean murgilduta gauden honetan, gaur egungo ikasleen gaitasun datuak eta hezkuntza eragileen artean dagoen adostasun maila ezagututa, nekez uler daiteke nola ez den behingoz murgiltze eta mantentze eredu bakar orokortua ezartzeko urratsa ematen. Helduen euskalduntzean, aldiz, nekez uler daiteke EAEko herritarrek euskara ikasi ahal izateko ordaindu behar izatea edota dirua euren poltsikotik aurreratu behar izatea.

Lehen baldintza, erabilera erosorako zorua ezartzeko, euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa litzateke. Edonork, edonon, edonorekin euskaraz eroso egiteko moduko ezagutzaren zabalpena

5. erronka: erabilera erosorako espazioak. Arnasgune territorial eta soziofuntzionalak

Euskaraz eroso aritzeko, ordea, hiztunek euskara erabiltzeko aukerak eta gune erosoak behar dituzte. Izan ere, espazio soziofuntzionaletan zein territorialetan hizkuntza erabilerarako arau sozialak eraiki ohi dira, eta hiztunok arau horietara egokitzeko joera dute.

Beraz, euskal hiztunek erabilera erosoa gara dezaten, beharrezkoak dira eguneroko harreman arruntetarako hizkuntza

nagusi edo bakarra euskara duten arnasgune soziofuntzional edo territorialak, euskararen erabileraren aldeko arau soziala ezarria duten espazioak, hain zuzen. Halakorik ezean, eremu desberdinetan ezarritako arau sozialaren aurkako etengabeko jardunean (gogoan izan ikasitako babesgabetasunari buruz esandakoa) erabilera ez da erosoa izango, eta, egoera horretan, kasu gehienetan, lehenago edo beranduago, erdaren aldeko joera nagusituko da.

Hori bakarrik ez; Txillardegik zioen bidetik, «ez bada beharrezkoa bere lurraldean, hizkuntza batek jai du!».[4] Eta bertaratu berri batek nonbait sumatuko badu euskara beharrezkoa dela, hori arnasguneetan izango da.

Hartara, aski onartua dagoen arnasguneen beharrean eta garrantzian gehiago sakondu gabe, esan dezagun aitortza hori politika publiko berezietara eta berezituetara itzuli beharra dagoela, ondoriorik izango badu. Kasu honetan, beraz, arnasguneen (berriro diogu, soziofuntzionalen eta territorialen) zaintza eta garapena bermatzeko lege garapen propioa beharko litzateke.

Horrekin lotuta, lurralde antolaketaren esparrutik ere beharrezkoa litzateke arnasguneen garapenari begirako estrategia propioak definitzea. Trenbide sarearen, hiri hondakinen zein ibaiertzen, nekazaritza eta basozaintzako eremuen arloko planak[5] egiten diren bezalaxe, arnasguneen garapenera bideratutako lurralde antolaketarako estrategia zehaztu beharko litzateke.

6. erronka: hizkuntza politika integral eta arautzailea garatu

Gurean egon da eta badago joera oraindik ere hizkuntza politikari lotutako lehentasunezko eremu bakan batzuk definitu eta horietan buru-belarri jardun beharra aldarrikatzeko (orain artean hezkuntza, orain lan mundua, aisialdia...).

Lehendik esan dugun bidetik, hizkuntzaren afera zeharkakoa da, eta egungo teknifikazioak, errepide sareek, urbanizazio prozesuek, komunikabideek, sare sozialek... gizarte esparruen

iragazkortasuna areagotu dute. Garai bateko hizkuntza funtzioen konpartimentazio posiblea edo eremu geografikoen beregaintasuna erabat higatu dira. Gizarte molde eta interdependentzia horrek, beraz, inoiz baino gehiago, hizkuntza politika integralak, arlo guztiak aintzat hartuko dituztenak garatzea eskatzen duelakoan gaude.

Ulertuta, noski, baliabideen urritasunak lehentasunak ezartzea eskatzen duela, ezinbestean. Hala eta guztiz ere, inoiz ikuspegi osoa galdu gabe, eta, egiten ari garenaz bezainbeste, egiten ari ez garenaz ohartuta. Horretarako, beraz, arlo guztiak aintzat hartuko lituzkeen hizkuntza politika eraiki beharko genuke, arloz arloko erronkak identifikatuz eta horiek egikaritzeko neurriak inplementatuz. Unean-unean arlo bakoitzean egin beharrekoen eta egin litezkeenen oreka zailak bilatuz.

Horretarako, gainera, urtetan garapen urriegia izan duen euskararen inguruko corpus juridikoa garatu eta baliatu beharko litzateke, sustapenaren eta arauaren artean ere hizkuntza politikak modu orekatuan eta integralean garatuz.

Hori esanda, gobernantzaren atalean aipatu dugun bidetik, argi dago hizkuntza politika hori nagusiki arlo bakoitzeko euskalgintzako eragileekin lankidetzan eraiki beharrekoa litzatekeela. Halako prozesu bat egin gabe ausarkeriaz jokatzen ari garela ohartu arren, proposamenak botatzea eskatu zaigunez, hona balizko hizkuntza politikak definitzen hasteko zenbait orientabide posible, azalpen askorako tarterik gabe, labur-zurrean.

Arlo horien garapenak, gainera, etorkizuneko hiztunen euskaraz egiteko arrazoibideak edo motibazioak elikatu beharko lituzke. Alegia, hiztunen euskararekiko atxikimendua lantzeko balio beharko luke. Horrela, banaketa erabat zurruna ez den arren, ondoko taularen goiko bi arloek (administrazioa eta sozioekonomia) nagusiki hizkuntzarekiko *atxikimendu efektiboa* edo atxikimendu pragmatikoa bultzatu beharko lukete. Aldiz, azpiko lau arloek *atxikimendu afektiboa* edo emozionala.

Hizkuntza politikarako erronkak

	Erronkak
Administrazioa	Administrazioa euskalduntzeko *epemuga zehatzak eta baliabide bereziak* jarri behar dira. Epeak jarri, helburuak modu egokian definitzeko, baina, batez ere, bertako langileek edo bertan lan egin asmo dutenek argi izateko noizko izango den ezinbestekoa euskaraz lan egiteko gaitasuna izatea. Eta, aldi berean, gaitasun horiek eskuratzeko baliabide berezituak eskaintzea langile horiei, noski. Garai batean hezkuntzan egin zen eraldaketa administrazioan egin ahal izateko.
Sozioekonomia	*Arautu*: *kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak* aitortzeaz gain, modu efektiboan berma daitezen. Baita, kontratazio eta diru laguntzen esparruan, gizarte erantzukizunaren ikuspegitik hizkuntza jokabide arduratsuak bermatzeko *hizkuntza klausula* ere.
Ingurune digitala	*Hizkuntza teknologiaren garapenean* euskarak ere behar duen lekua izan dezan inbertsioak bultzatu. Horrekin batera, ingurune digitalean euskarak presentzia izan dezan, euskarazko edukiak sareratu, baina, batez ere, *bertako erreferenteak sortzea bultzatu*.
Hedabideak	*Arautu*: erdarazko hedabideei *kuota sistemak* aplikatu, gutxieneko euskarazko edukiak edota produkzioa gara dezaten. Bestalde, *euskarazko komunikazio sistema* propioa eratu, euskarazko hedabideen sarea artikulatuz, eta bultzatuz.
Aisialdia	*Arautu*: gaur egun hizkuntza gaitasun (ia) unibertsala duen *16 urtetik beherako ume eta gazteentzat* administrazioak antolatu edo lagundutako jarduera guztiak *euskaraz soilik* izan daitezen bideratu. Ildo beretik, begirale titulua izateko hizkuntza gaitasun egokia egiaztatu behar izatea.
Kultura	Sortzaile, ekoizle, produktore, kontsumitzaile... euskaldunak artikulatuko dituen *euskarazko kultur sistema eta zirkuitua eratzea*, horretarako beharrezko arauak garatuz (artista, sortzaile eta kultur langilearen estatutua), babesa eskainiz eta inbertsioak eginez.

* Hezkuntza arloko erronkak aurrez aipatu dira.

Azken horiei lotuta, hau da, ingurune digitalen, hedabideen, aisialdiaren eta kulturaren esparruetan, ohartu beharko ginateke eskaintza eta lehia globaleko testuinguruari aurre egin beharko zaiola (are gehiago hizkuntza teknologiak garatu ahala) . Nekez pentsa genezake, testuinguru horretan,

baliabidez eta gaitasunez gehiago izango direnekin kalitate parametroetan, soilik, lehiatzeko gai izan gaitezkeenik. Gure ustez, helduleku nagusia ez dugu hor. Iruditzen zaigu hau dela bidea: atxikimendu afektiboaren bidetik, autozentratutako produkzioa garatzea, gure herri kontakizuna eraikitzeko eta horretan ardazteko gai den kultura, aisialdia, hedabideak... garatzea. Herri iruditeria edo imajinario propioa sortuz eta birsortuz zein erreferente edo erreferentzia propioak sortuz eta elikatuz. Modu horretan, komunitate sentimendu bat, gutasun bat eraikitzen joatea eta, horrela, gure komunitateko partaide gisa, hori eskaintzen dutenekiko atxikimendua elikatzea litzateke, gure ustez, gakoa.

+1 erronka: hizkuntzaren afera birpolitizatu

Imajina ezazu zure etxera, ate joka, euskaraz dakien komertzial bat datorrela. Atea ireki, eta bera erdaraz hasi arren, zuk euskaraz hitz egiteko eskatuz gero, elkarrizketa euskaraz garatuko litzateke, ziurrenera. Aldiz, pentsa ezazu orain, langabezian egonik, lan elkarrizketa batera zoazela enpresa batera; zu euskaraz hasi eta elkarrizketatzaileak, bisitatu zaituen komertzial bera izanda, gazteleraz egiteko eskatzen dizula.

Bourdieuk esanak dira:

> Hizkuntza trukeak botere sinbolikoko erlazioak ere badira, non esatarien eta horien taldeen arteko botere harremanak eguneratzen diren. (Bourdieu 1985: 11)

Eta horrekin batera:

> Hitz egiten diren hizkuntzen bidez, hitz egiten duten hiztunak eta hizkuntza gaitasun horrek definitutako taldeak, gizarte egitura guztia dago presente elkarrekintza bakoitzean (eta, hala, diskurtsoan). (*Ibid*.: 41)

Ondorengoa, berriz, Kontseiluko idazkari nagusi kargua hartu berritan Idurre Eskisabeli *Argia*-n eginiko elkarrizketan esana da:

> Horrez gain, gutxitan aipatzen da euskararen biziberritze prozesua eraldaketa sozialeko prozesua dela. Jendarteko botere harremanetan aldaketak ekarri behar dituela derrigor, eraldaketa prozesu guztietan bezala. (Arbelaitz 2022)

Horrekin guztiarekin zera adierazi nahi dugu, hizkuntzaren nondik norakoak, hizkuntzen ordezkapen prozesuek argi erakusten duten bezala, botere harremanen joko zelaian ebazten direla. Azkenaldian bolada xamarrean dauden sedukzioaren eta limurtzearen aldeko joerek beren ekarpena egin dezaketen arren, hizkuntzaren auzia politikoa dugula, eta hiztun taldeek duten boterearen araberako erakarmen indarrak (hiztun berriak erakartzeko) edo bultza indarrak (beste hizkuntzaren lekua edota funtzioak betetzeko) (Mackey 1976) bideratuko dutela, azken batean, hizkuntzaren berreskurapena edo galera.

Azkenaldian bolada xamarrean dauden sedukzioaren eta limurtzearen aldeko joerek beren ekarpena egin dezaketen arren, hizkuntzaren auzia politikoa dugu

Azken ondorio gehigarri gisa, beraz, hizkuntzaren afera birpolitizatu behar dela aldarrikatzen dugu. Izan ere, hizkuntza-ordezkapen prozesu guztietan gertatu bezala, normalizazio prozesuetan ere ezinbestekoa zaigu botere eta politika publikoen erabilera, botere betearazlearena barne. Horrela, hizkuntza normalizazioak ikuspegi hori bere baitan izango duen hizkuntza politika garatzea eskatzen du.

Horrek zuzen-zuzenean garamatza, noski, estatu egituren beharraren inguruko eztabaidara, baina hori hurrengo baterako utzi beharko dugu.

Oharrak

1. www.youtube.com/watch?v=Z-uWhB6d79I&list=PLu1XiDfqOVIxMo4KH-TR6j5X5mT6urTfM&index=2
2. www.europapress.es/euskera/noticia-euskararen-normalizazioan-eusko-legebiltzarra-atzerapauso-handi-bat-ematear-dagoela-salatu-dute-20120208170916.html
3. Bide batez, bistan denez, proposamena garatzeko konpromisorik ez zen hartu Eusko Jaurlaritzaren aldetik.
4. www.berria.eus/paperekoa/1483/012/001/2011-02-12/estatu-batekin-agian-euskara-ez-da-salbatuko-gabe-ziur-ezetz.htm
5. www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/araudia/lurralde-antolamenduko-legeria

Bibliografia

Apodaka, E.; Morales, J. (2021): 'La gobernanza lingüística en la Comunidad Autónoma Vasca: racionalidad neoliberal y demandas comunitarias', *Athenea Digital. Revista de Pensamiento e Investigación Social* 21(1), 1-26. https://doi.org/10.5565/rev/athenea.2667

Arbelaitz, L. (2022): 'Idurre Eskisabel Larrañaga: «Euskara hizkuntza gutxitua dela aintzat hartu gabe, nekez egingo dugu aurrera»', *Argia* 2.805, 30-36 (www.argia.eus/astekaria/docs/2805/azala/2805_argia.pdf).

Arnstein, S. R. (1969): 'A Ladder Of Citizen Participation', *Journal of the American Institute of Planners* 35(4), 216-224. https://doi.org/10.1080/01944366908977225

Askoren artean (2010): *Soziolinguistika eskuliburua*, Gasteiz, Soziolinguistika Klusterra eta Eusko Jaurlaritza.

Bourdieu, P. (1985): *¿Qué significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos*, Madril, Akal.

Braun, M. (2011): 'Encuestas de opinión pública en América Latina: desafíos y controversias', *Revista Latinoamericana de Opinión Pública* 1, 13-38. https://doi.org/10.14201/rlop.22247

Euskalgintzaren Kontseilua (2022): *Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutuaren lege-proiektua. Azterketa eta ekarpenak*, Andoain, Euskalgintzaren Kontseilua.

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua (2017): *VI. Inkesta Soziolinguistikoaren eta VII. Kale Erabileraren Neurketa. Datuen azterketa, ondorioak eta proposamenak*, Andoain, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua.

— (2019): *Hizkuntza-politika birpentsatzen eta harreman-eredu berria eraikitzen. Eztabaidarako proposamena*. Argitaragabea.
Eusko Jaurlaritza (2019): *VI. Inkesta Soziolinguistikoa 2016*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.
Goikoetxea, G. (2016): *Euskara irabazteko bidean*, Andoain eta Donostia, Jakin, Berria eta Elkar. *Aleka* bilduma 2.
Goikoetxea, J. (2017): *Demokraziaren Pribatizazioa. Kapitalismo Globala, Europa eta Euskal Lurraldeak*, Donostia, Elkar. *Eztabaida* bilduma 36.
Hizkuntza Eskubideen Behatokia (2021): *Hizkuntza Eskubideen egoera 2021*, Andoain, Hizkuntza Eskubideen Behatokia.
Iurrebaso, I. (2021): 'Euskarazko hizkuntza-gaitasuna eta erabilera: zer dago indartsuagoa? Zer dago ahulagoa?', *Hermes* 69, 24-39.
Jessop, B. (2017): *El Estado. Pasado, presente, futuro*, Madril, Catarata.
Joan, B. (1998): *Un espai per a una llengua*, Valentzia, 3i4 edicions.
Lakoff, G. (2007): *No pienses en un elefante. Lenguaje y debate político*, Madril, Foro Complutense.
Lindblom, C. E. (1991): *El Proceso de elaboración de Políticas Públicas*, Madril, Miguel Ángel Porrúa.
Mackey, W. F. (1976): *Bilinguisme et contact des langues*, Paris, Klincksiec.
Martinez de Luna, I.; Suberbiola, P. (2020): *Euskararen erabilera eskola--giroan. Txosten exekutiboa*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.
Suay, Ferran; Sanginés, Gemma (2005): 'Un espai per als parlants d'una llengua', *Llengua i Ús. Revista Tècnica de Política Lingüística* 34, 27-39.
Subirats, J. (2019): 'Notas sobre gobernanza y cambio de época', in Eusko Ikaskuntza: *Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresua. Geroa Elkar-Ekin*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 547-555.

Zaila bada, ez da ezinezkoa

Nafarroako hizkuntza politikaz

Dabid Anaut Peña
Euskal Filologian lizentziaduna, udal euskara-teknikaria eta euskalgintzako ekintzailea

Nafarroan euskara biziberritu eta normalizatuko bada, ezinbestekoa izanen da, besteak beste, hizkuntza politika sendoa eta eraginkorra gauzatzea. Konpromiso handirik gabeko esaldia da hori, ia edonork sina lezake. Abiapuntu eroso horretatik abiatu eta gauzak zehazten hasiz gero, ordea, bestelako galdera batzuk sortzen dira.

Esate baterako: zer da hizkuntza politika eta nori dagokio? Izan ere, eta literatura soziolinguistikoak eman dituen hamaika definizioak gorabehera, hizkuntza politika modu oso zabalean edo modu hertsiagoan uler liteke. Hizkuntza politika, ikuspegi zabaletik begiratuz gero, gure gizarte sistema honetako parte diren egitura eta eragile orori dagokio, hizkuntza baita giza jarduera orok baliatzen duen erreminta; ondorioz, gizarte jarduera orok izan lezake eragina hizkuntzaren bizitzan eta garapenean. Kontziente izan edo ez, esan genezake denok egiten dugula hizkuntza politika. Korporazio industrial batek egiten duena jo genezake hizkuntza politikatzat, baita familia batek etxe barruan egiten duena ere, nahi izanez gero.

Ikuspegi hertsiago batetik begiratzen dugunean, berriz, hizkuntza politikaz ari garenean batez ere erakunde publikoek

eta administrazioek egiten duten horretaz ari gara, eta artikulu honetan ikuspegi horri lotuko gatzaizkio. Labur beharrez, eta oraingoan arreta bereziki horretan jarri nahi dugulako.

Hizkuntza politikaz ari garela, eta hautatu dugun ikuspegi hertsiago horretan kokatuta, sortzen zaigun beste galdera bat honakoa da: zein da, euskararen bilakabidean eta garapenean, erakunde publikoek egiten duten hizkuntza politikaren pisua? Esate baterako, herritarrek egoera eta une jakin batean euskararen edo erdararen aldeko hautua egiten dutenean, zenbaterainoko pisua dauka erabaki horretan erakunde publikoek eta administrazioek egiten duten hizkuntza politikak, 'ofizialtasunetik' datozen neurriek eta ekimenek?

Hiztuna –azken batean euskara gehiago edo gutxiago erabiliko duen hori–, bere hautua egiteko garaian, alde batera edo bestera bultzatuko duten faktore batzuk identifikatu izan ditugu, baita horien pisua neurtu ere zenbaitetan: hiztunaren hizkuntza gaitasuna, inguruan duen euskaldunen dentsitatea, besteak beste.

Baina ez dugu zehatz neurtu eta kuantifikatu, nik dakidala behintzat, indarrean dagoen hizkuntza politikaren ondorioz hartzen diren eta hartzen ez diren erabakien inpaktua eta emaitza. Alegia, hizkuntzaren ezagutza eta erabilera arautzen duten lege xedapenek eta hizkuntzen ezagutza eta erabilera kudeatzeko eta horretan eragiteko botere publikoek hartzen dituzten eta hartzen ez dituzten erabakiek duten inpaktua eta emaitza.

Horren guztiaren neurketa eta ponderazioa egitea ez da erraza izanen, baina gauza zailagoak egiten saiatu gara makina bat aldiz. Eta egin beharko litzateke, nire ustez, intuizioa den hori berretsi edo, aitzitik, auzitan jarriko lukeelako. Botere publikoen hizkuntza politikak hizkuntzaren garapenean eragin handia duela eta funtsezkoa dela berretsiz gero, konstatazio horrek aurrera begirako bide orrian isla izan beharko luke, baita lehentasunak hautatzeko garaian ere.

Gaur egun, jakina da, ohikoa da oso pilota hiztunaren eta haren zirkunstantzia pertsonalen gain uztea –hizkuntzaren

alorrean bezala, baita beste hainbatetan ere–, instituzioei dagokien zama arinduz, euskaraz edo gaztelaniaz egitea erabaki pertsonal hutsa bailitzan. Eta, zenbaitetan, badirudi erakundeen hizkuntza politikarik gabeko euskararen bide orri bat osatu nahi dugula edo, hori gehiegi esatea bada, erakundeen hizkuntza politikaren beharra eta egitekoa nabarmen lausotzen eta minimizatzen duen bide orri bat osatu nahi dugula.

«Piztia esnatuko da»

Neurketa eta ponderazio zehatz horren euskarri sendo eta zientifikoaren heldulekua izan gabe ere, erakunde publikoen hizkuntza politika funtsezkoa eta ezinbestekoa delako hipotesitik abiatuko naiz ni, nahikoa sinetsita bainago hori hala dela. Zaila egiten zait oso erakundeen esku hartze sakonik gabe euskara biziberritzea eta erresistentzia dinamika batetik ateratzea lor litekeenik sinestea.

Erakunde publikoen hizkuntza politika funtsezkoa eta ezinbestekoa delako hipotesitik abiatuko naiz. Zaila egiten zait oso erakundeen esku hartze sakonik gabe euskara biziberritzea eta erresistentzia dinamika batetik ateratzea lor litekeenik sinestea

Hori hala bada, beraz, eta euskara indarberritzeko bide orrian botere publikoen hizkuntza politikak ere lehentasuna izan behar badu, eskakizun horren tamaina ezin da, soil-soilik, botere publiko horietan eragiteko dugun ahalmenaren araberakoa izan. Erakundeek hizkuntza politika eraginkorra egin dezaten sustatu eta eskatu beharko dugu, eta ezin dugu hori egin gabe utzi ez dugulako inor urduritu nahi, ez dugulako molestatu nahi, pertsuasioa delako bide bakarra, edo nagiak jota gaudelako... Beste kontu bat da hizkuntza politika egin dadin eskatzeko eta presioa egiteko

modua berritzea edo egokitzea, baina naiftasun inozo batean erori gabe egin dezagun, ahal bada.

«Kontuz, piztia esnatuko da» bezalako esaldiak entzun izan ditugu Nafarroan, gure artean, euskararen inguruko ekimenei eta eskaerei zorrotz eta gogor eutsiz gero piztia euskarafoboa bere lozorrotik ateraraziko genukeelakoan. Eta beldur sor hori oraindik ere egon badagoela ematen du batzuetan, alegia, hobe dela xuabe-xuabe aritzea, gozo-gozo, onkeriaz..., piztiak eraikitzen goazen guztia deseginen ez badigu.

Eta bai, xuabe-xuabe eta gozo-gozo ere ari gaitezke, baina ez da irmo eta tinko aritzearekin bateraezina. Lehenengoan gelditzuz gero, akaso, ez dugu inor haserrearaziko eta piztia lasaixeago egonen da, baina euskarak etorkizun sendo eta osasuntsua izan dezan eman beharreko urrats erabakigarriak eman gabe geldi gaitezke.

Begiratu azkar bat Nafarroako erakundeen hizkuntza politikari

Nafarroan, xelebrea edo are absurdoa ematen badu ere, erakunde berbera, aldi berean, norabide batean eta kontrakoan ari daiteke. Eta halaxe ari da Nafarroako Gobernua hizkuntza politikari dagokionez.

Euskarabidea ari da alde batetik, bertako arduradun eta langileen bitartez, euskara sustatzeko eta hedatzeko ahaleginean. Azkeneko urteotan, konparaziora, Euskararen Plan Estrategikoa diseinatu eta horren arabera saiatzen ari da euskararen egoeran eragiten, hobetze aldera. Eta euskarak baditu beste aliatu solte batzuk Nafarroako Gobernuko hainbat departamentu, zerbitzu eta ataletan, korronte antolatu eta egituratua osatzen ez badute ere. Horiek denek euskararen aldeko norabidean tira egiten dute, Nafarroako erakunde publiko nagusitik.

Baina Nafarroako Gobernuan bertan, aldi berean baina aurkako norabidean doazen beste indar batzuk ere badaude; zoritxarrez, horiek dira, nire ustez bederen, gaur egun pisu

eta eragin ahalmen handiena dutenak, Euskarabideak duena baino handiagoa, alegia. Funtzio Publikoaz arduratzen den departamentua, edo Hezkuntzakoa, esate baterako.

Paradoxa hori dugu Nafarroan, beraz, hizkuntza politikari dagokionez. Ziur asko beste alor batzuetan ere antzeko egoerak aurki genitzake, antzeko errealitate kontraesankorrak, baina euskarari dagokionean oso-oso bistakoa eta nabarmena da, baita etsigarria eta mingarria ere, euskaltzalearen ikuspegitik behinik behin.

Hori esanda, eta Nafarroan egiten den hizkuntza politikaren deskribapena bi paragrafotan laburtu beharko bagenu, honela egin genezake:

- Euskararen aldeko hizkuntza politika aktibo eta esplizitua egiten da Nafarroan. Zenbait udalek egiten dute, baita Nafarroako Gobernuaren egituraren zati batek ere. Oro har, azken hamarkadotan euskarari irabazi batzuk ekarri dizkion arren, muga handiak dauzka (legalak, ekonomikoak, politikoak, psikologikoak...), eta ez da inolaz ere aski euskararen egoera iraultzeko eta normalizazioaren bidean jartzeko.
- Euskararen aurkako hizkuntza politika aktiboa egiten da Nafarroan, agerikoa batzuetan eta inplizitua beste batzuetan. Zenbait udalek egiten dute, Nafarroako Gobernuak egiten du, baita estatuak eta, bereziki azken aldian, zenbait epaitegik ere. Euskara muga jakin batzuetan hesituta edukitzeko helburuan nahikoa emaitza ona lortzen ari da.

Orain arteko hizkuntza politikak utzitako datu edo adierazle esanguratsu batzuk

Deskribapen labur horretaz gainera, Nafarroako Gobernuaren orain arteko hizkuntza politika xehe azaltzeak luze joko luke. Labur beharrez, baina horren tankeraren berri ematen lagun lezakeelakoan, hizkuntza politika horrek utzi dituen eta gure ustez esanguratsuak diren zenbait datu edo adierazle ekarriko ditugu hona.

- Euskararentzat eraikitako marko legalak bere horretan dirau: Nafarroa hiru eremutan zatitu zuten 1986an eta, 37 urte geroago, banaketa indarrean dago, berdin jarraitzen dugu. Nafarroako zatirik handienean, Iruñea hiriburua barne, euskara ez da hizkuntza ofiziala. Orduz geroztik sortutako lege garapen osoa marko horretan eta marko horrek baldintzatuta gertatu da.
- Euskarazko irakaskuntzaren mugak: %30aren langa ezin pasa. Belaunaldi berriak euskaldundu zitezen egindako ahaleginak ehuneko horretara eraman gaitu. Nafarroako Gobernuak, inoizka, D ereduaren aldeko ekimen herabe samarrak egin baditu ere, euskarazko irakaskuntza sustatzeko eta hedatzeko ahalegina gizarte mugimendutik etorri da nagusiki. Nafarroako Gobernuak hainbat urtez erakutsitako jarrera hotzak –eta are kontrakoak, sarritan–, bestelako faktore batzuekin batera, euskarazko irakaskuntzaren hedapena zaildu eta trabatu egin du.
- Gaur egun, oraindik ere, Nafarroako eremu zabal bateko deialdi publikoetan, alemana, ingelesa nahiz frantsesa merezimendu gisa baloratzeko atea irekita dago, eta euskarak ate hori bera itxita dauka. Harrigarria gerta lekioke askori, baina gehiago dauka mingarritik eta iraingarritik, egia esateko. Nafarroako lurraldean barrena egiten den hainbat eta hainbat deialdi publikotan Nafarroan hiztun talderik eta eskaera sozialik ez daukan alemana baloratzen da, eta bertako hizkuntza propioa den, lege aitortza duen eta hiztun komunitate sendoa duen euskara ez. Hori ontzat emateak eta zuritzeak ia beste deusek baino hobeki argitzen du zenbaiten euskararekiko ikuspegia eta kokapena zein den.

Euskararen biziberritzearen eta normalizazioaren ikuspegitik negatiboak diren adierazleak eta datuak gailentzen dira Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika deskribatzerakoan

- Nafarroako Gobernuak –ustez, laster onartzeko– prestatu duen hizkuntzen merezimenduen dekretua aurreko egoerarekiko atzerapausoa da. Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzeko dekretuen soka luzea da, eta oso gorabeheratsua eta gatazkatsua. Egin diren eta onartu diren dekretu guztiak 1986ko legeak ezarritako zonifikazioaren markoan sortuak dira, eta, aldeak egon badauden arren, horietako bakar batek ere ez ditu euskaltzaleen espektatibak bete. Hizkuntza politikaren inguruko eztabaidetan, lanpostu publikoetako hizkuntza eskakizunak eta merezimenduen balorazioa izan dira korapilo nagusietako bat, eta horiek dekretu horien bitartez arautu izan dira. 2000ko hamarkadaren hasieran dekretu erabat murriztaileak landu eta indarrean jarri ondoren, 2015-2019ko legealdian onartutakoak, murriztailea eta ez-nahikoa izaten jarraitzen zuen arren, hobekuntza txikiren bat ekarri zuen. Azken legegintzaldi honetan landu denak, ordea, berriz ere atzera egiten du, eta euskararekiko eraiki nahi den hesia indartzera dator.
- Parlamentuak PAI programa hizkuntza-eredu bihurtzea erabaki du, gobernua gidatzen duen PSNren eta Navarra Sumaren botoekin. Irakaskuntzan euskarazko ereduari indarra kendu eta galga jartzeko egindako urratsari bultzada eta estatus indartsuagoa eman nahi diote modu horretan. Apustuari eusteaz gain, indartu ere egin nahi dute.

Euskararen biziberritzearen eta normalizazioaren ikuspegitik negatiboak diren adierazleak eta datuak gailentzen dira Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika deskribatzerakoan. Badira, nolanahi ere, norabide egokian egindako urratsak ere, horiek korronte nagusia aldatzeko behar besteko indarrik ez duten arren.

- Euskararen Plan Estrategikoa: azken urteotan egin den urrats positiboetako bat da. Gabezia nabarmenak dauzka, ez da behar lukeena, baina hizkuntza politikak behar duen tresnetako bat da, eta aukera batzuk eman litzake. Plan Estrategiko horren testuinguruan, baina baita hori

baino lehenago ere, euskara sustatzeko ildoak eta ekimenak garatu izan ditu Nafarroako Gobernuak, azkeneko urteotan Euskarabidearen eskutik.

Gogoratu behar da, nolanahi ere, II. Plan Estrategikoak, 2021eko abendutik bukatuta badago ere, gobernuan onartu gabe jarraitzen duela. Sustatu eta gauzatu ditzake Euskarabideak plan horretan jasotako hainbat egitasmo, eta neurri batean behintzat hala ari da, baina plan hori onartzeko gobernuaren aldetik sumatzen den erresistentzia adierazgarria ere bada.

- Euskara sustatzeko aurrekontuetan aldaketak: UPNren garaietatik hona aldatu den alderdietako bat da. Nahikotasun mailara iritsi ez diren arren, euskararen normalizazioarekin lotutako aurrekontuetan igoera gertatu da azken urteotan.
- Legean aldaketa partzial batzuk gertatu dira: hezkuntzaren eremuan 2015ean, esate baterako, eremu ez-euskaldunean euskarazko irakaskuntzari bidea zabaltzeko norabidean. Edo eremu ez-euskalduneko 44 udalerri eskualde mistora eta mistoko bat eremu euskaldunera igarotzeko 2017an egindako aldaketa. Ildo horri segida emateko aukera sortu da 2023ko hasieran, Mañeruko Udalak eremu mistoan sartzeko eskaera egin baitu, baina PSNk eta Navarra Sumak aukera zapuztu dute, euskararen normalizazioarekiko beren ildoa berretsiz.

Sentsazioak eta esan beharreko batzuk

Aitortzea etsigarria bada ere, esan beharra dago azken urteotan Nafarroako Gobernua gidatu duen alderdi politikoaren –PSN, hain zuzen ere– euskararekiko jarrera hotza, oso hotza, izan dela. Erabateko indiferentzia, sentsibilitaterik eza. Hori, kasurik onenean. Zenbaitetan, kontrakotasun ebidentea. Eta, horretan, parlamentuko indar politiko nagusiaren babesa dauka. Nafarroako Gobernuko buru Maria Chivite Irulegiko aurkikuntzaren berri ematen ikusi dugu, euskararen

bertakotasunaren ebidentzia saihetsezin eta distiratsua goratzen, baina oraingoz su horrek ez du gure agintariak estaltzen dituen izotza urtzen lagundu.

Indar politiko jakin batzuen analisian, agidanez, euskararekiko aurkakotasunak eta jarrera gogorrak ez dauka kostu politiko handirik; aitzitik eta are okerrago, onura politikoa ere ekar lezake. Albiste txarra euskararentzat eta euskal hiztunontzat; izan ere, gauza jakina da sarritan mugimenduak irabazien eta kostu politikoen arteko erlazioaren arabera egiten direla. Gaur egun, eta bereziki boto zaku gizenagoa espero duten lurralde eremuetan, indar politiko horiei iruditzen zaie gehiago komeni dela euskararen hedapenarekiko aurkakotasunean irmo agertzea ulerkor eta eskuzabal agertzea baino.

Jarrerak jarrera, ordea, euskararen normalizazioak adostasun sozialaren eta politikoaren bidetik etorri beharko du, bestela nekez iritsiko baita halakorik. Eta, beraz, adostasunaren esanahiaz eta irismenaz ñabardurak egitea komeni bada ere, onkeriarekin eta denari betoa jartzeko aukerarekin nahas ez dadin, nahikoa logikoa da adostasun horren bila ahaleginak eta bi egitea, Kontseiluak abiatutako *Batuz aldatu* ildoaren moduan, adibidez. Jakin badakigun arren, noski, gaur egun adostasun sozial eta politiko zabal horretatik nahikoa urrun gaudela Nafarroan eta, zer esanik ez, euskalgintzan nahikoa adostuta dagoen eta aldarrikatzen den eman beharreko jauzitik urrun. Neurtzen hasiz gero, esanen nuke hurbilago dugula –edo ez hain urruti behinik behin– adostasun soziala politikoa baino, eta zentzuzkoa dirudi sekuentzia horrela lantzea, alegia, adostasun sozial indartsu baten bila joatea, adostasun politikoaren eragile eta bultzatzaile izanen delakoan.

Bizi ala iraun?

Ez baita gauza bera. Galdera horren aurrean, oraingoz 'iraun' horretan gabiltzala esanen nuke. Eta esanen nuke irauteko zera horretan zailduta eta ongi entrenatuta gaudela, eta, horrenbestez, eta bestela ere euskarari eusteko grina eta kemena

oraindik ere indartsua delako hiztun talde esanguratsu batengan, badugula tarte batean irauteko behar beste erregai.

Euskaltzaleon aspirazioa ez da hori, ordea. Euskaltzale guztion azken helburua adostuta eta argi formulatuta ez badugu ere, euskaraz normaltasunez eta eroso bizitzeko aspirazioa badugu behintzat, eta hortik urrun gaude oso.

Nafarroan baditugu egoera hori irauli nahi duten indarrak, eragileak eta ekimenak, eta gaur egun inora iristeko itxaropena eta aukera baldin badago, horiek hor daudelako eta ari direlako da, bulkada hori hor dagoelako: euskalgintzako eragileak eta bilguneak, euskal kulturgintza, euskarazko hedabideak, euskarazko hezkuntzako eragileak, euskalduntze-alfabetatzean ari diren erakundeak, UEMA, Korrika bezalako aspaldiko ekimenak... Baita azken urteotako ekimen berri eta interesgarriak ere: Errigora eta Agerraldia, Hordago, Laba, Euskaraldia, Gazte Euskaltzaleen Sarea, unibertsitateko euskara taldeak, 2023ko ekainerako mobilizazio handi bat proposatu duen ekimen herritarra...

Bestalde, esanen nuke euskara indarberritzeko eta normalizatzeko egin beharreko urrats esanguratsuak zein izan litezkeen marrazteko ezintasun teorikorik ez dagoela. Gizartea azkar aldatuz doa, hori ere bistakoa da, eta asmatu behar da agertoki, egoera eta motibazio berriei erantzuten eta horietara egokitzen. Baina normalizazioaren alderdi tekniko eta teorikoak ez luke arazo izan behar; asmatuko genuke, gutxi asko, XXI. menderako neurriak diseinatzen, dauden proposamenen sintesi bat egiten, baita berriak asmatzen ere. Ez du erraza izan beharrik, baina egingarria bai.

Gakoa, beraz, beste nonbait dago, nire ustez: alde batetik, eta erakunde publikoek egin behar duten hizkuntza politikaren osagarri, euskalgintzaren eta, oro har, gizartearen bultzadan, hizkuntza politika ez baita euskaltzaleon auzi esklusiboa. Nolanahi ere, gizartea egiteko horretara lotu behar bada, eta euskalgintzak horren motorra izan behar badu, euskalgintza indarberritzea ezinbestekoa da, prozesuaren hauspoa, izan ere, horixe izanen baita.

Eta borondate politikoa, bestetik; euskara eztabaida politikoaren erdira eraman behar da –eta ez eztabaida edo polemika partidistaren erdira–, eta behar diren erabaki politikoak hartu. Artikulu honetan mintzagai dugun hizkuntza politika egin edo eginarazi, alegia.

Zein izanen litzateke egoera optimoa eta desiragarria? Bada, nire ustez, bederen, estatu egiturak izatea, hizkuntza politika burujabea egiteko eta euskararen normalizazioak eskatuko lituzkeen erabakiak askatasunez hartzeko.

Euskara eztabaida politikoaren erdira eraman behar da –eta ez eztabaida edo polemika partidisten erdira–, eta behar diren erabaki politikoak hartu

Ez da hori, bistan denez, gaur arratsaldean gertatuko; horra iritsi baino lehen, oso lagungarria izanen litzateke hizkuntza politikaren inguruan lehenago aipatu dugun adostasun soziala eta politikoa lortzea. Alderdi politikoen arteko eztabaidan sumatzen den eztabaida mikatza eta zenbait alderdik muturreraino eramaten dituzten baieztapenak –horietako batzuk gezur galantak, gainera– ez dira, ziur asko, hain muturrekoak eta ez daude hain hedatuak herritarren artean. Eztabaida politikoak gizartean dagoen pertzepzioa distortsionatu egiten duela esanen nuke; zorionez, adostasun soziala agian eman lezakeena baino eskuragarriagoa izan liteke.

Inkestetatik jaso ditugun emaitzetatik 'euskararen aurkako blokean' sartu ditugun herritar horietako asko ez daude, uste dudanez, benetan euskararen aurka. Euskara sustatzearen aurka daudela esan genezake, agian, baina horri ere ñabardura bat egin geniezaioke: euskararen sustapenaz duten irudi eta pertzepzio jakin batek eraman ditu kasu askotan kontrakotasun hori adieraztera, eta irudi hori oso distortsionatua da kasurik onenean, eta faltsua eta maltzurki manipulatua sarritan. Euskararen sustapenari buruzko eztabaida zintzo, argi eta burutsu batek jarrerak asko leundu litzakeela iruditzen

zait, eta argazkia ere zertxobait aldatuko luke. Euskarafobia erreal eta gotor bat ere izan badela ukatu gabe, betiere.

Oraingoz urrun gaude, baiki, lehenxeago aipatu dugun adostasun horretatik, ez dugu geure burua engainatuko. Baina, bitartean, ezin geldirik egon, eta dauzkagun baliabideekin eta indarrekin hizkuntza politika ahalik eta eraginkorrena egiten eta eginarazten saiatu beharko dugu. Adostasun horren bidetik, bai, baina hizkuntza politika eraginkorra egin dadin beharko genukeen adostasun sozial eta politikoaren *fumata bianca* horren zain deus egin ezinik gelditu gabe, jakina.

XXI. mendeko hizkuntza politikari begira

Gauzak tarteka formulazio sinple baten bitartez adieraztea erosoa bai baina arriskutsua ere badela jakin arren, ausartuko naiz nire ustez hizkuntza politikak lortu beharko lukeena modu labur batean eta sofistikazio handirik gabe biltzen. Aldez aurretik argituta, badaezpada, helburu hori ez duela erakunde publikoen hizkuntza politikak bakarrik lortuko, gizarte osoak baizik, langintza horretan askotariko eragileek elkar osatuz. Baina botere publikoei ere badagokie; horretaz ari gara artikulu honetan, eta horren bila joan beharko lukete. Honela jaso genezake, labur-labur: euskaraz eroso egiteko gai izanen diren hiztunak behar dira, masa kritikoa, alegia; hiztun horiek hitz egiteko espazioak eta aukerak behar dituzte; eta, azkenik, euskaraz egiteko arrazoiak. Hiru atal horiek landu eta sustatu behar ditu hizkuntza politikak, eta hiru ardatzeko eskema sinple horretan txerta liteke seguruenik euskararen biziberritzea sustatzeko egin litekeen jarduera edo ekintza oro.

Hori esanda, eta aurrera begira jarrita, garai honetarako eta datozen urte edo hamarkadotan etor litekeen garairako kontuan hartu beharreko ideia edo gogoeta batzuk ekarriko ditut. Ez dira kontuan izan beharreko gako guztiak, jakina, baina guztiak iruditzen zaizkit kontuan hartu beharrekoak.

Honatx:

- Hizkuntza politikarentzat koltxoi eta testuinguru sozial eta politiko egokia sortu behar da. Eman dezagun, askotxo ematea bada ere, Nafarroan euskara biziberritzeak aginduko ligukeen bide orri sendoa eta hizkuntza politika eraginkor eta egokia diseinatzea eta adostea lortzen dugula, adostasun politikoa barne: Nafarroa osoan euskarak estatus ofiziala; arnasgune geografikoak eta soziofuntzionalak babestu, indartu eta josteko politika bat; lan munduan euskara txertatzeko bide orri eraginkor bat; euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa lortzeko urratsak adostuta; euskara ikasteko doakotasuna bermatuta; aisialdia euskaraz bizitzeko aukera eta eskaintza antolatuta; euskal kultura transmititu eta sustatzeko egitasmo sendo bat; digitalizazioari aurre egiteko estrategia bat; euskarazko hedabideentzako marko eta hitzarmen egokia... Gisa horretakoak adostuta eta abiatuta prest, alegia. Hori gauzatu beharko balitz, igerilekuan ura beharko genuke, jauzi egin eta hezurrak hautsi nahi ez baditugu. Hizkuntza politikak gizarte osoaren hainbat geruzatan eraginen luke, eragileak bezalaxe hartzaileak ere badauzka, eta horiei ere onargarria gertatu behar zaie. Ez da lortuko hizkuntza politikaren inguruko adostasun politiko sendorik, aurretik gizarte atxikimendu sendorik ez badago; baina ezin dugu jokatu atxikimendu hori zaindu eta elikatu gabe, betierekoa eta zirrikiturik gabea izanen balitz bezala.
- Euskararen biziberritzea ongizatearekin lotzen asmatu beharko genuke, norbanakoaren eta komunitatearen ongizatearekin, alegia. Oker ez banago, badira gizartearen ongizatea neurtzeko adierazleen artean gisa horretako osagaiak txertatzen hasi diren lurraldeak, adierazle materialetatik harago, asebetetze psikologikoarekin edo animikoarekin zerikusia duten adierazleak txertatu dituztenak. Norberak hautatzen duen hizkuntzan aritzeko aukera izateak badu hor tokia, eta ongizatea neurtzeko eta baloratzeko erabili ohi ditugun eskemak iraultzea eta erresistentzia batzuk birrintzea eskatuko lukeen arren,

bide interesgarria izan liteke hizkuntza politika sendoei euskarria emateko.

- Hizkuntza politikak, betiere, ongi konektatuta egon beharko du herritarrek eta hiztunek izanen dituzten beharrekin, interesekin, emozioekin, motibazioekin. Horiek guztiak ez dira estankoak, mugiezinak eta itxiak; aldatu, bilakatu eta berritu egiten dira, eta horietatik urruntzen den hizkuntza politika koltxoirik gabe geldi liteke. Eta, halaber, izanen garenarekin zerikusia izan behar du, ez soilik izan ginenarekin.
- Gauzak ez dira duela 30 urte ziren bezalakoak, eta 30 urte barru ere ez dira izanen gaur diren bezalakoak. Are gehiago, baliteke azkeneko 30 urteotan gertatu den aldaketa handia are handiagoa izatea datozen hiru hamarkadotan. Sarritan alferrikako lana ematen du proiekzio sinesgarri bat egiten saiatzeak, baina argi samar ematen du teknologiak, esate baterako, bestelako agertoki batzuk ekarriko dizkigula. Baliteke, adibidez, erakunde publikoek, administrazioarekin ditugun harremanetan hizkuntza eskubideak bermatzeaz gainera, gure bizimodua inbadituko duten era guztietako gailu elektronikoekin eta adimen artifizialaz hornitutako askotariko makinekin euskaraz egiteko eskubidea ere bermatu behar izatea.

Zergatik eginen du euskaraz, hogei urte barru, euskaldunak? Zein izanen da euskaldunarentzat euskaraz egiteak, eta ez erdaraz, izanen duen zentzua?

Edo lan munduari dagokionez. Euskararen biziberritzean lan munduak eta arlo sozioekonomikoak izanen duen garrantziaz ari garenean, zein da gogoan dugun lan munduaren eta enpleguaren irudia? Gaur egun ezagutzen dugun hori, aldatzen ari den arren oraindik ere aurreko hamarkadetako agertokia islatzen duena? Edo 20-30 urte barru lan mundua izanen den hori, berarekin oso

bestelako ezaugarriak, aritzeko moduak eta harreman sareak ekar litzakeena? Lan mundua 'desglosatzen' saiatu gabe egin ote dezakegu fundamentuzko proiekziorik eta bide orririk? Benetan izan daiteke lan mundua euskalduntzea belaunaldi berri batzuk motibatuko dituen eta euskararen biziberritzearen jardunera ekarriko dituen erronka?

- Teknologiaren uholdeak arriskuak ekarriko dizkigu hizkuntza gutxituoi, baita aukera batzuk ere. Eta hor, irudika genitzakeen balizko agertoki horien lainoaren artean, galdera bat indartsu agertzen ari dela iruditzen zait: teknologiak lagundutako harreman linguistikoek aseko ote gaituzte? Teknologiaren bitartekaritzak hizkuntza elkarrekintza asko egingarri eta erraz bihurtuko dizkigu akaso, noiznahi eta nonahi norberaren hizkuntzan aritzeko aukera eta bermea eskainiz, adibidez; baina baliteke harreman linguistiko horien nolakotasuna ere sakon aldatzea eta, nolabait esateagatik, 'naturaltasuna' galtzea. Aseko gaitu horrek?
- Zergatik eginen du euskaraz, hogei urte barru, euskaldunak? Horretan ere pentsatu beharko dugu. Bestela pentsatzen eta argudiatzen ohituta gaude, alegia, «zergatik ez du(gu) euskaraz egiten?» da ohiko galdera, baina datozen hamarkadetan –baita gaur egun ere– galdera alda dezakegu. Gauzak dezente aldatu eta ongi joanez gero, espero genezake euskaldun kopuru esanguratsua izanen dugula hogei urte barru, eta, gainera, horiek bermatuta izanen dutela hainbat espaziotan euskaraz aritzeko aukera. Zergatik eginen dute euskaraz eta ez erdaraz? Gaur egun euskaldunok euskaraz egitera eramaten gaituzten arrazoiek eta bulkadek indarrean jarraituko dute, edo oso bestelakoak izanen dira? Zein izanen da euskaldunarentzat euskaraz egiteak, eta ez erdaraz, izanen duen zentzua? Motibazio zahar batzuk, guretzat balio handia zutenak, desagertu eginen dira eta beste berri batzuk sortu? Sortuko dira berez edo sorrarazi beharko dira nolabait?

- Uste dut euskararen biziberritzeak ezinbestean eskatzen duela, gaur egun eta epe motz-ertainean behintzat, euskal hiztunen kopuru esanguratsu bat hiztun kontzientea eta, hitza deseroso samarra egiten bazait ere, ahaldundua izatea. Euskaraz edo erdaraz egitea, denbora tarte luze samarrean akaso, erabaki eta hautu kontziente samarra izanen da egoera eta espazio askotan, eta inertziaren aurka hautu jakin bat egin beharko du euskaldunak sarritan. Jarrera kontziente baten heldulekua beharko du ziur asko, erdara gailenduko ez bazaio, batez ere euskaldun gehienen tipologia zein izanen den kontuan izanda. Eta are gehiago beharko du jarrera kontziente hori, euskara erabiltze hutsaz gainera, euskara biziberritzeko ahaleginean eragile aktibo izan behar badu. Gisa horretako euskal hiztunak beharko ditu euskarak, eta uste dut hizkuntza politikak, eta erakunde publikoek eginen duten hizkuntza politikaz ari naiz, hori ere bilatu behar duela eta horretarako bitartekoak jarri. Euskaltzale eta euskal hiztun kontzientea izatea ez da arautu edo behartu litekeen zerbait, noski, baina bai susta edo elika litekeena. Gizarteak berak sortzen du batez ere gogo eta kontzientzia hori –edo orain arte behintzat berak sortu du–, baina ez dut arrazoi sendorik ikusten erakundeen hizkuntza politika egiteko horretatik salbuesteko.
- Azkenik, eta bukatzeko, beste alderdi garrantzitsu bat: euskararekin gozatu beharra daukagu, euskarak satisfakzioa eman behar digu. Gauza interesgarriak egin behar ditugu euskaraz, gozamenerako eta ongi sentitzeko lurralde bat ere izan behar du, eta euskarazko kulturgintzak sekulako ekarpena egin dezake horretan, egiteko hori bete dezan beharrezko baliabideez hornituz gero.

Zenbaterainoko aukera dute tokiko erakundeek hizkuntza politika garatzeko?

Ione Josie Danjou
Urruñako euskara zerbitzuko arduraduna

Frantziak bere lurraldeko hizkuntzekin duen harreman uzkurra tradizio historiko luze baten ondorioa da, iraultzarekin azkartuz joan zena. Izan ere, Frantziaren ikuspegitik, hizkuntzak nazio eraikuntzarako funtzioa betetzen du, normatua, bateratua, komunikazio tresnatik harago doana, homogeneizatzailea, tresna identitario izan nahi duena. Zentzu horretan, batasuna da berdintasunaren oinarria. Hizkuntzaren eta kulturaren batasuna sustatu da, modu horretan hiritar guztiak berdinak bihurtzeko.

Horrela, ikuspegi juridikotik abiatuz, Frantziako Estatuak ez du ez hizkuntza komunitaterik ez hizkuntza talde gutxiturik aitortzen, ez dira aintzat hartzen modu kolektiboan balia daitezkeen eskubideak, ezagupen horrek 'hiritarren berdintasuna' urratuko lukeelakoan. Konkretuki, hizkuntza gutxituetako hiztunei hizkuntza eskubideak aitortzea Errepublikaren banaezintasunaren, berdintasun printzipioaren eta herri frantsesaren batasunaren aurkakoa da.

Erran daiteke, ondorioz, Ipar Euskal Herriko hizkuntza politika publikoaren egituraketa koadro horren baitan kokatu behar izan dela, 'alegaltasun', 'tolerantzia' eta 'legearen gris-ilunak' ahal bezainbat baliatuz aitzinatzeko: legeak

debekatzen ez duena gure hizkuntzen aldera egiteko balia daiteke, eta horrek aukerak irekitzen dizkigu. Erran nahi baita, frantsesa bada Errepublikaren hizkuntza ofizial bakarra eta derrigorrez baliatu behar dena, ez du ezerk debekatzen, bere ondoan, gainerako hizkuntza baten baliatzea. Irakurketa horretan oinarrituz egin ziren 2001ean herriko etxeetako lehen hizkuntza-normalizazio planak. Baina, horrek atzean dakarrena ere argi gelditzen da, euskara administrazio alorrean –batez ere, administrazio akta idatzietan– guztiz sinbolikoa gelditzen dela, ez duela ez derrigortasunik ez eskubiderik sortzen.

Hortaz, nire artikuluak hiru atal ukanen ditu: Ipar Euskal Herrian hizkuntza politikak duen koadroa, testuinguru horren baitan Euskal Hirigune Elkargoak eta herriko etxeek eraman dezaketen hizkuntza politika eta gaur egun pairatzen ditugun zailtasunei aurre egiteko atzeman zirrikituak.

Hizkuntza gutxituen 'ondare' izaera

Frantziako Konstituzioak frantsesa aitortzen du Errepublikaren hizkuntza ofizial bakar gisa, beraz. Artikulua nahiko berria da: 1992koa, hain zuzen ere. Berez ingelesaren kontra egiteko sortu bazen, errealitatean tokiko hizkuntzen kontra egiteko erabili da. Bestalde, legearen aurrean gizaki orok trataera berdina jaso behar duela agertzen bada, euskaldunak bermerik gabe uzten ditu berriz ere. Horrela gertatu zen 1999an, Hizkuntza Gutxituen Europako Ituna izenpetu ondoren berresteko oztopoak sortu zirelarik.

Konstituzioaren bigarren artikuluaren sorrerak segida logiko bat ukan du, frantsesa babesteko lege batean deklinatu baita, *Toubon legea* (1994) hain zuzen ere, zeinek frantsesaren erabilera derrigortzen duen hainbat eremutan: administrazioan, hedabideetan, zerbitzuetan, irakaskuntzan...

Hala eta guztiz ere, 2008an, Frantziako Konstituzioaren aldaketaren harira, «eskualdeko hizkuntzen» aipamena erantsi zitzaion 75.1 artikuluan, zeinak hauxe aitortzen baitu:

«Eskualdeko hizkuntzak Frantziaren ondarearen parte dira». Eskualdeko hizkuntzak «Frantziako ondaretzat» ere eransteak ez du eraginik ukan, konstituzioaren bigarren artikulua eta Toubon legea oraindik indarrean segitu baitute eta frantsesak Errepublikako hizkuntza bakarra izaten jarraitu baitu, bigarren artikuluak argi uzten duen bezala. Baina beste irakurketa bat ere egin daiteke, hizkuntza konstituzioan sartzeak botere publikoei funtsez aritzea galdetzen baitie. Haatik, artikuluak frantsesaren ondoan beste hizkuntza bat balia daitekeela onartzen du, betiere ez bada eskubiderik sortzen eta hautazkoa bada.

2015 arte itxaron beharko da eskualdeko hizkuntzen sustapena estatuko erronka gisa hartua izan dadin. Izan ere, *NOTRe legearen* 104. artikuluak «eskualdeko hizkuntzen sustapen» eskumena ofizial egiten du. Hortik goiti, herri, departamendu, eskualde eta elkargoen arteko eskumen partekatua da hizkuntzen sustapena. Bakoitzak rol bat baduela onartzen da.

Azkenik, 2021eko Hizkuntzen Ondarea Babesteari eta Sustatzeari Buruzko Legeak, *Molac legea* deitua, eztabaida handiak piztu ditu, batez ere murgiltze bidezko irakaskuntzaren inguruan. 47 diputatu izan ziren alde eta 76 kontra, baina 60 bat diputatuk helegitea ezarri zuten Konstituzio Kontseiluan. Murgiltze eredua arautzen duen artikuluak suposatzen du hezkuntza publikoan ere ikasleek %100ean eskualdeko hizkuntzan ikasi ahal izanen dutela. Konstituzioaren bigarren artikuluak oraindik eragin handia du: adibidez, Molac legearen 9. artikulua atzera bota da. Artikulu horrek estatu zibileko dokumentuetan zeinu diakritikoen erabilera arautzen du, 'ñ' hizkia, esate baterako. Kontseiluaren arabera, legearen artikulu hori Konstituzioaren bigarren artikuluaren aurkakoa da.

Hala eta guztiz ere, derrigortasunik ez ezartzeak ez du debekurik ezartzen, eta gaur egun indarrean den lege koadroak hainbat neurri hartzeko aukera uzten du.

Hizkuntza politika publikoaren egituraketa: hiztun osoak sortu eta euskara plazara eraman

Hizkuntza politika publikoaren lehen urratsak: *hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun*

1960ko hamarkadatik goiti, gizarte zibilaren lanari esker, urrats garrantzitsuak eman ziren Ipar Euskal Herrian, egitasmo berritzaile eta egituratuak sortuz. Erran behar da, 1990eko eta 2000ko hamarkadetan, botere publikoak pixkanaka beren ardurak hartzen hasi zirela, hizkuntza politika publikoa landuz eta bozkatuz. Euskararen Erakunde Publikoa (EEP) lehenik, Euskal Hirigune Elkargoa ondotik.

2000. urtean, Euskal Herriko 2001-2006 Hitzarmen Berezia sinatu zuten Frantziako Estatuak, Akitaniako eskualdeak eta Pirinio Atlantikoetako departamenduak. Euskalgintzaren alorrean ekintza publikoa egituratzeko bidean lehen urratsa eginez, Hizkuntza Politikarako Obragintza Publikoa eta euskarari dedikatu atala sortu ziren.

1990eko eta 2000ko hamarkadetan, botere publikoak pixkanaka beren ardurak hartzen hasi ziren, hizkuntza politika publikoa landuz eta bozkatuz. EEP lehenik, Euskal Hirigune Elkargoa ondotik

2004an, Hizkuntza Kontseilua egituraren desegitearen ondoren, Frantziako Estatuak EEP sortu zuen. Zuzenbide publikoko tresna bat da, eta euskararen aldeko politika publikoa definitzeko eta obratzeko ardura du. 2006an, bere hizkuntza-politika egitasmoa sortzen du, euskararen aldeko politika publikoaren oinarriak ezarriz. Bere kide ditu estatua (hezkuntza nazionala), departamendua, eskualdea eta tokiko hautetsien ordezkariak (gaur egun, Elkargoa).

EEPren hizkuntza politikaren helburu nagusia hiztun osoak sortzen da, belaunaldi gazteei lehentasuna emanez. Hizkuntza politika horrek bi oinarri ditu: hautu librea eta lege

eta araudien errespetua. Berriz ere, hautu libreak gidatzen du Ipar Euskal Herrian kudeatzen den hizkuntza politika. Irakaskuntza du, beraz, lehentasunetan: hots, gela elebidunen eta murgiltzearen hedapena. Kari horretara, estatuaren ordezkari den hezkuntza nazionalarekin klaseen irekitzea negoziatzen du, adibidez. Behatoki funtzioa ere betetzen du, eta eragile pribatuen diruztapena.

Ondoko urteetan, tokiko erakundeek EEPrekin partaidetzan, tokiko hizkuntza politika obratzen hasi ziren, bizitza eremuka. Euskal Hirigune Elkargoa hamar herri elkargoren elkartzetik sortu da (Hego Lapurdi, Errobi, Hazparne, Errobi-Aturri, Euskal Kosta-Aturri, Garazi-Baigorri, Iholdi-Oztibarre, Amikuze, Bidaxune eta Zuberoa). Hamar horien artean, zortzik euskara zerbitzua zuten: Hego Lapurdi, Errobi, Hazparne, Zuberoa, Errobi-Aturri, Garazi-Baigorri/Amikuze/Iholdi-Oztibarre (hiruren artean teknikari bakarra). Orotara, hamalau teknikarik osatzen dute gaur hizkuntza politikaren zuzendaritza.

Horiez gain, hiru herri gotorretan (Miarritze, Baiona, Hendaia) euskara zerbitzu propioak garatu ziren. 2017an, Elkargoak herri elkargo horiek batu ditu, baita horietan ziren euskara zerbitzuak ere, Hizkuntza Politika Zuzendaritza sortuz eta herrietako euskara zerbitzuen sorrera bultzatuz.

Euskal Hirigune Elkargoaren hizkuntza politika: *Euskara jalgi hadi plazara*

Euskal Hirigune Elkargoak herriez eta herrien arteko elkargoez osatzen den herri blokearen eskumenetan oinarritzen zen hizkuntza politika propioa zehaztu zuen, bere eskumenen araberako hizkuntza politika definituz; EEPk, aldiz, estatu, departamendu eta eskualdearekin zituen politika partekatuetan eragiteko engaiamendua hartu zuen, bereziki irakaskuntzaren egituratze eta garatzea harturik bere gain, Frantziako hezkuntza nazionalarekiko harremana, adibidez, eta baita eragile pribatuei laguntza ematea eta bizi sozialean eragitea ere.

Elkargoaren hizkuntza politikak, ekimenen koherentzia eta eraginkortasuna bermatzearren, osagarritasunean aritzen dira.

2017ko otsailaren 4an, sortu orduko, Elkargoak euskararen aldeko eskumena hartu zuen. Herriez eta herrien arteko elkargoez osatzen den herri blokearen eskumenetan oinarritu hizkuntza politika propioa zehaztu eta obratzeko engaiamendua hartu zuen. Bi helburu finkatu zituen: biztanleenganako zerbitzuetan eskaintza elebiduna egituratzea eta biztanleei begirako sentiberatze ekintzak antolatzea.

2018ko ekainaren 23an, aitortzen du euskara eta okzitaniera Elkargoko lurralde eremuan ofizialki existitzen direla frantsesaren ondoan. Beraz, euskarari zein gaskoiari izaera ofizialik onartu ez, baina ezagupen ofizial bat eman zaie, juridikoki eraginik eduki ez arren, balio sinboliko handikoa: Elkargoak euskararen aldeko hizkuntza politika ausarta eramateko duen borondatea berresten eta sendotzen du eta hizkuntza arloan garatu beharreko lanari babes politiko zabala eskaintzen dio. *Euskara jalgi hadi plazara* hizkuntza-politika egitasmoa bozkatzen da momentu berean. Elkargoak, beraz, ofizialki, tokiko hizkuntzen eskumena hartu ondoren, estatus bat eskaintzen die eta euskararentzako hizkuntza politika egitasmo bat definitzen du, zeharkako politika izanen dela azpimarratuz. Gaskoiaren hizkuntza- eta kultur-politika egitasmoa 2019ko martxoaren 16an bozkatu zen.

Helburuei begira, EEPren ildo beretik jo dute Elkargoko hizkuntza politikan ere, hiztun osoak lortzeko ahaleginean eta euskara arlo guztietan zehar-lerro gisa integratzeko ikuspegian.

Elkargoak anbizio handiko hizkuntza politika definitu eta gauzatu nahi du, bakoitzaren hautu librea bermatuz eta lege oinarriaren errespetuan. Hiztun osoak sortzeko beharrezkoak diren baldintzak antolatu nahi ditu: gizartearen atxikimendua, euskara transmititzeko eta erabiltzeko aukerak.

Elkargoak onartu hizkuntza-politika egitasmoak bi helburu (zerbitzuen egituratzea, sentiberatzea) eta 21 eremu definitu ditu transmisioaren, erabileraren eta sustengu eta zeharkako funtzioen inguruan.

Transmisioaren eremua funtsezkoa da, hiztun berriak sortu nahi badira. Horrez gain, ezinbestekoa da orobat 0-6 urte bitarteko haurren harrera lekuetan euskarazko eskaintza garatzea, familia transmisioak behera egiten duenean. Familia anitzentzako, euskararekin duten lehen harremana da. Bestalde, haur eta gazteek euskara eskolan ikasteaz gain, erabilera murritza gelditzen da. Horretarako, aisialdi jarduerak euskaraz eskaintzea baitezpadakoa da (euskararekin duten harremana luzatzeko eta hizkuntzaz duten irudia aldatzeko). Ondorioz, euskararen transmisioan eragin dezaketen bi dispositibo sortu dira: lehen haurtzaroan euskarazko harrera garatzeko LEHA ziurtagiria eta aisialdi guneetan euskarazko harrera bermatzeko Euskaraz Josta dispositiboa. Biek, tokiko praktiketatik abiatuz, eredu eta kargu kaiera desberdinak proposatzen dituzte.

Erabilpenaren multzoan, euskararen erabilpenaren garapenean eragin dezaketen hamabi eremu definitu dira: kultura, mugikortasuna, jendearenganako zerbitzuak, ura, hondakinak, antolamendua, trantsizio energetiko eta ekologikoa, garapen ekonomikoa, turismoa, goi mailako irakaskuntza, herriak eta sindikatuak eta herri arteko erakundeak. Eta, azkenik, sostengu eta zeharkako funtzioen baitan, zehar-lerrokoak diren bost eremu finkatu dira: formakuntza profesionala, itzulpengintza, informazio eta sentsibilizazio estrategia, ebaluaketa dispositiboa eta mugaz gaindiko lankidetza.

Elkargoak, herriko etxeei begira, hiru mailatako laguntza eskaintzen du, euskararen alde egiteko urratsen anbizio mailaren arabera: gutxienik, urtero itzulpenerako 500 euroko laguntza bat. Anbizio handiagoa duten herriko etxeentzat, hobekuntza kontratua deitu dispositiboa: hots, herriko etxe eta herrien arteko sindikatuak laguntzea eskaintza elebiduna gara dezaten herritarrei zuzenduriko zerbitzuetan, zerbitzu estrategikoak lehenetsiz, molde elebidunean eta autonomoan lan egitea lortu arte. Horretarako zerbitzu batzuk lehenesten dira, eta, beharrezkoa bada, urte anitzetako formakuntza plan bat proposatzen da. 2022an, 25 herriko

etxek desmartxarekin bat egin zuten. Maila gorena, seguruenik ere, euskara zerbitzuen sortzeko laguntza da, funtsean, herri nagusietan behintzat, hizkuntza politikaren garatzeko molde eraginkorrena. 2000ko hamarkadatik hona, euskara zerbitzuen sortzeko nahiak bere bidea egin du. Baina, herriko etxeetan, teknikariek eta zerbitzuek dituzten erronkak ez dira homogeneoak. Lanpostu horien zereginak zein diren ez dago guztiontzat argi, eta, batzuetan, kultura, elkarte bizitza... gerlari ohien gaiekin (bai, bai) nahasirik doaz. Euskara teknikariaren funtzioaz lan pedagogiko anitz egitekoa litzateke oraindik, 'itzultzaile' eta 'kultur eragile' profiletatik urrunduz.

Elkargoak, konkretuki, 10.000 biztanletik gorako herrietan, hots, zerbitzu anitz dituzten herrietan, aterabide egoki eta eraginkorrena zerbitzu propioa garatzea dela aurreratzen du. Hortaz, gaur egun, tamaina horretako herrietan, euskara zerbitzuen sortzeko diru laguntza bat eskaintzen da. Erran behar da, Ipar Euskal Herrian, 10.000 biztanletik gorako sei herri direla: Baiona, Miarritze, Angelu, Donibane Lohizune, Urruña eta Hendaia: Angeluk salbu, beste bostek zerbitzua sortu dute. Zerbitzuen sorrerarako hitzarmenaren baitan, Elkargoak definitu bi helburu nagusiak atzeman daitezke, hau da, herriko etxeen zerbitzuetan euskarazko eskaintza egituratzea eta herritarren sentiberatzeko dinamikak. Izan ere, herriko etxeek euskarazko zerbitzuen proposatzeko indarra egiten badute, baina herritarrek ez badituzte baliatzen, hartu engaiamenduak zentzua galtzen du. Horrenbestez, hizkuntza politika eraginkorra izan dadin, beharrezkoa da gizarte zibilaren babesa eta presioa.

Herriek beren hizkuntza politika egitasmoak definitzen dituzte; elkarlanean dispositibo batzuk kudeatzen badira ere, bakoitzak bere hautetsiak ditu, bakoitzak bere tokiko errealitatea du, eta horien araberako hizkuntza politikak garatu behar ditu, Elkargoak finkatu helburu nagusiekin bat eginez.

Herriko etxeei begirako lana aspaldikoa da, euskalgintzak bideratua; erakunde publikoen sorrera aitzin, jada

kontzientzia hartze bat bazela erran daiteke. Lehen tresnak ahal bezala sortu ziren, eta lehen oinarriak pausatu. Herri elkargoetan ere baziren euskara zerbitzuak, beraz, elkarlanean ari zirenak. Baina ez guztietan: eremu nagusiko herri elkargoan (Euskal Kosta-Aturri, adibidez, hots, Baiona, Angelu eta Miarritze eremukoa) ez zen halakorik. Horrek bere garrantzia du, Elkargo barnean lan egiteko diren zailtasunak agerian uzteko.

Elkargoa sortu denean, zerbitzu guziak batu eta berrantolatu dira. Euskararekin atxikimendua zuten herri elkargoak, edo atxikimendurik gabekoak. Euskara zerbitzuak zituztenak, edo ez zituztenak. Ordutik, barneari begira lan egiteak denbora hartzen du, zerbitzu batzuetan erraz, beste batzuetan zailago. 1.000 langile baino gehiagoko egitura bat, leku anitzetatik lanean ari dena, hierarkia eta prozedura pisuak, eta errotik sortzekoa... Eleetatik ekintzetara pasatzea ez da beti erraz... Horrez gain, euskara zehar-lerrokoa den politika bat izanik ere, Elkargoan zuzendaritzek tematikoki lan egiten dute, bakoitzak bere eremuan, beraz. 1.000 langile baino gehiago dituen egitura horretan, lankideak eta zerbitzuburuak sentiberatzea baitezpadakoa da. Horretarako, barne lanketa bat egiten da; adibidez, langile berri orori, postuan sartu aitzin, euskararekin sentiberatzeko tailer bat eskaintzen zaio.

Herriko etxeei begirako lana aspaldikoa da, euskalgintzak bideratua; erakunde publikoen sorrera aitzin, jada kontzientzia hartze bat bazela erran daiteke. Lehen tresnak ahal bezala sortu ziren, eta lehen oinarriak pausatu

Herritarrei begirako sentiberatzearen alorrean, bi ekitaldi nagusitan parte hartzen du Elkargoak, bi urteroko aldizkatze batekin: Euskaraldia eta Euskararen Urtaroa.

Ororen buru, hizkuntza politiken zuzendaritzak eramaten duen lana sentiberatzetik pasatzen da. Hautetsiak, lehenik,

euskararen aldeko urratsa eman dezaten konbentzitu behar dira; gainerako zerbitzuburuak, ondotik, euskarak bere tokia duela, lantaldea 'sinesgarria eta profesionala' dela frogatzearen etengabeko beharra, lorpenaren kezka; langileak, azkenik, hainbat urtetako ikasprozesu batean sar daitezen eta iraun dezaten. Sentiberatu behar dira herritarrak ere, gurasoek euskararen hautua egin dezaten eskola bat aukeratzeko momentuan, helduek ikas dezaten; kanpotik etorritakoak, integratzeko onurak dituela erakusteko eta 'folklore' batetik ateratzeko; bertako konplexuz beteak, «ez da euskara on edo txarrik», erabilerara pasatzeko urratsa eman dezaten eta egitura publikoek plantan ezartzen dituzten ekintzak babes ditzaten... Horrenbestez, sentiberatzea zer den ere definitzeko beharra ikusi zen, bakoitzak bere ikuspegia baitu.

Herriko etxeak eta euskara

Bi egitura publiko nagusi horien sorrera aitzin, herrietatik etorri ziren lehen urratsak. Aipagarriena, UEMA eta Euskal Konfederazioaren partaidetzaren bidez, herriko etxeetan osatu lehen 'hizkuntza-normalizazio planak'. 2001-2006 bitartean, 42 herriko etxetan diagnostikoak egin eta lau urteko planak proposatu ziren. Tamaina guzietako herriak teknikoki lagundu ziren, Ibarlatik Hendaiara, Mauletik Uztaritzera. UEMAk Ipar Euskal Herriko lehen teknikaria formatu zuen, erakundeak baliatu tresnak egokitu ziren. Tresnak esperimentatu eta egokitu behar izan ziren tokiko behar eta kezketara, legean zirrikituak atzemateko. Lehen lexiko administratiboa sortu zen, lehen Herriko Etxe Euskaldunen Egunak ospatu ziren, lehen teknikari sarea sortu zen, lehen jarraipen batzordeak, hautetsien lehen seminario eta mintegiak...

Haatik, hautetsien jarrera aldatzen hasi bazen ere, ordutik erran daiteke euskararen kontra agertzea ez dela 'politikoki zuzena'. Hala ere, garai hartan, 42 herriko etxek engaiamendu publikoa hartu zuten, lehen neurriak plantan ezarri zituzten,

eta Hendaiak bere euskara zerbitzua sortu zuen. Hogei urte beranduago, sei herrik euskara zerbitzua sortu dute –Hendaia (2005), Baiona (2006), Miarritze (2015), Donibane Lohizune eta Sara (2021), Urruña (2022)–, eta hogei bat herriko etxek Elkargoak proposatu hobekuntza kontratua izenpetu dute. Gaur egun, berrogei bat langilek euskara ikasten dute, eta formakuntza ereduak egokitu eta profesionalizatu dira. Astean hiru oren klase egitetik, sei hilabeteko murgiltzea eskaintzen zaie langileei, AEKrekin.

Elkargoak herriei proposatu dispositiboez gain, azken urte hauetan, zenbait herriko etxe hizkuntza-politika propioa garatzen hasi dira, Elkargoak proposatu laguntzarekin osagarria: erabaki bidez, esperimentazio bidez edota ekintza bidez.

2014ko ekainaren 26an, Uztaritzeko herriko etxeko herriko kontseilu berriak «euskara herriko hizkuntza ofizialtzat izendatu zuen, frantsesaren hein berean», 22 botorekin. Pentsa zitekeen bezala, Baionako suprefetak, aldiz, erabakia «antikonstituzionala» zela adierazi zuen berehala, frantsesa baita, konstituzioaren arabera, estatuko hizkuntza ofizial bakarra, eta Uztaritzeko herriaren deliberoa auzitegi administratibora eraman zuen. Paueko Auzitegi Administratiboak erabakia ezeztatu zuen 2015eko urtarrilaren 26an. Orduan, zerk esplika lezake 2014ko Uztaritzeko deliberoa ezeztatua izatea eta, aldiz, Elkargoak bere lurraldean euskarari estatus ofizial bat ematearen aldekoa onartu izana, garai aldaketak salbu? Gakoa formulazioan atzeman daiteke. Elkargoak ez du «euskara ofizialtzat» aitortzen; aitzitik, hauxe aitortzen du: «Elkargoko lurralde eremuan ofizialki existitzen dira». Ñabardura horrek desberdintasun osoa egin du. Berriz ere, lege irakurketarekin topo egiten dugu.

Itsasuko herriko etxeko engaiamenduetariko bat Europako Hizkuntza Gutxituen Tokiko Ituna izenpetzea izan da. Europako Kontseiluak 1992ko azaroaren 5ean onartu Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunean oinarritzen da, hain zuzen ere. Frantziak 1999an izenpetu bazuen ere, ez zuen berretsi.

Helburua honakoa da: Europako gutunaren printzipioetan eta arkitekturan bermatuz, tokiko elkargoek beren hizkuntza politikak obratzea. Aurrekariak izan ziren: Alsazia-Lorrena--Champagne-Ardenne eskualdeak, Alsaziako Rhin Garaia eta Rhin Beherea departamenduek eta herri zenbaitek ere, hala nola Estrasburgok, Mulhousek eta beste frankok, 2014-2015 urteetan tokiko ituna izenpetu zuten. Europako hizkuntza gutxituen gutuna onartu edo berretsi ez duten Europako estatuen ukoari izkin egiteko manera da ituna. Europako Kontseiluak oinarrizko dokumentu bat eskaintzen du tokiko erakundeentzat, indarra zer esparrutan egin beharko litzatekeen definituta. 49 engaiamendu proposatzen ditu orotara, eta erakunde izenpetzaileak 35 hautatu behar ditu gutxienez. Europatik jarraipena egiten dute, epeak finkatzen dituzte, eta bi urtero ebaluazio bat proposatzen dute. Baina 'lekuko' izaera duela zehaztu behar da.

Ez da hizkuntza planifikaziorako tresna bat, baina bide orri bat markatzen du, eta, herrien sare horren bidez, indar harreman bat sortzeko aukera ematen du.

Ipar Euskal Herriko 50 bat herrik Europako Hizkuntza Gutxituen Tokiko Ituna izenpetu dute, beraz. Bakoitza bere herrian euskara biziarazteko neurriak hartzera engaiatu da, Europako Kontseiluaren babespean. Euskararen alde orain arte egiten zena eguneratzeko manera da, ituna izenpetzeak ofizialtasun bat ematen dio hizkuntzari. Izan ere, 2020ko herriko hauteskundeetan Itsasun aurkeztu zen zerrenda ezkertiar eta abertzalearen proposamena izan zen Europako hizkuntza gutxituen tokiko ituna izenpetzearena. Herriko etxeek beren kabuz iniziatibak hartuak zituzten: Hendaiak Kontseiluaren

> Politika eraginkor bat plantan ematea zaila gelditzen da, frantsesak derrigor segitzen baitu legeetan, konstituzioan, epai erabakietan, ondoan beste hizkuntzak erabiltzen ahal direla argi eta garbi adierazi gabe

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa izenpetu zuen, adibidez; Baionak eta Miarritzek euskara zerbitzuak zituzten; Elkargoak hobekuntza kontratuak proposatzen zituen... Baina ez zen euskararen inguruan herriko etxeen saretzerik.

Hendaia, Uharte eta Arrigorriagako auzapezek protokoloa izenpetu zuten 2021eko apirilaren 14an. Herri pilotu gisa agertu dira, hots, protokoloaren baliagarritasuna aztertu eta beste herriko etxeek izenpetu dezaten irizpideak definitzea zen helburua.

Udal eta herriko etxeetarako garapena oinarri harturik, diagnostiko bat osatu da hautetsi, teknikari eta euskalgintzako eragileekin batera. Ondotik, diagnostikoa oinarritzat hartuz, hizkuntza politikarako lerro nagusiak definitu dira.

Hendaiak sortu zuen bere lehen euskara zerbitzua, Miarritzek eta Baionak ondotik, eta berriki Sarak, Donibane Lohizunek eta Urruñak. Aurrerapauso handia bada ere, euskara teknikariaren figura nahiko berria eta zehaztugabea gelditzen da. Zein da teknikari baten misioa? Eta berekin ari den hautetsiaren estatusa? Hierarkian duen posizionamendua? Lan kontratu mota? Aitzinkontua?

Ondorioak

Lege babes ezak egoera hauskor eta kontraesankorrak sortzen ditu

Jakina da Frantziako legediak frantsesaren esklusibotasuna babesten duela. Molde 'alegal' batean egiten zen hizkuntza politika, hartu neurriak 'tolerantziaren' gainean oinarritzen ziren; gaur egun, hizkuntza gutxituen aipamena konstituzioan ondare gisa legez sartu bada ere, politika eraginkor bat plantan ematea zaila gelditzen da, frantsesak derrigor segitzen baitu legeetan, konstituzioan, epai erabakietan, ondoan beste hizkuntzak erabiltzen ahal direla argi eta garbi adierazi gabe.

Izan ere, lege babesik ezean tolerantziaren eremuan egoteak, zehaztapen falta horrek euskararen kontra jokatzen

du; plantan ezarri neurri baten kontra auzitegira joz geroz, epaileek frantsesaren derrigortasuna babesten dute. 'Lausotasun egoera' batean neurriak hartzeak zailtasunak ekar ditzake horiek gauzatzeko unean.

Lege eta estatus ezak, derrigortasunik sortzen ez duen heinean, borondatean oinarritu hizkuntza politika finkatzen du. Hortaz, hauskorra da, borondaterik ez den egunean ez delako hizkuntza politikarik, ez daiteke egonkorra izan. Elkargoak euskara bere muinean sartzen badu ere, oztopoak saihestu behar dira eta Eñaut, Beñat edo Aña deitzea debekatzen da. Lege gabeziak oztopoak sortzen baditu ere, ez dira saihetsezinak. Ipar Euskal Herrian, betidanik, bideak asmatu dira aitzinera jotzeko.

Lurraldean, euskararekiko engaiamenduak hartu dituzten herriak begiratuz gero, ohar daiteke bide luze bat eman dela. 2001ean lehen erabilera planak egin ziren Ipar Euskal Herriko herriko etxeen %27an. 2022an, Elkargoak, bere dispositibo desberdinen bidez, Ipar Euskal Herriko herrien %58rekin lan egiten du.

Hizkuntza politika aurrera eramateko bideak asmatu

Gizartean 'pedagogia lana' garrantzitsua da. Elkargoaren eta herrien hizkuntza politikaren ardatz nagusietariko bat sentiberatzea da. Instituzio publikoek, euskaraz komunikatzeaz gain, euskararen gaia frantses hiztunengan kokatzea ere garrantzitsua da: elkar ulertze logika batean, hizkuntza guztiek balio berdina dutela, ez dela gaur egun hizkuntza bat hor bestea ordezkatzeko, euskarak behar duela frantsesaren hein berdinean izan...

Sentiberatze ekintzak ugariak dira. Elkargoak berak bere lurralde mailako gertakariak garatzen ditu (Kalakaño, Euskararen Urtaroa, helduen alfabetatze kanpaina), Euskaraldian ere parte hartzen du. Baina herriek ere beren gertakari propioak antolatzen dituzte: Hendaia Euskaraz, Euskaraz Bizi Hiriburun, UztaHitzan, Mintzalasai...

Legeak babesik eta derrigortasunik ez duenez finkatzen, dispositiboen bidez egiten da: hobekuntza kontratuak herriko etxeentzat, LEHA haurtzaindegientzat, Euskaraz Josta aisialdi guneentzat eta barne uztartze eskemak Elkargoko zerbitzuentzat.

Euskal Hirigune Elkargoaren, herriko etxeen eta Euskararen Erakunde Publikoaren erronka, gaur egun, euskarak duen babes eskas horren baitan hizkuntza politika eraginkor bat plantan ezartzea da. Egoera eta onarpena anitzez hobetu bada ere, hauskorra gelditzen da. Hiztun berriak sortzeko premia baldin bada, transmisioaren ondoan, erabileran eragiteko kezka agertu da. Euskara eskolatik plazara ekarriz; jakitetik erabiltzera.

EGUNEN GURPILEAN

113 Kultura
EAEko Hezkuntza Lege aurreproiektuaren zirriborroari begira
Laguntasunari gorazarre
Maialen Akizu Bidegain

120 Glokalia
Alarma eta itxaropena
Ezin diogu itxaropenari itxaron
Zer dio isiltzen denak isiltzen denean?
Klima-aldaketa sintoma da, gaixotasuna kapitalismoa
Joanes Igeregi Santamaria

127 Historia
Oroimentsuak
Cira Crespo

Maialen Akizu Bidegain

EAEko Hezkuntza Lege aurreproiektuaren zirriborroari begira

2022an Euskal Autonomia Erkidegoan Hezkuntza Lege aurreproiektuaren zirriborroa onartu zuen Eusko Jaurlaritza osatzen duen gehiengo politikoak. Ordutik, nahikoa iskanbila sortu da hezkuntza komunitatearen eta eragile ezberdinen artean. Matrikulazioaren garaian ari naiz lerro hauek idazten, eta lauso bezain narras egindako proposamena herri bat baino gehiagotan izan da eztabaida iturri. Ikastetxeen publikotasun asmoa, Zaurgarritasun Indizea eta ikasleen orekatzea izan dira harrabots handiena sortu duten gaiak; baina, hizkuntzei ematen zaien trataera eta konkretuki euskara eta euskal kulturaren gabezia ere jo puntuan jarri dira.

Euskal Kultur Transmisioa lantaldea kezkari forma eta norabidea ematen ari da. *Sormenean hezi, kulturan bizi* jardunaldiak antolatu dituzte han-hemenka, eta Hezkuntza Lege aurreproiektuaren zirriborroaren irakurketa kritikoa egin eta atxikimenduak lortzen ari dira *Kulturgintzan.eus* webgunean. Besteak beste, bermatzen dute aurreproiektuaren zirriborroan ez dela euskal kultura zehar-lerro, kultur hezkuntza edota hezkuntza artistikoa ez direla funtsezko adar eta jakingai edo, testuinguru eta kokapen orokorra egiten denean, ez dagoela euskararen eta bere kulturaren egoera diglosikoaren inguruko aipurik.

Aurreproiektua bera irakurtzeko parada izan dut –literatura purua–, eta zer falta zer sobra dagoen baino, zer nola esaten den behatzea iruditzen zait esanguratsuagoa. Aurreproiektua diskurtso bat delako, hezkuntza formalaren eratzaile eta oinarri izan nahi duen diskurtso adostu bat.

2022ko ekainaren 30ean onartutako lege aurreproiektuak 70 orrialde ditu. Hasieran «zioen azalpena» deituriko atal bat du, eta, ondoren, sei titulu, bakoitza kapitulu eta ataletan banatua. Amaieran, hiru xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor eta xedapen indargabetzaile bat. Azken xedapenekin bukatzen da dokumentua, eta bertan azaltzen dira legearen arau garapena eta indarrean jartzea. Ez nator eremu juridikotik, eta, beraz, formak eta gako teknikoak beste batentzat.

Lege aurreproiektuaren zioen azalpena «anbizio kolektiboa» aipatuz hasten da. *Anbizio* hitza ez da gainerako testuan azaltzen, baina, kolektiboari erreferentzia egiten dion terminoa da berori. Alabaina, aurreproiektuaren hasieran aipatzen da hezkuntza eraldatzailea «ikasleak protagonistatzat» hartzen dituena dela, «pertsonak eta ez automatak» eratu behar direla, «gizarte-kohesioan eta bikaintasunean» oinarrituta. *Zaurgarritasuna* ere aipatzen da, «krisi-garai hauetan [...] norberaren eta besteen zaurgarritasunaren arteko lotura» zaindu eta partekatzearen beharrezkotasuna, edo *ziurgabetasuna*, larrialdi klimatikoa, migrazio mugimenduak eta iraultza teknologikoa medio.

Iratxe Retolazak *Berria* egunkarian Julen Aperribaik egindako elkarrizketa batean aipatzen du ziurgabetasuna ez dela kulturarekin aipatzen, non eta Euskal Herriko testuinguruan hizkuntza eta kultura gutxituak ditugunean eta horrekiko kezka sozial bat dagoenean. Bitxia da aurreproiektuak zeri deitzen dion *larrialdi*, zeri *mugimendu* eta zeri *iraultza*: larrialdia da klimatikoa, mugimendua da migrazioarena, eta iraultza da teknologikoa. Teknologiek «espazio berriak» sortzen dituzte, eta horretarako «kualifikazio handiko irakasleak» behar dira. Kualifikazio handia, berariaz, teknologiarako soilik behar dela aipatzen da; ez inklusiorako, ez hizkuntza lantzeko, are gutxiago kultura transmititzeko.

Hezkuntza aurreproiektuak hiru balio azpimarratzen ditu: izatea, jakintza eta elkarbizitza.

Izatea «nortasun-esperientziarekin» lotzen da: «hezkuntza-sistema osoaren helburua da pertsonek beren kabuz

pentsatzea, norberaren ezaugarriak lantzea eta bereziki autonomia eta erantzukizuna lantzea, [...], norberaren ahaleginaren kultura suspertzea». Izatea garatzeak balio eta bizikidetzan trebatzea dakarrela dio, besteekin harremanetan jartzea, kolektiboaren parte izatea beharrezkoa dela, baina trebatu beharreko zerbait da hori ere. Izateak edo «identitate irekiak» globalizazioari heldu eta norberatasuna mantentzen dutenak omen.

Jakintza. Zer da jakintza? Zertarako da jakintza? Zertarako jakintza? Aurreproiektuaren arabera, «hezkuntza-sistemak beren kabuz pentsatzen duten pertsonak prestatu nahi ditu». Horretarako, bost pauso proposatzen dira: (1) irakasleek ezagutzarekiko estimua eta gogogabetasuna sustatzea; (2) ezagutzaren eta «teknologia aurreratuen gizartean» informazioaz gaindiko jakintza hedatzea; (3) harridura sortzea, eta ikasleak irakaskuntzaren protagonista bihurtzea; (4) galderak erantzutea «erabilera instrumentala» izanez, eta teknologiaren arriskuez ohartaraztea; (5) Europako Batasunaren digitalizazio eta Adimen Artifizialaren estrategia eta politiketan kokatzea.

Jakintzaren puntu horretan aipatzen da *transmisioa*. Jakituria «areagotu eta zabaldu» egin behar da, eta hori da transmisioaren funtsa: aurreko belaunaldiak gainditzea, behin eta berriz aipatzen baita eurek bizi ez zuten errealitate baten aurrean gaudela eta «aurrekoan baino pluralagoa den gizarteetan bizitzeko gaitasuna» behar dugula.

Elkarbizitza balioetan garrantzitsuena dela aipatzen du testuak. Hiru puntutan xehetzen da elkarbizitza: (a) ikastetxeko pertsona desberdinekiko esperientzia eta errespetua; (b) natur zaintzarekiko erantzukizuna; (c) hizkuntzen artean, euskarari arreta berezia eskainiko zaio, eta, atzerriko hizkuntzetan, bereziki ingelesean, erabilera sustatu behar da. Hemen ere zer nola esaten dugun: euskarari, arreta *berezia*; ingelesari, erabilera *merezia*.

Mundu global eta kulturaniztuna sarritan aipatzen du hezkuntzaren diskurtsoak, eta, segidan, «euskararen erabilera aktiboarekin konprometitzeko, euskal kultura ezagutzeko eta hura garatzen eta eguneratzen laguntzeko» beharra.

Euskararekin lotuta, «konpromisoa», «ezagutza» eta «laguntza». Euskararen eguneratzeko eta garatzeko premia hainbatetan azpimarratzen da.

Aurreproiektua irakurtzen ari naizela, arreta deitu dit *gizarte* terminoaren agerpenak. Ibai Iztuetari irakurria da euskaratik pentsatuta *gizartea* eta *herria* oso bestelakoak direla, eta kulturaren azterketan funtsezkoa dela, gizartearen edo herriaren ideiaren gainean, nondik ari garen jabetzea. Kontatu egin ditut: *gizarte* kontzeptua hirurogei aldiz azaltzen da; *herri*, aldiz, hamalau bidez. Eta adierazgarria da bakoitzak zeri egiten dion men: *gizarte* terminoari eskutik heltzen diote kohesioak, erronkak, parte hartzeak, aurrerapenak, demokratikoak, aktiboak. *Herri* terminoa herrialdeei erreferentzia egiteko erabiltzen da (hezkuntzan emaitza onak dituzten herrialdeekin baita homologagarria hezkuntza proiektua), edo herritasun aktiboarekin, edo herritarren hezkuntza premiekin.

Iztuetak euskal herritar terminoa hobesten du, hizkuntzaren erabilera eta herritartasuna batera ulertzen dituelako. Oinarri horretatik, baina, herri ikuspegiari bakarrik heldu eta gizartearen parte garela ahazteak Euskal Herria bezalako lurralde batean nahasten diren ibilbide eta esperientzia ugari kontuan ez hartzea dakar; kontrara, gizarte ikuspegian kokatu eta herriarena baztertuz gero, euskara eta euskarazko adierazpenak hiritarren arazo edo hautu indibidual izatera lerratzen dira. Hargatik proposatzen du jatorri ezberdinekiko aitortza eta horiekiko kudeaketa gizartearen klabeetatik egitea, eta, integrazioa euskararen ezagutzaren unibertsalizazioarekin berdintzea.

Izan ere, Iztuetaren iritziz, auzitan dagoena ez da euskal hiztun izateko gogoa soilik, euskal herritar izatekoa baizik. Horiek horrela, zertan datza euskalduntasunak edo zertan datza euskal kulturak bezalako galderek eta galdera horiei ematen zaien erantzunek pentsamendu marko bat ezartzeko berebiziko garrantzia dutela dio.

Ikastetxeen tipologiari eta matrikulen aferari garrantzirik kendu gabe, hezkuntzaren bueltan zein diskurtso darabilgun behatzea urgentziazko iruditzen zait. Desio nuke eztabaida ez

mugatzea «euskara badago/ez dago», kultura «agertzen da/ez da agertzen» horretara; hitz egitea teknologiaren espazio berriez, ikasleak protagonismoa hartzeaz, aurrekoak baino pluralagoak izateaz.

Laguntasunari gorazarre

Ibil Bedi musika talde nafarrak kantua kaleratu duela jakin dut Merina Gris musika taldearen Instagramean. J Martinak ere bihotz batez iragarri du singlearen berri, eta, taldeaz gain, taldekide bakoitzak ere egin du Instagram bidez kanta entzuteko gonbita. Olatz Salvadorrek ere bai, eta baita 24 orduko 'historietan' desagertu diren beste zenbaitek ere. Ibil Bedi taldeak bakoitzaren keinuak eskertu ditu historien errepikaz. (Instagram zer den eta nola funtzionatzen duen ulertzea kostatzen zaizun irakurle maite hori: paragrafo hau azaltzeko eska diezaiokezu inguruan duzun norbaiti; paradoxikoki, sarearen logika harraparia da, eta ez zait erraza hitzez adierazten).

Kontua da, talde horien sareetako jarraipena egiten baduzu, ikusiko duzula ohikoa dela elkarri hitz onak esatea, *like*-ak ematea edo besteen kontzertuen iragarpena egitea. Denetan akaso gehien harritu nauena izan da Merina Gris taldeak J Martina taldeko kideak agertzen ziren kamiseta egitea, edo Merina Gris taldearen *Ardi latxen herrian* kantaren bideoklipak Belako taldeko Cris Lizarraga izatea protagonista.

Merina Gris taldeak identitateari buruz egiten duen proposamena oso interesgarria iruditzen zait. Beste baterako. Hala ere, hemen zerbait ari da mugitzen, eta badago mamia. Ezinezkoa zatekeen imajinatzea Hertzainak taldeko Gari Kortaturen bideoklipa egiten, edo Alaitz eta Maider Mixel Ducauren kontzertuaren albistea zabaltzen, edo Berri Txarrak Anariren kamisetak diseinatu eta saltzen. Sareen logika, kulturgileen zein kultur diziplinen saretzea ez da testuinguruaren parte edo ondorio bakarrik; aldatzen ari da kultur esparrua konpartitzeak, berariaz, lehia eta ordezkatzea

sortzea; laguntasunari gorazarre egitea erabaki da, erabaki politikoa hartu da, eta beste era bateko harremanak zein edukiak sortzen ari dira.

Ines Osinagari ere entzun diot *Itsasoa da bide bakarra* lanean hautu hori egin zuela. Gose taldeko parte izan zen urte luzez Osinaga, baina, amatasuna medio, taldea utzi zuen. Gose taldekoek Anita Parker taldea sortu zuten gerora, eta Ane Martinez da egun bertako abeslaria. Osinagaren eta Martinezen harremana arantzatsua izan zitekeen, eta izango zen, Osinagak aitortua, feminismoaren ekarpenak jaso ez balituzte; baina, kontrara, Osinagaren azken lanean parte hartzen du Martinezek, eta ez dute elkarren arteko ezinikusi hollywoodenserik sortu.

Inpresioz, musikan nabarmenago ari da gertatzen hori; baina beste kultur diziplinetan ere bada zantzuak. Bertsolaritzan, adibidez, gero eta ohikoago dira oholtza gainean besarkadak eta laztanak ikustea, eta kantukidearen bertsoak txalotzeko joera geroz eta handiagoa da, batez ere bertsolari gazteenen artean. Ikus-entzunezkoetan, literaturan, arte plastikoetan ere esango nuke badagoela elkar bilatzeko erabaki hori, emakumeen artean batez ere.

Musikaren eremuan, ordea, laguntasun edo harremantze horiek, keinuez edo txalo jotzeez harago, produkzioan ere esplizituki igartzen dira. Berritsuena, En Tol Sarmiento musika talde arabarraren *Guretzat* izeneko CDa. Hamaika kantez ondu dute lana, eta lau kantek kolaboratzailea dute. Kantaren promozioa kolaboratzailearen bidez iragarri zuten, eta tartean daude Eñaut Elorrieta, Josune Arakistain, Idoia Asurmendi eta Gari Uriarte eta Beñat Oribe (Dupla taldea). Kolaborazioek atentzioa ematen didate Izaroren azken lanetik. Oroitzen dut mallabitarrak nola iragarri zituen kantak banan-banan sareetan, *gauzatxoak datoz*-ka, eta hamabost kantetatik hamalau beste ahots batekin zeuden osatuta. Izarok irratian aitortu zuen pandemia aurretik kolaborazioekin ez zela horren eroso sentitzen, baina, bakartuta eta munduaren amaieretan ibili ginen garai hartan, bizitzaren

hauskortasunaz ohartu, eta, ordutik, kantatu nahi duen jendeari ausarki egiten diola proposamena gerorako utzi gabe.

Bueltan-bueltan, Katakrak argitaletxeak bere liburu propioekin erabiltzen duen logikak ere horren antza badu nolabait. Katakrak liburuen sortzea itzulpenera mugatzen du. Liburuek, baina, itzultzaileez gain, nolabaiteko enbaxadore bat izaten dute, liburuaren gaiarekin lotura duen erreferentziazko pertsona berori. Liburuaren hitzaurrea idazten du, eta liburuari gorputza jartzen diote elkarrizketa eta abarretan, testuen ekoizpen egileekin harremantzea askoz ere zailagoa delako. Adibidez, Henry David Thoreauren *Walden* lana Danele Sarriugartek itzuli du, eta Antonio Casado filosofian doktorea izan da hitzaurrea egin diona; edo Leslie Feinbergen *Borrokalari transgeneroak* liburua Fermintxo Zabaltzak itzuli du, eta Kattalin Miner kazetari eta ekintzaile feministak egin dio hitzaurrea; Hannah Arendten *Indarkeriaz* liburua, aldiz, Itziar Diez de Ultzurrunek itzuli du, eta Mario Zubiaga politologoak egin dio hitzaurrea.

Ez dira gauza bera. Badakit. Baina hiru gauza azpimarratu nahi nituen: batetik, iruditzen zaidala norbanakoa, kulturgilea, sortzaile bezain bitarteko ere bihurtzen ari dela, pertsonifikaziorako joera dagoela esparru askotan, eta ez dakit Euskal Herrian, dugun tamainagatik, joera hori nabarmenagoa ez ote den; bigarrenetik, hausten ari da artista bakartu, jenio, ahalguztidunaren ideia. Duela gutxi Simone de Beauvoirren biografia izan dut esku artean, eta harrigarria da bere bizitzan zehar zenbat pertsonarekin gurutzatu zen eta izandako lagun gertuko horiek zer-nolako eragina izan zuten bere pentsamenduan. Ezagutza elkarrekin egonda, konpartituta sortzen da, eta arestian horregatik aipatu dut ikaslea erdigunean jartzen duen hezkuntzarekiko mesfidantza; hirugarrenik eta azkenik, interesgarria litzateke kolaborazioen zergatia eta nolakotasuna behatzea. Nire ustez, badagoelako arriskua izarrek izarrei keinuka aritzekoa, diz-diz egiten duen izarrak diz-diz egiten duen izarrari keinu; eta bihurtzen da lehia lagunkoiagoa, baina, izarrek jarraitzen dute izar izaten, eta jarraitzen dute zeruan.

Joanes Igeregi Santamaria

Alarma eta itxaropena

Martxoaren 20an argitaratu zuen IPCCk, NBEren Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak, bere seigarren ebaluazio zikloaren sintesia. Horrela, 2015ean hasitako bideari amaiera eman dio, eta ez du beste ezer argitaratuko 2030 arte. 36 orrialdeko dokumentu eskematikoa da, ingelesez bakarrik argitaratua, eta bertan laburtzen ditu aurreko txostenetako 10.000 orrialde baino gehiago, legegile eta politikariei (jatorrizkoan, *policymakers*) beren erabakietan laguntzeko gako nagusiak bilduta. Beraz, dokumentuak ez dakar informazio berririk, baina eragin handia izan dezake hurrengo hamarraldiko erabakietan.

IPCCk dioenez, dagoeneko 1,1 gradu handitu da Lurraren batez besteko tenperatura industriaurreko garaiaren aldean; eta giza jarduerek eragindako berotegi efektuko gasak dira, inolako zalantzarik gabe, berotze horren kausa nagusia. Milioika urtez lurpean metatutako erregai fosilak hamarkada gutxi batzuetan erretzearen ondorioz, atmosferako karbono dioxido kontzentrazioa azkenengo bi milioi urteetako altuena da. Gainera, emisioen hazkundeak ez du etenik, eta 2010etik 2019ra bitarteko hamarraldian isuri da orain arteko berotegi efektuko gas gehien. Giza jarduerak erantzule gisa aipatu arren, ezberdintasun handiak daude herrialdetik herrialdera eta etxetik etxera. Aditu taldearen arabera, errenta handieneko etxeen %10ek munduko isurien %34-45 eragiten dute, eta %50 txikienekoek, %13-15. Alegia, herrialde aberatsak eta elite ekonomikoak dira klima larrialdiaren erantzule nagusiak. Esan dezagun, bidenabar, batez besteko euskal herritarrak goiko aldean gaudela kutsatzaileen zerrendan.

Iraganeko isurketei begiratzea baino garrantzitsuagoa da, ordea, hemendik aurrerakoei erreparatzea. Txostenak iragarritako agertokirik okerrenean, 4,4 graduko berotzeak kalte izugarriak eragingo lituzke: espezieen desagertze masiboa, ekosistema osoak galtzea, gaixotasunak, muturreko fenomenoak, goseteak, ur eskasia, itsasoaren maila igotzea... Ondorio horietako batzuk nabarmenak eta atzeraezinak dira dagoeneko, baina are gehiago larriagotu litezke etorkizunean, giza espeziearen iraupena bera kolokan jartzeraino. Egoera ez litzateke ona, era berean, gaur egungo klima politikek bere horretan iraungo balute, horrek 3,2 gradu berotzera garamatza eta.

Hala ere, alarma mezuarekin batera, itxaropen mezua dakarkigute IPCCren adituek, eta agertokirik okerrenak ekiditea oraindik ere posible dela diote. Horretarako, baina, emisioak azkar, sakonki eta berehala txikitu behar dira, hamarkada honetan bertan hasita. Etorkizun bizigarri bat bermatuko lukeen 1,5 graduko langa ez gainditzeko, 2030erako %48 murriztu beharko lirateke munduko CO_2 isurketak, eta %84 2050erako. Jaitsiera hori gutxieneko justiziaz egiteko, are jaitsiera handiagoa egin beharko genuke gehien kutsatzen dugunok. Zenbakiei neurria hartzeko, 2020an, pandemiak ekarritako geldialdiarekin, %10 txikitu ziren Europako Batasuneko isurketak. Sei pandemiaren emisio jaitsiera kateatu beharko genuke, gutxienez, hurrengo zazpi urteetan (sei urteko %10eko jaitsiera metatuak %46,86ko jaitsiera dakar: $1–0{,}9^6=0{,}468559$). Ez gabiltza horretan.

Ezin diogu itxaropenari itxaron

Klima aldaketaren kausak eta ondorioak aztertuta, IPCCk neurri sorta zabala ematen du larrialdi egoerari erantzuteko. Ondorio batzuk dagoeneko saihetsezinak direla jakinda, neurri batzuen helburua mundu beroago batera egokitzea da: gune artifizialak, ekosistemak eta hezeguneak leheneratzea, hiriguneak berdatzea, askotariko basogintza eta paisaiak,

agroekologia... Praktika horiek guztiek uriolak izateko arriskua txikitu, bero boladen eragina leundu eta lekuan lekuko elikadura burujabetza handitzen dute. Kontrako aldean, gurera etorrita, apustu suizidak dira monolaborantzan oinarritutako basogintza, arraseko mozketak eta lurra artifizialtzen jarraitzen duten azpiegitura eta hirigintza planak. Gaurko etekinak eta biharko gosea.

Egokitze neurriekin batera, beste neurri batzuek kalteak arintzeko helburua dute; hau da, berotzea ahalik eta gehien mugatzea, kausetan eraginez. Txostenean aipatzen diren arintze neurrietan, hiru hitz nabarmenduko nituzke: finantzaketa (60 aldiz errepikatzen da), teknologia (34) eta efizientzia (17). Laburbilduz, finantzaketa publiko eta pribatuak berrikuntza teknologikoa sustatu behar duela, kasu batzuetan erregai fosilak ordezkatuko dituzten energia iturriak ugaritzeko eta beste batzuetan energia efizientzia handiagoz erabiltzeko.

Aldaketa teknologikoen ekarpena ukatu gabe ere, askotan ordezkapenaren fikzioan jausten garela iruditzen zait. Adibide bat ematearren, bidegorriak egiteak edo garraio publikoa handitzeak ez dute, besterik gabe, autoen joan-etorria txikitzen. Ordezkapen hori modu orokor eta sakonean gerta dadin, erabiltzaileek sentitu behar dute bizikletak edo trenak hobeto betetzen dituztela haien beharrak autoak baino; horretarako, beharrezkoa da autoaren erabilera mugatzea (adibidez, errepide eta aparkalekuak kenduz) eta, batez ere, lurraldea birlokalizatzea. Gauza bera gertatzen da erregai fosilekin. Errekuntza mugatzeko neurri zuzenak hartu ezean, erregai fosilen neurrira eraikitako gizarte hau eraldatu ezean, beste teknologia batzuk ugaritzeak ez du horien erabilera txikituko.

Erregai fosilen ordezkotzat dauzkagun energia iturri eta teknologiek nekez eutsiko diote hazkunde ekonomikoari, globalizazioari, hipermugikortasunari... Horregatik, klima aldaketa, krisi ekologikoaren gainerako sintomak bezala, funtsean ez da arazo teknikoa. Ez ditu auzitan jartzen erregai fosiletan oinarritutako teknologiak bakarrik, gizartearen ekoizpen eta kontsumo eredu osoa birpentsatzea eskatzen du.

Zer dio isiltzen denak isiltzen denean?

Sarri askotan, esaten duguna bezain adierazkorra da isiltzen duguna. Batzuetan, isiltasunak oihu egiten du. Beñat Zalduak berriki idatzitako zutabean gogorarazi digun bezala, IPCCren sintesi txostena dokumentu mistoa da: «Ekoizpena zientzialariena da, baina onarpena, gobernuena. Prozesuan, beraz, zientziak bezainbeste pisu dauka diplomaziak». Itxura batean, horregatik filtratu zen zientzialarien zirriborro bana 2021eko ekainean eta abuztuan, gobernuek aukera gutxiago izan zezaten edukia itxuraldatzeko. Xelebrea da batzuek galbahea ez pasatzeko besteek filtratu beharra. Hala ere, orduan ezagutzera emandako hainbat adierazpen galdu egin dira NBEren korridore luzeetan. Filtrazioetan ezohiko irmotasunez mintzatzen ziren zientzialariak, eta lerroburu mamitsuak eragin zituzten. Ondorengoak izan ziren pasarte aipatuenetako batzuk:

> Lurreko bizitza klima-aldaketa nabarmen batetik susper daiteke, espezie berrietarantz eboluzionatuz eta ekosistema berriak sortuz. Gizateria ez.
>
> Energia eta material kontsumoaren hazkundea da berotegi efektuko gasak areagotzeko arrazoi nagusia. Hazkunde [ekonomiko]aren eta energia erabileraren arteko desakoplamendu txikiak –hein handi batean ekoizpenaren deslokalizazioak eragindakoak– ezin izan du konpentsatu ekonomiaren eta biztanleriaren hazkundearen eragina.
>
> Zientzialari batzuek azpimarratzen dute aldaketa klimatikoa garapen industrialak eragiten duela, eta, zehazkiago, gizarte kapitalistaren garapen sozial eta ekonomikoaren izaerak; beraz, [gizarte kapitalista] azken finean eutsiezina dela uste dute.

Sintesi dokumentura itzulita, aitortzen duenez, «anbizio handiko arintze bideek aldaketa handiak dakartzate, batzuetan disruptiboak, gaur egungo egitura ekonomikoetan». Hala ere, paragrafo berean «isuri txikiko hazkunde jasangarria» babesten du, ahaztuta elkarrekin hazten direla ekonomia, energia kontsumoa eta isurketak. Planeta finitu honetan,

hazkundea ezin da iraunkorra izan eta iraunkortasuna ezin da hazkundean oinarritu. Jarraian, egokitze eta arintze neurriak laburtzen dituen grafikoan, ez da berotzea mugatzeko neurri bakarra ere aipatzen *gizartea, bizibideak eta ekonomia* atalaren baitan. Ematen du emisioak behar beste murriztu daitezkeela gizarte ereduan, eguneroko bizimoduan eta egitura ekonomikoetan *aldaketa disruptiborik* egin gabe, egokitzapen tekniko hutsekin.

Kontraesanetan murgilduta, *Tabu* izeneko jolasean irudikatzen ditut zientzialariak. Bide orri bat iradoki behar diete arduradun politikoei, baina belarrietan min eman dezaketen hitzak esan gabe. Zaila da zuzentasun politikoari eustea bidean argitasuna galdu gabe. Esaterako, IPCCren aurreko txostenetan, desazkundea 63 aldiz aipatzen da; sintesi dokumentuan, behin ere ez. Ideia bera helarazteko beste modu bat izan liteke, eraginkorragoa, agian, energia eta materialen kontsumoa txikitu beharra aipatzea. Hori ere gehiegizkoa omen. Horren ordez, *eskaria kudeatu*, *eskaria txikitu* edo *eskariari lotutako arintze neurriak* bezalakoak darabiltzate (jatorrizkoan, *demand-side management*, *demand-side reductions* eta *demand-side mitigation options*). Aldiz, ez da behin ere aipatzen baliabideen eskaintza. Izan ere, kapitalismoaren pentsamendu magikoa kontsumitzaile askeetan eta baliabide mugagabeetan oinarritzen denez, eskariak gidatzen omen du ekonomiaren martxa. Aldi berean pentsatu beharko genituzke klima aldaketa eta erregai fosil merkeen amaiera; arazo beraren bi aurpegi dira, irtenbide bateratu baten zain.

Klima-aldaketa sintoma da, gaixotasuna kapitalismoa

Desadostasunak desadostasun, interesgarria da dokumentuaren oreka zailaz jabetzea, bertan argi islatzen baitira krisi ekologikoak dakarzkigun kontraesan eta erronkak. Nola uztartu beharrezko gizarte eraldaketa erradikala eta gizarte egituren

kontserbadurismoa, deskarbonizazioaren presa eta aldaketa kulturalen moteltasuna? Non jarri beharko genituzke ahaleginak, gaurko baldintza politikoen barruan ahal bezainbeste lortzen, ala ekologikoki eta sozialki behar duguna politikoki posible egiten? Nola txikitu dezakegu behar dugunaren eta egin dezakegunaren arteko distantzia? Nola eman krisi ekologikoaren berri bere larritasuna ezkutatu gabe eta, aldi berean, etsipenik eragin gabe? Galdera horientzako erantzun partzial eta prekarioak baino ez dauzkat.

Amaieratik hasita, berri txarrak gozatu ala ezkutatzeak, herritarrek asumitu ezingo dituzten beldurrez, gizakion egokitzapen gaitasuna gutxiesten du. Historiak erakusten digu gai garela, beharrezkoa denean, bizi baldintzen aldaketa sakon eta azkarretara egokitzeko. Egia da irtenbiderik ez ikusteak etsipenera eraman gaitzakeela, guztia galdutzat ematera. Baina egia da, era berean, are gehiago paralizatzen gaituela arazorik ez ikusteak, arazo guztiak adabaki teknologiko hutsekin konponduko direla pentsatzeak.

Klima aldaketaren (eta energia krisiaren, eta bioaniztasunaren galeraren...) larritasunaz jabetzea, bertan gozo gelditzeko arrazoia baino gehiago, ezinbesteko baldintza da behar dugun tamainako lema kolpea jotzeko. Agian, honezkero ezinezkoa da 1,5 graduko helburua erdiestea. Seguruenik, gehiegizko aldaketak behar ditugu patroi kulturaletan eta gizarte antolaketan, hain denbora laburrean indar nahikoarekin erreakzionatzeko. Segurtasun osoz, ezingo ditugu kalte batzuk ekidin. Edozelan ere, 2 gradutik 3 edo 4 gradurako aldeak txiki utz litzake historiako hondamendi guztiak. Agertokirik okerrenak ekiditea bada mobilizaziorako nahikoa arrazoi.

Hala ere, klima aldaketaren aurrean garaiz erreakzionatzeak, beste gizarte erronka batzuen aldean, badauzka gutxienez bi zailtasun gehigarri. Lehenik, ondorioak ez dira berehalakoak, kausetatik urrun gertatzen dira espazioan eta denboran. Horrek zaildu egiten du ekintzen ondorioez jabetzea, eta azaltzen du, neurri batean, urte luzez irtenbideak

atzeratzen ibiltzea. Dena den, onerako zein txarrerako, kalteak ez daude hain urrun dagoeneko, gure bizitzak kolpatzen hasita daude. Eta ez dituzte leku urrun bateko hurrengo belaunaldi ezezagunek sufrituko; hemen eta orain bizirik gauden guztiok pairatuko ditugu, batez ere belaunaldi gazteenek. Denbora laburtu ahala, arazoak ukigarriagoak izango dira, berehala ekiteko arrazoiak ugarituko zaizkigu, inertzia kulturalak leunduko dira. Kolpe bakoitza krisiaren kudeaketa autoritario baterako bide izan daiteke, edo antolakuntzarako arrazoi, oinarrizko beharrak kolektiboki eta lekuan lekuko baliabideekin bermatzeko.

Bigarrenik, klima aldaketari aurre egiteak mundu mailako koordinazioa eskatzen du; eskura dauzkagun erregai fosilen zati handi bat lurpean uztea, eta energia gutxiagorekin ondo bizitzeko moduak antolatzea. Beharrezkoa izanik ere, ez da nahikoa nork bere ohiturak aldatzea. Bidean, baliabideen banaketarekin lotutako gatazkak sortuko dira herrialdeen zein klase sozialen artean, eta batzuek dagokiena baino gehiago kutsatzen jarraitu nahiko dute, beren kontsumoa negoziagarria ez delakoan. Emisioetan behar ditugun jaitsiera tasak ez dira bateragarriak kapitalak behar dituen hazkunde tasekin. Merkatuaren arauak ez dira bateragarriak erregai fosilak lurpean uztearekin. Industria fosilak ez du bere jarduna borondate onez utziko. Irauteko aukerak izango baditugu, joko arauak goitik behera aldatu beharko ditugu. Edo, are hobeto, behetik gora.

Cira Crespo

Oroimentsuak

Ireneo Funesen istorio tristea kontatu zigun Borgesek. Funes oroimentsua da, dena gogoratzeko zorigaitza du. «Mendi bakoitzeko zuhaitz bakoitzeko hosto bakoitza». «Zabor hustegi bat bezalako» memoria zuen. Ezin zuen ezer egin oroitzapen horien guztien zamarekin, lo ere ezin zuen egin. Borgesen hitzetan: «Nekerik gabe ikasiak zituen ingelesa, frantsesa, portugesa, latina. Ez zen, ordea, beharbada, pentsatzeko oso gai. Pentsatzea diferentziak ahaztea da, orokorrera jotzea da, abstrakziora».

Beharbada, Borges kontalariak esan nahi zuen ez zirela nahastu behar gauza guztiak noiz non gertatu diren zehaztasunez gogoratzea eta Historia egitea. Hori pentsatu nahi dut nik behintzat, nahiko memoria txarra baitaukat. Data historiko oso gutxiz akordatzen naiz, eta izen propioez ere berdin; eta, halere, historiaz idazten dut. Historia egiteko, nago oroimen betea baino emankorragoa dela gertaerak ondo lotzeko ahalmena, iraganeko jazoeren arteko loturak ikusteko sentsibilitatea. Antolatu egin behar dira iraganeko une horiek, eta, bai: kontaera bat sortu. Eta, jakina, berriro ere bai: subjektu batek egingo lukeen moduan sortu, kontaera. Zintzotasunetik. Subjektibotasunak ez duelako esan nahi frogarik aurkeztu beharrik eza, edota gustuko ez ditugunekin topo eginez gero, horiek onartu eta jakinarazi ordez, isilik pasaraztea. Alderantziz. Eta are gehiago, gainera: ertzetako historia egiten dugunok ondo dakigu kalitatezko estandar altuagoak eskatuko dizkigutela; maila goreneko iturriak, froga argiagoak eta zehaztasun handiagoa. Onartuko dugu erronka, ez digu beldurrik ematen, eta gure historia interesgarriagoa izango

da, hobea. Eta saiatuko gara zuen akatsak ez errepikatzen, baina geure burua zigorrez gogaitarazi gabe.

E. P. Thompsonek oso ondo laburtu zuen guri zer interesatzen zaigun, historia iragana (eta etorkizuna) idealizatu gabe egitea alegia, era berean mundu hobea eraikitzeko behar den guztia ezagutzeari uko egin gabe. Horregatik egiten dut nik historia; hain zuzen ere, sentitzen dudalako etorkizuna eraikitzeko gakoak iraganeko marjina horietan, galtzaileen borroka eremu horietan aurkitzen direla.

Ai, eta, nola ez, gauza horietaz guztiez gain, mesedez, ez ahaztu poesia. «Saia gaitezen historiari bere poesia zatia ez kentzen», zioen March Bolch mediebalista ospetsuak. Hau da, historiari ez dizkiogula bizitzaren taupadak kendu behar, ezin dugulako ahaztu iraganean bizi zirenen ildo beretik gatozela gu geu. Gogoratu behar dugu, adibidez, borroka zelai historikoetako arrabotsaren aurretik nahiz ondoren, etxe xumeetan, negar egin zutela, guk bezala. Hori da, niretzat, historiaren parte zailena, zirrarak bere dardararen gain eraman zaitzakeelako. Baina, zirrarak, bere arriskuekin, behar du, enpatiarik gabe nekez egingo baita historia onik.

Agian ez du ematen, baina artikulua pixkanaka gaurkotasunerantz hurbiltzen hasi da. 2002an gaude honezkero, non eta Erromako Forum inperialetako aztarnategi arkeologikoan. Handik nabil ni, hogeita bi urteko gaztea, zirraraz beteta. Gidatxo arkeologiko txiki eta gorria daramat esku artean, nire Erromako Erasmusa egiteko unibertsitateko irakasle batek utzi zidan gida bitxia. Historia ikasten ari naiz, Historia Klasikoa espezialitatean, zehazki. Garai hartan, nire denbora-pasa kuttuna Forum aztarnategietatik bakardadean ibiltzea zen, eta, gidatxo txiki eta gorriaren bidez, nik ezagutzen nituen Erromako gertaera historikoak kokatzea. Erromako Senatuaren eserlekuak oso ondo ikusten ziren, eta erraz irudika nezakeen Zizeron aldarrika, «noiz arte abusatuko duzu, Katilina, gure pazientziaz!?». A zer hitzaldia, a zer hizlaria! Liluragarria! Katilinaren kontrako diskurtso horren hasiera izugarria da. Hori ere, bere moduan, poesia da. Aski dira

hitz horiek Katilina izuak hartzen antzemateko. Hori bai, beti bezala, egoeran pixka bat sakonduz gero, agian, zeure burua non kokatuko zenukeen ere hasiko zara pentsatzen, Zizeronen larruan, edo Katilina horren larrian...

Harri erromatarren artean ibili ahala, eraikinak nire aurrean agertzen hasi dira jada. Irudimenari esker, altxatu egin dira hormak. Egun batzuk pasa eta gero, erromatarrak paseatuz ikusten ditut, dotore baino dotoreago, beren togekin, emakumeak orrazkera zoragarri haiekin... Askoz ere zailagoa da niretzat, aldiz, besteak irudikatzea, etorkinak, txiroak, lapurrak, edota zaratak, usainak edo gogo aldarteak... Eta zailago da, besteak beste, harritzarrok aurkezten zaizkigun moduan nire irudimen ariketari interferentzia egiten dion kontakizun historiko zehatz bat adierazten delako. Italia faxistak Erroma inperial eta inperialista hartan zeukan bere sortze mito ideala, eta Mussolini diktadoreak hori goraipatzeko programa historiko oso bat burutu zuen: Forum inperialak ikusgarriak dira, bai, baina horien luzimendurako aurretik Erdi Aroan auzo herrikoi oso bat hustu eta lurrarekin berdinarazi zutelako.

Duela gutxi Maite López Las Heras latinista azkoitiarrak euskarara ekarri digu Egeriaren *Ibilbidea* (Testu Zaharrak, 2022). Bidaia koaderno zahar bat da. Egeria VI. mendeko emakume kristau bat izan zen, Biblia irakurtzea oso atsegin zuena. Behin batean, leku santuak ezagutu behar zituela-eta, Galiziatik atera eta gaur egun Ekialde Hurbila deritzogun lurraldera iritsi zen. Bidean aurrera eta Lur Santuan barrena egin eran, geraleku guztietan bere liburu faboritoa ireki eta toki hartan zer gertatu ote zen irakurtzen zuen. Alegia, Biblia eskura, nik Forumetan egin nuen ariketa bera egin zuen Egeriak: berarentzat garrantzia zeukaten Bibliako gertakizunak kokatzen saiatu zen. Honelakoak apuntatu zituen bere koadernoan: «Esan zigutenez, lautada hartan ezarri zituzten euren kanpalekuak Moises santuak nahiz israeldarrek hiri haien aurka borrokatu ziren egunetan. Hain zuzen ere, oraindik kanpamentuen arrastoak ageri ziren». Historia baten bila ibili ginen biok.

Ibilbidea liburua irakurriz, gogoratu dut ebanjelioak irakurri nituen lehen aldia. Ni, kontatu dizuedan moduan, unibertsitateko historia ikasle bat nintzen, karrerako azken kurtsoak egiten ari zena, eta jakin-minez hasi nintzen Bibliako itzulpen on bat irakurtzen. Berez, ikergai nuen garaia azaltzen zen. Sorpresa hartu nuen, ordea. Ni erromatar gizon dirudun eta inperialisten istorioak irakurtzen ohituta nengoen, esklaboekiko, beste hizkuntzekiko edo ezberdina zen edozerekiko erdeinurik ezkutatzen ez zutenak... Eta, bat-batean, garai bereko jende arruntentzat idatzitako orri batzuk irakurri nituen. Testu hartan oso gauza original eta iraultzailea esaten zuten: jende guztia berdina da. Are gehiago, madarikatu, zigortu, baztertu guztiak hobeak direla dirudunak eta erdigune guztia okupatzen dutenak baino: «Lehenengoak azkenak izango dira, eta azkenak lehenengoak».

Biblia berriaren zati hunkigarrienetako bat, dudarik gabe, *Mendi gaineko predikua* da. Han esaten dute, adibidez: «Zorionekoak negarrez daudenak, haiek baititu Jainkoak kontsolatuko». Karl Vonnegutek, bere ateismotik, *A Man Without a Country* liburuan esaten du: «Jesusek bere Mendiko Sermoia ahoskatu izan ez balu, nik ez nuke gizaki izan nahi». Izan ere, Bibliako zati batzuk zoragarriak dira. Niretzat, besteak beste, galtzaileentzako, azkenekoentzako itxaropen kantu baten gisakoak.

Orain bai, orain saiatuko naiz gaurkotasunari heltzen: Zizeron beharbada bere beste hitzaldi ahaztezinetakoren bat ematen ari zen bitartean, Iberiar penintsularen iparraldean erromatar armada batzuk zebiltzan. Erromatarren arteko gerra zibila piztu eta gudaroste horiek elkarren aurka hasi ziren, eta Iberiar penintsulako biztanleak tartean harrapatu. Borroka egun horietako batean, Erromako soldadu batzuek, menditxo galdu batean, beste bataila bat irabazi zuten, beraiek *baskoi* izendatzen zuten bazterreko tribu baten hiritxo baten aurka. Han ez zen toga bat ere odolez zikindu. Egingo zuten negar baten batzuek, eta han bizi zirenen etxeak eta gauza guztiak atzean utziak eta ahaztuak geratu ziren. Armada

erromatarrak ere ahaztuko zuen garaipen hori, eta Zizeronek, dudarik gabe, ez zuen horri buruzko hitzaldirik eman.

Jakina denez, duela hilabete gutxi, indusketa arkeologiko xume bat egin zen leku hartan. Ahaztu behar izan zuten herri horren estratu garrantzitsu bat ireki zuten. Objektu arkeologiko guztien artean, metalezko objektu txiki bat agertu zen, esku itxurakoa. Hizkiak zeuzkan. Are gehiago, hizki horiek irakurtzen ahalegindu eta lehenengo hitza ulergarria zen. Hau ezustekoa, hau. Oraindik ere, han utzitako hitz bat ulergarria da. Norbaitek idatzi zuen hori eta, oraindik ere, ez dugu esanahirik ahaztu.

Zorioneku. Zorion promesa batekin hasten den testua, tradizio literario luzekoa eta *makarismo* edo *dohatasun* deritzon generoan sailkatzen dena. Formula hurrengoa da: zoriontsu izateko promesa bat daukazu zuretzat, jarrera bat izan edo zerbait bete eta gero. Salmoetan edo Biblian maiz agertzen da, eta ezagunena arestian aipaturiko Bibliako mendi gaineko predikua da, jende xumeenari zuzendutako hitzaldi itxaropen emailea.

Orain badakigu menditxo hartako herritar batek ere zoriontasun desio bat idatzi zuela bere mintzairakideentzat, bataila galdu eta beste ertz batera alde egin behar izan baino lehen. Han gelditu zen desioa, ezkutatua, duela hilabete batzuk arte. Gaur, formula polit horri esker, gure poesia zatia jarri diogu historiari. Hor duzue gure gaurkotasuna, gure zorion xumea.

* * *

Amaitzeko, esan dudan guztia aprobetxatu nahi dut, beste batzuk egiten ari diren moduan,[1] literatura greko-latindar klasikoa euskarara ekartzeko baliabideak eskatzeko.

Kontua ez da hainbeste, *Funes Oroimentsuak* bezala, Plinioren *Naturalis historia*-ren XXIV. liburuaren hasiera buruz eta euskaraz errezitatzeko aukera izatea. Baina bai agian *zorioneku* hitza idatzi zen garaiaren testuinguru historikoa

hobeto ulertzeko oinarriak sendotzea. Herri mailako ekimen sendo bat bultzatu beharko litzateke, ahal dugun ezagutza handiena metatu behar dugu eta. Goi mailako literatura greko-latindarraren itzulpenak, euskarazko literatura edertzeko eta europar literatur tradizioekin lotura egiteko bidea ez ezik, gure herri menderatuaren gaurkotasunaz pentsatzen lagunduko diguten idatziak dira. Izan ere, zein interesgarria izango litzatekeen, adibidez, gure Ovidioren *Tristeak* eta *Pontikoko gutunak* euskaraz edukitzea. Han, Erromatik Itsaso Beltzaren ertzera erbesteratua eta latinetik urrun, gure inperialista maiteak erakusten digu zein urrunetik datorren hizkuntza hegemoniaren kontzeptua:

> (Hemen) inork ez daki latinez ideia arruntenak ere adierazten. Nik neuk (barkatu, Musak), erromatar poeta, hizkuntza sarmatikoa mila aldiz aritzera behartuta ikusten dut neure burua, eta (ai ene, aitortu egingo dut), ohitura faltagatik ia ez zait latinezko hitzik bururatzen. Dudarik gabe, liburu honetan barbarismoak egongo dira. Ez da idazlearen erruz, bizi den herrialdearenaz baizik.[2]

Oharrak

1. Adibidez, Santi Leonék 2023ko otsailean argitaratu zuen 'Karlomagnoren siesta' artikuluan, edo Maite López Las Herasen elkarrizketa batzuetan, eta bere obraren bidez.
2. Itzulpena nirea da. Oso itzulpen librea egin dut (barkatu niri ere, musak), gaztelaniatik eta frantsesetik.



euskadi irratia

gertu

IZAN ZAITEZ JAKINKIDE

Harpidetuz

- ☐ Euskal Herria **60 €**
- ☐ Europa **75 €**
- ☐ Mundua **85 €**

Nola jaso nahi duzu?

- ☐ Paperean bakarrik
- ☐ Digitalean bakarrik
- ☐ Paperean eta digitalean

Harpidetuz gero, %30 aurreztuko duzu.

Babesle izanez

120€ ordainduz, Jakinen proiektu berria sustatuko duzu eta paperezko aldizkaria eta aldizkari digitala jasoko dituzu etxean.

Ekarpena eginez

Nahi duzun kopurua ☐

EROSI

Aldizkaria

PAPERA

- ☐ Euskal Herria **14 €**
- ☐ Europa **17,50 €**
- ☐ Mundua **20 €**

DIGITALA

- ☐ **14 €**

3 urtetik gorako zenbakiak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN.

Artikuluak

DIGITALA

- ☐ Jakinkide bazara **Doan**
- ☐ Jakinkide ez bazara **3 €**

3 urtetik gorako artikuluak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN

Liburuak

	PAPERA	DIGITALA
Jakinkide bazara	☐ **10 €**	☐ **4 €**
Jakinkide ez bazara	☐ **12 €**	☐ **7 €**

JAKINKIDE TXARTELA

Izena .....

Abizenak .....

Helbidea .....

Herria ..... Posta kodea .....

Telefonoa .....

Posta elektronikoa .....

Kontu zenbakia

Kontuaren jabea .....

Jakin eus
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 218092
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

Jakin.eus
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus